

25 urtez adimen urritasuna dutenen bidelagun

Aretxabaletako Aratz elkarteak zilarrezko ezteiak bete ditu urritasunak dituzten pertsonen eta haien familiei laguntzen; irailaren 19tik 23ra dira ospakizunak / 16

'Boluko frontoia estali: bai ala ez?'
galdetuko dute irailaren 23an Bergaran / 26

14 debagoiendar lehiari izango dira bihar, Aramaioko Rallysprintaren 16. edizioan / 38

SINADURAK

	ASIER ELORTZA / 24
	IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ / 30
	OSCAR RODRIGUEZ / 13
	AMAYA MADINA / 33
	MANEX ARRIOLABENGOA / 22
	MIKEL IRIZAR / 48

 Zortzimilako bat egin zuen lehen andre euskalduna

 Kirol elkarten gidaritzan dabilzan emakumeak



VW Tiguan berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto

SAKONENA

Udalerriko sakonerarik handiena duen kobazuloa esploratzen dihardute, Oñatin / 33



Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kide bat Lizartza 1 koba esploratzen.

"Pilota lodiegi egiten laga da, eta ezin da jokatu"

FRANCESC FABREGAS 'EL VALLENC' ASTEKARIKO ZUZENDARIA

Guardia Zibilak bost orduz miatu zuen 'El Vallenc'-eko egoitza, eta haren zuzendari Francesc Fabregas inputatu dute, urriaren 1eko erreferendumaren bueltan

Ubane Madera DEBAGOIENA

Gora eta gora egiten dihardu Katalunian tenperaturak. Erreferendumaren eta independen-tziaren aldekoek hori berori gauzatu ahal izateko pausoak ematen segitzen dute eten barik; kontrakoek, berriz, hartutako erabakien eta egin litezkeen ekintzen kontrako neurriak iragartzen eta hartzen dihardute, horiek ere etengabe. Azken horren adibide da joan den zapatuan Valls udalerriko (Tarragona) *El Vallenc* astekariaren egoitza miatu zuela Guardia Zibilak; bertako zuzendari eta Associacio Catalana de Premsa Comarcal elkarteko presidente Francesc Fabregas deklaratzera eraman zuen Guardia Zibilak.

Zeu inputatuta, egoitza arakatuta... guztia kokatu dute urriaren 1eko erreferenduma saihesteko Espainiako Gobernuak hartutako badaezpadako neurrien barruan. Benetan hala dela uste duzu, ala indar erakustaldi bat da?

Oso argi daukat beldurraren politika aplikatzen segitzeko indarrezko neurri bat dela. Ez ulertzekoa da gure astekarira etorri ziren indarren desproporzionalitatea; ondo asko dakite bakezaleak gabela, pertsona la-saiak, eta ez genuela inolako erresistentziarik egingo. Miatzeko agindua eskatu ere ez genuen egin. Erabili egin gintuzten Espainia osoari erakusteko Espainiako Gobernu zer egiteko gertu dagoen erreferenduma gauzatu ez dadin.

Espero zenuten halako zerbait? Komunikabideetan? Eta kasu honetan, toki komunikabide batean? Egia esan, ez, eta, are gutxiago, gurea moduko eskualde mailako komunikabide apal batean.

Zein egoeratan zaude orain? Eta zuen komunikabidea? Epailearen deia zain gaude; gu ikertzen dabilta beharrezko kolaboratzaile izatearren hiru delitutan: diru publikoak bide-



F. Fabregas (eskuman), miaketaren ondorengo adierazpenak egiten. 'EL VALLENC'

"KATALUNIARREK KALERA IRTEN ETA BOTOA EMANGO DUTE; BAIEZKOA ATERAKO DA, SEGURU ASKI"

gabe erabiltzeagatik, prebarikatzeagatik eta desobedientziarengatik. Ulertuko duzun moduan, ezinezkoa da guk hiru ekintzok egitea, ez garelako ez funtzionarioak, eta ezta politikariak ere. Astekariak normaltasunez dihardu. Hori bai, ezin dugu jakin joan den irailaren 9an bizi izatea egokitu zitzaigun moduko bestelako egoera penagarririk bizi izatea egokituko zaigun.

Elkartasun mezu ugari jaso dituzue gertakariaren harira; bat edo bat bereziki eskertzen duzue? Bat edo bat bereziki faltan igarri duzue?

Babesa erakusten diguten izugarrizko mezu piloa jaso ditugu, eta zuen mediaa aprobetxatuko dut mundu osoari, eskualdekoei, gure herrikoei zein Espainiakoei elkartasun mezu horiek guztiak eskertzeko: bai prentsa elkar-teenak, kazetari elkargoenak...

Bestalde, bat edo bat faltan igartzen dudan galdetuta, ba, egia esan, bai. Nire emazte ohiarena. **Ze punturaino errepika daitezke zuek bizi izandakoen moduko egoerak?** Katalunian egoera nahiko konplikatuan gaude. Erreferendumean laguntzen duen edozein ikertu gura dute, publizitatea egiten duten medioak inputatza iristeraino. Beraz, antzerako egoerak errepika daitezke, ze publizitatea jartzen duten medioetan, gobernu zentralak gurako du jakin zeinek enkar-gatu duen, eta ea doan ipini duten edo kontratatu egin duten. Baina ni apur bat harago joango naiz: zer gertatutako da publizitatea egin ez baina erreferendumaz berba egiten duten medioekin? Horiek ere ikertuko dituzte ezkutuko publizitatea egitearren? Esandako moduan, oso egoera konplikatuan gaude, konpontzeko oso zaila dena. **Diadako irudiak ikusita, nahiko argi dago Prozesuak markatutako bideari utsiko diola. Erreferenduma eta hango emaitzak albo batera utzita, ze ondorio-hazi erein ditu Prozesuak Kataluniako gizartearen?** Gauzak ez badira bide zuzenetik egiten, ez dagoenean elkarriz-

ketarik, bi aldeak elkarren aurka dabiltzanean eta herri batek bere etorkizuna erabaki nahi izatea moduko gauza arrunt eta oinarrizko bat ulertu nahi ez denean, oso zaila da bidean ez geratzea egoera desatsegin eta konplikatuak, eta ausartuko nintzateke esatera baita enfrentamendu bat edo beste ere. Pilota lodiegi egiten laga da, eta orain ezin da jokatu. Urriaren 1ean, kataluniarrek botoa emateko aukera izango dute.

Benetakoa da, kalean antzematen da hainbeste mediok eta politikariek nabarmen duten gizartearen zatiketa?

Benetakoa da, baina ez da esaten duten bezain handia. Atzo [irailaren 11ko Diada] ikusi ahal izan genuen jendeak ospatu eta aldarrikatu egiten zuela, baina errespetuz eta edukazioz, hori guztia jai bilakatu. 90 urteko pertsonetatik hasi eta jaioberrietaraino zeuden. Horrek erakusten du bere burua gobernatu eta bere erabakiak hartu nahi dituen herri baten indarra.

Politikarien artean pertzepzio berbera dago?

Politikarien artean denetik dago. Batzuek estu hartzen dute, eta beste batzuek umore handiagoarekin. Esan beharrik ez dago alderdi espainolistak geroago eta kezkatuago eta urduriago daudela aukera erreala ikusten dutelako urriaren 1ean bozkatzeko aukera izango dela.

Erreferendumera begira, alde bateko zein besteko gehiengoak nahikoa estu ikusten dira; zela aurreikusten da biharamuna? Ze punturaino egon daiteke atzerapausorik?

Katalunia baikor dago, kataluniarrek kalera aterako dira eta botoa ematea den eskubide demokratikoa erabili ahaliko dute, eta, seguru aski, baiezkoa aterako da. Biharamuna egun normala izango da, telefono dei ugari egin beharrekia, eseri eta Espainiaren deskonexioa egiteko modurik egokiena zein den aurkitzeko.

Beste zerbait gura baduzu gaineratu...

Eskerrak eman nahi dizkiet, ez bakarrik Espainiatik, baizik eta munduko edozein bazterretatik elkartasun mezuak helarazi dizkiguten guztiei. Ezinezkoa izan zaigu jasotako mezu zein *whatsapp* guztiei erantzutea. *El Vallenc* astekaria osatzen dugun pertsona guztiei eskerririk asko, bihotz-bihotzez.

Kataluniari babesa erakusteko deialdia

Gure Esku Dagok manifestazioa egingo du bihar Bilbon, elkartasuna adierazteko asmoz

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamika (GED) manifestazioa deitu du biharko, Bilbon, Kataluniari babesa erakusteko. 17:30ean abiatuko da, Casillatik; Debagoienetik autobusak jarri dituzte.

GEDko Lierni Olmedok deialdiaren zergatiak azaldu ditu: "Batetik, Kataluniako herriarekiko elkartasuna adieraztea; bestalde, bertako eragileei eta erreferenduma antolatu dutenei gure babesa adieraztea. Eta, beste alde batetik, Euskal Herriarendako ere erabakitze eskubide hori aldarrikatzea".

Botoa "demokraziaren adierazle bat" dela dio Olmedok. Hala, Kataluniako erreferenduari "jakin-minez eta ilusioz" begiratzen diote: "Eurek egin duten ibilbide horrek ikasteko balio digu. Argi utzi digutena da nola herri erakundeak batu diren herri mugimenduekin helburu bat aurrera eramateko".

Gure Esku Dagok hurrengo xedetzat herri itun bat osatzea duela azaldu du. "Herriarrek erabakitze eskubidea nola ikusten duten, nola gauzatu daitekeen eta abar jaso, eta ondoren herri eragileekin landu eta erakundeetara eramateko".

Hazilan-en izena emateko epea: irailaren 20a eta 26a

Izena emateko, *Debagoiena.eus*-etik eskaera-orria deskargatu eta Mankomunitatera eraman behar da hilaren 20a aurretik. 20-44 urteko langabeei dago zuzenduta, goi mailako ikasketak dituztenei. Prestakuntza eta praktikak ahalbidetuko dizkiete. Enpresek hilaren 26a aurretik eman behar dute izena *hazilan@debagoiena.eus*-en edo 943 79 30 90ean.

Aldaketak eskualdean Lurraldebusen zerbitzuan

Ibilbide zirkularra egiten duten autobus lineak "sinplifikatu" eta tramuka zatituta, bide laburragoa egingo dute urriaren 2tik aurrera; Mugikortasun diputatu Marisol Garmendia asteon izan da Mankomunitatean, alkateekin berritasunak partekatzen



Marisol Garmendia diputatua, bailarako alkate eta udal ordezkariekin. A-T

Amaia Txintxurreta DEBAGOIENA

Urriaren 2an hasita, Lurraldebusen eskualdean eskaintzen duen zerbitzuan hainbat aldaketa ezarriko ditu Gipuzakoako Diputazioak. Orokorrean, zerbitzu maila eta ordutegiak "mantendu" egingo dira, baina ibilbideak "sinplifikatu", Mugikortasun diputatu Marisol Garmendia esplikatuakoaren arabera.

"Debagoienak bazuen oso eredu bitxia, ibilbide zirkularrekin; ibilbideak oso kilometro handikoak ziren eta denbora izugarri igarotzen zuen. Oso konplikatuak ziren kudeatzeko. Ibilbide horiek sinplifikatu egin ditugu. Beraz, orain, Bergara,

Zerbitzuan egingo dituzten aldaketak

Orain

- **DG08:** Oñati, Bergara, Soralue eta Eibar.
- **DG03:** Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Legazpi, Zumarraga, Antzuola, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.
- **DG04:** Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Antzuola, Zumarraga, Legazpi-Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.

Gero

- **DG08:** Kendu egingo dute.
- **DG03:** Zumarraga, Antzuola, Bergara, Antzuola eta Zumarraga
- **DG04:** Zumarraga, Legazpi, Oñati eta Arrasate.
- **DG10:** Izen berriarekin, linea berria estreinatuko dute: Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.

Gainontzeko zerbitzuetan ez da aldaketarik izango.

Arrasate eta Zumarraga gelditzen dira buru bezala (...) Moztu egiten dira tramuka eta ardatz batzuk jartzen dira; arazoa ez da ekonomikoa, baizik eta zerbitzu hobea, errazagoa eta azkarragoa ematea; ondo funtzionatzen du Lurraldebusen zerbitzuak, bailarako jendeak erabiltzen du, eta ez da kostu arazoa, baizik eta zirkulazioa ordenatzeko", esplikatu zuen. Bestela esanda, ibilbide zirkularrak dituzten lineak 2,5 orduko iraupena dute. Eta horiek sinplifikatzea da plangintza berriaren asmoa.

Mugikortasun diputatua martitzenean batzartu zen eskuade-

ko agintariekin, aldaketak euren partekatzeko.

Balorazio positiboa

Udalerrietako ordezkariak dagoenez, begi onez ikusi dituzte aldaketok. Oñatiren kasuan, mantendu egingo dira ordu erdian behin Elorregirako eta Zumarragarako autobusak, eta, alde horretatik, balorazio positiboa egin zuen bertako udal ordezkariak. Hala ere, bi puntu negatibo ikusten zituen: Bergara joateko Elorregin autobus aldaketa egin beharko da. Eta Eskoriatzara edo Aretxabaletara joateko ere bai; kasu horietan, Arrasaten.

MONDRAGONLINGUAN hitz egiteko era berriak DITUGU!

Matrikula zaituz orain,
abantaila interesgarriak
dauzkagu zuretzat.

**Gure 10
ikasletik 9k
Cambridgeko
azterketak
gainditzen dituzte.**

**Hizkuntzek
garuna
lantzen
laguntzen
dute.**

**Erantzukizuneko postuen
% 100ean bigarren hizkuntza
bat ezagutzea exijitzen da.**

**Haur eleaniztunek
errendimendu hobea
dute eskolan.**

**Ingelesa jakinez gero,
% 44 handitzen da lanpostu
bat aurkitzeko aukera.**

**Lanpostuen % 70ean
ingeleza edo euskara
eskatzen dute.**

MATRIKULA ZABALIK

ARRASATE. Araba etorb. 4
Tel. 943 71 20 55

OÑATI. Motxon kalea 7
Tel. 943 71 60 00

mondragonLingua

2017-2018 ikasturtea martxan da MUn

Astelehenean egin zuten kurtso berriaren inaugurazioa, eta ordezkariak publiko zabala batu zen; Iñigo Urkullu lehendakaria, adibidez. Errektoreak ikasle berriei ongietorria eman zien, eta eurak "mundurako prestatzeko" konpromisoa agertu zuen

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA
Mondragon Unibertsitateak 2017-2018 ikasturtearen irekiera ekitaldia egin zuen astelehenean Eskoriatzako Huhezin. Urkullu lehendakaria eta hainbat ordezkari publiko han izan ziren. Idoia Peñakoba idazkari nagusia izan zen hitza hartzen lehena. Besteak beste, Huhezinen 40. urteurrena eta Irungo Enpresagintza Campusaren inaugurazioa nabarmendu zituen. Matrikulazioak %11 igo direla azpimarratu zuen.

Eugenio Astigarraga irakaslea egungo erronkez aritu zen: "Datorrigun gizartearen lan esparruan aritzeko, berrikuntza soziala txertatu behar dela uste dut. Fokua akademiatik gizartera pasatu beharko genuke".

Vicente Atxa errektoreak ongietorria eman zien aurreko unibertsitatean hasiko direnei, eta haiek "mundurako prestatzeko" konpromisoa berretsi zuen. Unibertsitatearen hiru helburu ere aipatu zituen: "Lehenik, ikasketa espezializatuak garatu behar ditugu; bigarrenik, aliantza estrategikoak egin Euskadiko enpresa eta administrazioekin, talentua sortzeko eta erakartzeko; azkenik, gure ikerkuntzak enpresa, erakunde eta gizartearen duen eragina hobetzea da"



Aurrekuarekin hasi zuten asteleheneko ekitaldia. MAITE TXINTXURRETA

Lehendakariaren berbak

Iñigo Urkullu lehendakariak ireki zuen ofizialki Mondragon Unibertsitatearen (MU) ikasturte berria. Berbaldian, Urkulluk MUnen eredu goraipatu zuen: "Aurreko hiru urte betetzen ditu Mondragon Unibertsitateak. Proiektu gaztea eta berritzailea da zuena. Ikuspegi irekia duzue; euskal sustraietatik abiatuta, mundu globalean lehiakorra izan nahi duen proiektua bultzatuz".

Hezkuntza hobetzea "Euskadiren erronka garrantzitsuenetako bat" dela adierazi zuen Urkulluk. "Horregatik, interesgarria zaigu Unibertsitatearen helburuak konpartitzeko ematen diguzuen aukera", esan zuen. "Gizartea eraldatzea da zuen konpromisoa, eta horrek gertutasuna, elkar ezagutza eta auzolana eskatzen ditu. Denon artean egin beharreko eginkizuna da hezkuntza hobetzea, eta honen bitartez gizartea bera ere hobetzen eta garatzen laguntzea. Mondragon Unibertsitateak eredu propio bat du; kooperazioa da zuen xedea, eta lankidetzaren bidez garatzen duzue hezkuntza proiektua"

Mobilizazioak ugarituko dituzte Edesako eta Geysenko langileek

Aurrerapauso barik bukatu zuten kontratuak eteteko espedientearen baitako lehen batzarra atzo, eguena

Ubane Madera DEBAGOIENA
"Tramitezko bilera izan da. Dokumentazioa aurkeztu digute. Sumatu dugu negoziatu gura dutela, baina...". Edesako langileen ordezkari Rikardo Perezen berber deskribatzen duten moduan, aurrerapauso barik bukatu zuten atzo ia hiru ordu iraun zuen batzarra. Edesak enplegua suntsitzeko aurkeztutako espedientearen baitan egingako lehen batzarra izan zen. Bigarrena irailaren 20an, eguaztena, izango da.

Bartzelonara
Egoeran aldaketarik ez dagoela baina mobilizazioak ugaritzeko asmoa dutela jakinarazi zuten langileen ordezkariak.

Enpresako zuzendaritzak eta langile batzarra egiten duten langileek elkarretaratzeak

egingo dituzte Arrasaten eta Basauren. Horrez gain, CNA Group-en eta Cataren Bartzelonako egoitzetara protestan joateko asmoa ere badute, baita mobilizazio gehiago egiteko ere.

"Altxortegi falta"

Enpresari dagokionez, berriz, komunikatu bitartez berretsi egin du kontratuak eteteko espediente "abiartze" egin behar izan duela "altxortegi faltarengatik eta egiturazko gastuengatik, nahiz eta enpresak jarduera etetea saihestea gura izan, helburua delako jarraitzea eta produktzio industrialia Euskal Herrian mantentzea". Edesa Industrial SLk "errealitate horri aurre egiten dio langileekiko errespetu gorenarekin eta espero du adostasun bat lortzea", gaineratu zuten.



EDURNE RETEGI

Oñatira joateko 'lekaixoa'

Irailaren 24an Oñatira joateko gonbita partekatu zuten atzo, eguena, Donostiako Ikastolen Etxean. Gipuzkoako Ikastolen aldeko festa erraldoirako astebete falta dela jakinarazi dute, besteak beste, 1.600 boluntario ibiliko direla hori guztia aurrera ateratzeko lanean.

GOIENA ASTEBURUKO ALBISTEEN LABURPENA

DOAKO HARPIDETZA

ASTE BUKAERETAKO GOIENAREN BULETINERA HARPIDETU ZAITEZ DEBALDE. EMAN IZENA HEMEN: GOIENA.EUS

ASTEBURUKO ALBISTE GARRANTZITSUENEKIN MEZU BAT JASOKO DUZU ZURE POSTA ELEKTRONIKOAN ASTERO.

EDOZEIN ZALANTZA BADUZU, JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN: POSTA ELEKTRONIKOZ (HARPIDETZA@GOIENA.EUS) EDO TELEFONOZ (943 25 05 05)

goiena
ZU HEMEN ZAUDE

ASTEBURUKO ALBISTEAK **goiena**
ASTEBURUKO ALBISTEAK

GIZARTEA
Arantzazu, topaleku

GIZARTEA
Lau musika taldek eman diote hasiera Elkartasun Egunari

BEZAK

BEZAK
Erdi Arako trobadorak, jokoak, jaiak eta musikarekin Arrasaten

BEZAK
San Martinetako feria, jaiak eta izarrak

BEZAK
Andreselak oporri dituzte asteburua Laintz Gatzagan

KILOMETROAK 2017

Oñati

LEKAIXOKA!

irailak 24


Txantxiku
Ikastola


ikastolenelkartea

Babesleak



Erakundeak



Laguntzaileak



Komunikabideak





ZABALIK

OIHAN VITORIA

Ispilu bila, itsu

Botopaper bila Kataluniako hainbat inprenta miatu ditu Guardia Zibilak asteon. Iraganeko irudiak. *Egunkaria*-ren itxiera gogora dakartenak. Mehatxua hor dago. Beti egon da, baina zitalagoa da orain, urriaren 1a hurreratu ahala. Kataluniako *Ara* kazetak berak uko egin behar izan dio erreferendumari buruzko publizitatea argitaratzeari. Zergatik? Proiektuaren biziraupena bermatu eta egunkariaren itxiera arriskua saihesteko.

Erabakiak independentziakale ugari aztoratu ditu, eta ez da gutxiagorako. Ataka estuan daude hedabideak. TV3 kateari ere errieta egin dio Auzitegi Konstituzionalak, eta erreferenduma ez bultzatzeko agindu. Ohartu gabe kazetariak isilaraztea bezain larria dela publizitate instituzionalari ateak ixtea. Prentsa askatasunaren funtsa hori delako, azken finean. Gustuko ez dituzun iritziak onartzea, baita mingarriak zaizkizunean ere.

Egun erabakigarriak datoz, iragarri ezinak. Espainiak, batik bat, ondo neurtu beharra du erantzuna, mundu osoaren begietan are irudi tamalgarriagoa eman nahi ez badu, behintzat. Bozkatzeari,

erreferenduma babestea, hura sustatzea... Dena bihurtu du debekugai Espainiaren makineriak, prozesua erabat deuseztatzeko arrazoi nahikoa delakoan.


Baina Katalunian tentuz ari dira, pausoz pauso, irmo. Beste erremediorik ez dute, batez ere

sua itzaltzeko zeregina dutenek etengabe su garrak pizten dabilzanean. Jokoa ez dagoelako bakarrik haien independentzia, adierazpen askatasunaren, etxebizitza eskubidearen, pentsioen, enpleguaren, burujabetza ekonomikoaren eta berdintasunaren aldeko guztuen borroka baizik.

Euskal herritarro, bitartean, behatzaile finak izatea dagokigu, etorkizunerako ikasgai ederrak utziko dizkigulako prozesuak. Zoritxarrez Kataluniakoa ez delako, urrunetik ere, norabide argirik gabe marrazten gabiltzan bidearen parekoa. Gordina da errealitatea, gordinetia. Euskal Herrian nekez lortuko dugulako ezker-eskuin, laiko-kristau, kapitalista-antikapitalista dikotomiatik irtetea interes orokorren mesedetan. Norbere zilborrari so aritu dira Katalunian, galtzeko beldurrik gabe, eta helmuga gurutzatu ala ez, amore ematea, behintzat, ezin zaie leporatu. Hori da hemen falta zaiguna: ausardia. Puskatu daitezkeen ispiluak baino, zilborrak behar ditugulako itsu ez geratzeko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Logika permakulturala

TXERRA RODRIGUEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/GNPLP](https://labur.eus/gnplp)

Uda aurretik entzun nion bati (irratian izan zen, baina ez dut gogoratzen nork eta noiz) logika permakulturala jarraitu behar zuela (oker ez banaiz, Nafarroako zonalde batzuetan gertatzen ari den populazio gabeziari aurre egiteko).

Esaldia iltzatuta geratu zitzaidan orduko hartan.

Batez ere, ez nuelako ulertu zer demontre adierazi gura zuen (irratiz eta ahoz logika permakulturala esatea ere!).

Geroztik apur bat ikertu dut permakulturaz (arinaiztar eran, jakina).

Hasteko eta behin, wikipediara jo nuen eta permakultura zer den ikusi:

Permakultura gizakiok lurrean kokatzeko sistema jasagarria eta harmonikoa da, inguruan integratzeko modu egokia kontsumismotik kanpo eta naturaren baliabideak gordetzen.

Permakultura hitza ingelesetik dator, *permaculture*, eta bi hitzen arteko kontrakzioa da: *permanent* eta *culture*, hau da, kultura (eta nekazaritza) iraunkorra.

Permakulturak izadian behatutako patrioiak jarraituz, giza-habitat iraunkorrak sortu nahi ditu.

Diseinu ekologikoa, ingeniariak ekologikoa eta ingurumen diseinua konbinatzen ditu nekazaritza eredu berri bat sortzeko.

Gero, ibili nintzen dantzan interneten hara eta hona.

Baina, bat-batean, Jon Sarasuaren eta Jakoba Errekondoren *Irauntza* izeneko artikuluekin topo egin nuen.

Eta orduan bai, orduan konturatu nintzen hizkuntzen biziberritzerako permakulturak ere ematen dizkigula heldulekuak.

Hortaz, nire ustez, hizkuntza ekologismorako beste kontzeptu bat: permakultura.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredaktore burua

Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Jokin
Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Egunero hiru orduko saioak ditut, domeketan izan ezik"

JON MUJIK A IGERILARI BERGARARRA

Mireia Bikuña BERGARA

Kontxako Badia zeharkaldia irabazita, buru-belarri dihardu Jon Mujikak denboraldia prestatzen. Udako oporretan atseden hartu ostean, denboraldi-aurreko entrenamenduak hasi ditu. **Oporren ostean, gogorra edo zaila izaten da gorputza berriro entrenamenduetako errutinarra ohitzea?**

Bietatik apur bat. Eguneroko entrenamenduak, zorrozatasuna, errutina, erregulartasuna... Gogorra eta zaila da, aldi berean, baina ohituta nago.

Eta, hala ere, Kontxako Badia zeharkaldia irabazi zenuen irailaren 10ean. Zorionak!

Kontxa barruan egiten den 2.500 metroko zeharkaldia da. Itsasoa nahiko mugituta zegoen, baina badia barruan nahiko ondo ibili ginen. Pozik nago emaitzarekin. Gogor irten nintzen, eta segituan ipini nuen nire erritmoa, aurkariak atzean uzteko. Hori lortuta, helmugara zuzen.



Jon Mujika igerilari bergararra. GOIENA

Zeharkaldietan ze estrategia erabiltzen duzu?

Gorputzaldiaren eta aurkariaren araberakoa da. Batzuetan, hobe da erritmoa indartu eta bakarrik igeri egin. Beste batzuetan, taldean joatea

ezinbestekoa da. Erritmoa jaitsi eta laguntzarekin joan. Zeharkaldiak, normalean, azken metroetan erabakitzen dira.

Zeharkaldien denboraldi erdia bakarrik egin duzu, baina lautik

hiru irabazi dituzu. Oso emaitza ona, duda barik.

Gustura nago, bai. Hiru irabazi ditut eta bestean bigarren geratu nintzen. Erdia egin dut, urteko helburua, abuztuko Espainiako igeriketa txapelketa zelako.

Eta nola joan zen Espainiako?

Hiru proba ziren: 50, 100 eta 200 bular estiloan. Baina proba baino egun batzuk lehenago katarroa harrapatu nuen, eta distantzia luzeena ezin izan nuen egin. Arnasa hartzeko zailtasunak nituen. 50 eta 100 bular estiloko emaitzak onak izan ziren.

Eta, zer duzu begiz jota denboraldi berrirako?

Plangintza iazkoaren antzekoa izango da. Bereziki, udaberriko Espainiako txapelketa da jomuga.

Azaroan ere badira neguko Espainiakoak, baina, bi hilabeteko prestakuntzarekin, justu samar iritsiko naiz.

Domeketan izan ezik, egunero hiru orduko entrenamenduak, bi hilabeteetan, eta ez da nahiko txapelketa bat prestatzeko?

Tarte ona da, duda barik. Baina denboraldi hasierako entrenamendu saioak ez dira urtarrilekoak bezalakoak izaten. Ez zaie etekin bera ateratzen. Dena den, azarokoan egoteko asmoa ere badaukat.

HAU BE BADOGU!

#Diada2017 gairik jorratuena



Astehenean izan zen Kataluniako eguna edo Diada, eta, urriaren leku erreferenduma dela eta, gaiak hizpide nagusi izaten jarraitzen du sare sozialetan. Hori dela eta, hainbat traola izan dira aste honetan ere *trending topic* euskal erabiltzaileen artean: **#Diada2017**, **#SensePor**, **#ReferendumCAT**, **#1Oct**, **#LaDIADAdelSI**, **#Catalunya...**

Emakumezko epailea, gizonezkoen ligan



Bibiana Steinhaus bilakatu da, asteon, gizonezkoen futbol txapelketa bateko gorengo mailako partida bat epaitu duen lehenengo emakumea. Alemaniako Bundesligako Hertha Berlin-Werder Bremen neurketan jardun zuen, eta sare sozialetan hainbat aipamen jaso ditu.

@iKasares: "Bibiana Steinhaus, emakumezko epailea gizonezko futbol liga handi batean".

Bertsolari Txapelketa Nagusia martxan

Martitzenean egin zuten lehiaketaren aurkezpena, eta sare sozialetako erabiltzaile euskaldunen artean *trending topic* izan zen gaia, **#BTN17** traola erabilita. 43 bertsolari eta hamalau saio izango ditu, guztira, 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak:

@jontorro: "Martxan da **#BTN17** Zorte on bertsolariori. @Bertsozale talde handia lanean. Gogor egingo dugu lan".

ITURRI ONETIK

Porrotxinen 10. urteurren ospakizuna

Beñat Barrutiak (Arrasate, 1992) hamar urte daramatza Porrotxin izaten; Porrotx pailazoaren anaia zaharrena, alegia. Eta urteurren borobil hori ospatzeko, ekitaldi berezia dabilta prestatzen Euskal Herriko pailazorik ezagunenak. Besteak beste, udan Orion izan da Porrotxin bera, pailazoaren ikuskizun berrirako jantziatarako neurriak hartzen. Horrez gainera, lantzen diharduten disko berriaren pailazoek kanturen bat eskaini behar diote Arrasateko pailazo gazteari.

GORA ETA BEHERA



Berriro ere apurtuta eta arriskutsu

"Uste dut umeen lekuetan konponketa azkarrak egin beharko lirakeela. Eskertuko lukete umeek zein aita-amek"; horrela esanda eta argazkia bidalita jakinarazi du guraso batek Bergarako Matxiategiko ziburu-zaburuak atzera ere apurtuta daudela, eta arriskutsu, kontuan hartuta bertan ume piloak ibiltzen dela jolasean. "Aurreko apurketa konpontzen luze eman zuten, gainera", dio.



17.466 lan-istripu sei hilabetetan hiru probintzian

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Udako oporrak pasata eta gure eguneroko eginkizunetan murgilduta, hurrengo oporrak noiz etorriko diren grina pizten zaigu.

Zuen kontzientzia piztu nahi dut, gogoraziz, lan-istripuetan langile larregi hiltzen direla eta, tamalez, batzuek ez dutela gozatuko beste oporrik.

Euskal Herriko zazpi probintzietan 39 langile hil dira lehen zazpi hilabeteetan; normalizat hartzen dugu langile gehien dituen probintzian hildako gehiago egotea, baina Gipuzkoarentzako 2011 beltza izan zen: 30 hildako.

Normalean, Bizkaia izaten da hildako kopuru handien dituen, baina urte hartan Gipuzkoak baino bi hildako gutxiago izan zituen, eta aurten Gipuzkoa buru doa zerrenda beltz horretan.

Normalena izan beharko litzateke hildakorik ez egotea; lanera goaz bizi ahal izateko, ez bertan bizitza lagatzeko.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan aurtengo lehenengo sei hilabeteetan 17.466 lan-istripu erregistratu dira; ganoraz ikertu izan balitz istripu bakoitza eta beharrezko neurriak hartu izan balira, apenas egongo ziren hildakoak.

Hildakoen memoria erabiltzera ohituta gaude, baina lan-istripuan hiltzen direnak azkarregi gelditzen dira ahaztuak. Lantokietan egon beharko litzateke txokoren bat, bertan gertatutako lan-istripu larriak gogorarazteko; Bergaran hil zen otsailean 38 urteko langilea. Ea ez den handitzen zerrenda beltz hori.

Hobe zuhaitz gehiago gure mendietan, lan-istripuak baino.

Eskerrik asko eta zorionak, Arrasateko udalbatza!

XABIER BENGOA

ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA
ARRASATE

Udalbatzak aurrekontu berrietan planteaturiko ekimen ezberdinen artean, AZEri poz berezia eman dio ikusteak Apendizien Eskolaren eraikina kultur eta musika-interpretazio gune bezala berreskuratzeko ahalegina.

Horren aurrean, AZE poztu egiten da eta erabaki horregatik Udala zoriontzen du. Erabakiak dakar eraikin berezia berreskuratzea eta balioan jartzea; hain zuzen, gure ondare historikoaren eraikin bat, mehatxaturik zegoena, erortzear eta desagertzear zegoena, higiezin nahiengatik.

Lerro hauen bitartez, eskertu egin nahi diogu Arrasateko Udalari gure proposamena kontuan hartu izana, Apendizien Eskolaren

eraikina birgaitzeko eta kontsolidatzeko proposamena. Bere alde hainbatetan borrokatu dugu azken urteetan. Espero dugu eta desio dugu jarrera hau lehenestea etorkizunean garatzekoak diren proiektu urbanistikoeetan, gure aurrekoen ondarea babesteko.

Hazia erein zutenei lore eskaintza

JUAN RAMON GARAI

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA
ARRASATE

Datorren irailaren 26an, 81 urte beteko dira faxistak gure herrian sartu zirenetik.

Arrasaten, era batera edo bestera, milaka pertsona zigortuak izan ziren. Frankisten errepresioak ez zituen ekarri bakarrik heriotza pelotoiak, baita ere: kartzela zigorrak, erbesteratuak, esklaboak lan eremuetan, lanetik botatako langileak, konfiskazioak, isunak, ama hizkuntza debekatua... Kolpe militarren kontra agertu ziren mondragoetarrak, bai gizon zein emakume, askatasun eta eskubiderik gabe gelditu ziren.

Errepresaliatuak askoz gehiago izan zirela jakin arren, 90i izen-abizena jarri diegu.

Denak gogoratzeko eta omentzeko, datorren irailaren 26an, arratsaldeko seietan, lore eskaintza bat egingo diegu Laubide plazan kokatuta dagoen monolitoan.

Donostiako estropadak generoaren araberako soldaten arrakalaren isla

INAZIO ARREGI

HTTPS://LABUR.EUS/CIPKH

Juanmi e Illaramendi ya habian perforado las redes gallegas, con dos grandes "txitxarros", antes de que comenzara la primera tanda de la Bandera de la Concha (Angel Lopez, periodista, Donostia; *Mundo Deportivo*).

Angel Lopezek ez du aitzakiarik ez jakiteko ordurako Kontxako estropadetako lehen lehia, neskena, ondo amaituta zegoela, eta beraz, Kontxako estropadak Erreala jokatzeko hasita zeudela.

Nik majo gozatu nuen nesken estropadarekin Errealaren partida aurretik eta mutilenarekin Errealak bi gol horiek sartzen zituen unean. Hernaniko neskak itsasoratu aurretik Hondarribiko mutilak iritsi arte ez nintzen telebista aurretik mugitu. [...]

Neskek eta mutilek Puntak gurutzatu eta badia uzteko erakutsi zuten ausardia, hiru metroko olatu nahasiak menderatzeko xahutu zuten indarra eta trebezia, traineruak zuzen mantentzeko patroia eta hankekoek egin zuten lana, zibogak hartzeko orduan erakutsitako maisutasuna, azkenera arte eskaini ziguten kirol-emozioa eta ETBk emandako irudiak

gogoan gordetzeko modukoak dira.

Baina lehenengo estropadako neskek, lehiara irten eta olatuen gainean dantza egiteko erakutsi ziguten ausardia eta trebezia, izan ziren gehien harritu nindutenak eta zirrara berezi bat eragin zidatenak. [...]

Azpimarratu behar da espektakulu bera eman zigutela bi estropadetako protagonistek, ausardia bera erakutsi zigutela parte hartu zuten hamasei traineruek, abilezia bera erakutsi zigutela Nerea Perez eta Gorka Aranberrik eurek lematutako traineruak garaipenera eramaten, emozio eta poz berdinak Orioko mutilek eta Pasaiako neskek, etsipen bera Errenderiako neskek eta Bermeoko mutilek, baina, eta hemen dago desberdintasun bakarra, garailearentzat 24.000 euro gizonen estropadan eta 15.000 euro neskenen lan berdinak egin eta emozio berdinak transmititu ondoren. Mutilentzat %60 gehiago. Informazio hau baieztatu nahi izanez gero jo Donostia Kulturako webgunera.

Donostiako udalak generoaren araberako desberdintasunik onartzen ez duen hitzarmena badu, zinegotziek izan emakume izan gizonen irizpide berdinen arabera jasotzen badituzten euren lan-sariak, zer dela eta hiriko ikur diren iraileko estropadetan desberdintasun hori sarietan? Ala egindako milia eta metroen arabera kalkulatzeko dira sariak?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrek: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Mugitzeko ohiturei buruz hausnartzeko astea

Bihar hasi eta hilaren 22ra arte, hamabosgarren aldiz egingo da Mugikortasun Astea Arrasaten. Birzikleta Azoka, bizikleta bira, doako herribusa eta 'Bizikume' proiektuaren aurkezpena izango dira, besteak beste, egitarauaren osagaietako batzuk

Xabi Gorostidi ARRASATE

Hamarkada eta erdi beteko ditu Arrasateko Mugikortasun Asteak. Aurtengoa bihar hasi eta hilaren 22ra iraungo du, eta, urtero bezala, herritarren mugitzeko ohituren inguruan hausnartzeko helburuarekin antolatu dute ekimena.

Aurten ere debaldeko zerbitzua eskainiko du herribusak astean zehar. Zapatu goizean, bigarren eskuko bizikleten azoka erraldoia egingo dute Azoka Plazan, 11:00etatik 14:00ak arte. Bizikletez gain, ziklismoarekin lotutako bestelako materiala –arropak, eskularruak, kaskoak...– eta haurrek erabiltzen dituzten plastikozko motor tankerako jostailuak ere egongo dira salgai.

lazko azokako datuak

Arrakasta eta harrera ona duen ekimena da Birzikleta Azoka, eta horren erakusle da iazko edizioak utzi zituen datuak.

Guztira, 194 elementu batu ziren salgai jartzeko; horietako gehienak, bizikletak (105). 80 produktu saldu zituzten; horietatik 61, bizikletak; 3.320 euroko salmentak lortu ziren.

Ekintza gehiago zapatuan

Birzikleta Azokarekin batera, aerografia tailerra egingo dute.

Mugikortasun asteko ekintzak

Zapatua, hilak 16

- **11:00** *Mugitu zaitetz bizikletaz* erakusketa Mondragones kalean.
- **11:00** Birzikleta Azoka eta aerografia tailerra Azoka Plazan.

Domeka, hilak 17

- **11:00** Bizikleta bira (10 km). Seber Altube.

Asteazkena, hilak 20

- **19:00** Kulturateko areto nagusian, *Emakumeak bizikletan-Bizikume* proiektuaren aurkezpena.

Zapatua, hilak 23

- **13:30** Herriko Plazan merkataritza aste berdeko sarien zozketa.

Berritasun gisa datorren ekimen horren bitartez, bizikleta edo kaskoak pertsonalizatzeko aukera eman nahi zaie azokara bertaratzeko direnei.

Bihar goizean ere, herriko bizikleta saltzaileek *Mugitu zaitetz bizikletan* erakusketa jarriko dute Mondragones kalean, 11:00etatik 13:00etara.

Emakumeak eta bizikleta

Asteazkenean, Erkuden Almagro txirrindulari ohiak *Bizikume* proiektua azalduko Kulturateko areto nagusian, arratsaldeko zazpitan.

Emakumeak taldeka bizikleta gainean ikustea ohikoa ez zela ikusita, proiektua martxan jartzea erabaki zuen, gizonezkoekin irtetea atsegin ez zuten emakumeak erakartzeko. "Proiektu interesgarria iruditu zitzaigun, eta, hau jendarteratu ostean, Debagoienean taldetxo bat sortzea gustatuko litzaiguke", azaldu du Nerea Lazpiurrek, Udaleko Garapen Iraunkorreko teknikariak.

Merkatarien ekarpena

Herriko komertzioek bat egingo dute Mugikortasun Astearekin, Komertzio Berdearen Astea antolatuta. Hala, hilaren 16tik 22ra bitartean, herriko dendetan erosketak Arrasate txartelarekin ordaintzen dituztenen artean hiru bizikleta zozketatuko dituzte, baita produktu ekologikoz osatutako otarreak ere.



Birzikleta Azoka arrakastasua izateko gogoz egingo da bihar. IMANOL SORIANO

Jose txo Aranzabal

Dantzan ikasi nahi?

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

lotuan – soltean – jauziak – ingurutxoak – kontradantzak
mutildantzak – plazako dantzak – sokadantzak...

URRIA - MAIATZA / Hasiara: Urriak 2

1. maila: Astelehena 18:00

Dantza-txokoa: Astelehena 19:30

Ikus egitarauak: www.herrixadantzan.eus

Informazioa eta izenematea:

- AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkartea.com
- Gazte Bulegoa: 943 25 20 65 / gaztebulegoa@arrasate.eus

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



BIODANTZA 626 66 12 92
astea Irailaren 18tik 24ra

Bideak urratuz, bizitzarekin bat eginik.

DOAKO KLASEAK

BERGARA Astelehena, 18 - 18:30. Mariaren Lagundia ikastola. Mentxu Arjonilla, bidelagun titulatu - 626 66 12 92

ELORRIO Asteartea, 19 - 18:45. Txintxirri ikastola. Mentxu Arjonilla, bidelagun titulatu - 626 66 12 92

ARRASATE Asteazkena, 20 - 19:30. Arrasate Yoga Elkarte. Rakel Ampudia, Euskal Herriko Biodantzako Eskola Zuzendaria. 679 44 12 29.

www.biodanzabai.com • biodanzabai@gmail.com

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Elkartasun Egunaren bigarren geltokia bihar

Presoen egoeraz ohartarazteko jaiak pasa den zapatuan egin zuen lehen geldialdia. Goizean aurkezpena egin zuten, eta gero, kontzertuak egon ziren gaztetxean. Lehen aldiz, bi egunetan banatu dute, Udal Gobernuarekin izandako arazo batengatik

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Aurten bi egunetan egin behar izan dugu Elkartasun Eguna, batez ere, daukagun Udal zora-garri honi esker. Guk, hasiera batean, irailaren 9rako antolatu genuen dena, baina ez gaituzte kontuan hartu. Gure gainerik beste azoka bat antolatu dute [Erdi Aroko azoka], guri ezer esan gabe", salatu zuen Aitor Urizar antolatzaileak pasa den zapatuko aurkezpen ekitaldian.

Presoen "salbuespen neurriak"

Aner Elorza antolatzaileak aditzera eman zuen euskal presoen kolektiboak salbuespen neurriak jasaten jarraitzen duela.

"Presoen eta hauen familien sufrikarioak ez du etenik; errepideko istripuak, larriki gaixo dauden presoen osasun asistentzia desegokiak, ukatutako baimenak, trasladoak, isolamenduak eta ehunka kilometrotara sakanbanatzen dituen dispertsio politika krudela".

Fokua presoen semeengan

Gaur egun, 332 preso daude 65 espetxetan banatuta, eta horietatik bi bakarrik daude Euskal Herriko espetxeetan.

Aurtengo Elkartasun Egunean, preso horien seme-alaben egoeran jarri nahi dute fokua, eta



2013 urteko herri bazkariko irudia. GOIENA

berriki zendu den Kepa del Hoyoren semearen kasua jarri zuten adibide gisa.

"Presoen semeen sufrikarioaren erakusle garbi bat duela gutxi zendu den Kepa del Hoyoren kasua da. Haren seme Peruk, 18 urtekoak, kartzelan ezagutu du bere bizitza osoan. 18 urte luze horietan, aitarekin pasa duen denbora guztia, bitak eta bisean bisekoak kontuan izanik, ez da 432 ordura heltzen. Hau da, bizitza osoan ez da aitarekin 19 egun pasatzen heldu".

Zapatuan jarraipena

Beraz, aurtengo jaialdiak zapatuan, hilak 16, izango du jarraipena, adin eta gustu guztiak asetzeko egitarauarekin.

Ekintza horien guztien artean, 19:30ean presoen, iheslarien eta errefuxiatuen eskubideen alde egingo den manifestazioa nabarmendu dute, eta bertan parte hartzea animatu dituzte herritarrek.

Herri bazkarirako txartelak Basati, Taupa eta Monte tabernetan izango dira salgai, 13 euroren truke.



Antiligent taldeko Tömac eta Stephan abeslariak. IMANOL SORIANO

Antiligent alemaniarren zuzeneko

Kondekuan aurkezpen ekitaldia egin ondoren, lau talderen kontzertuekin borobildu zuten Elkartasun Eguneko lehen txanda. Drop, 5 Twisters, Legen Beltza eta Antiligent taldeak igo ziren gaztetxeko oholtzara; azken horiek, Berлиндik zuzenean etorrita.

Irailaren 16ko egitaraua

11:00etan

• **Biteri plazan** Umeen txokoa: jolasak, musika eta pintxoak.

12:30ean, kontzertuak

• **Taupa** Herstura (Oñati)
• **Monte** Jason (Eskoriatza).

13:15ean, kontzertuak

• **Kajoi-ltzala** Ain_1 (Arrasate)
• **Ezkiña** Truters Band (Arrasate).

14:30ean, Biteri plazan

• **Herri bazkaria:** paella, saiheskia txingarretan entsaladarekin eta kafea. Txartelak: Monten, Basatin eta Taupan salgai (13 euro).

17:00etan, kontzertuak

• **Ekaitz** Deskarga (Aretxabaleta)
• **Branka** Los WC (Arrasate).
• **Etxoste** Bitz (Oñati).
• **Iturriotz** Crap (Arrasate).
• **Iluntz** Tara (Gasteiz).

18:00etan, kontzertuak

• **Osorik** Perlata (Arrasate)
• **Jai Zale** Hiena (Gasteiz).
• **Basati** Txerrikumeak (Aretxabaleta).
• **DAT** Tears & Beers (Gernika).
• **Muxibar** Las Klitorix (Arrasate).

19:30ean

• **Herriko Plazatik irtenda** Manifestazioa.

Udaltzainak kontratatzeke deialdi bateratuaren aurka

Udaleko Enpresa Batzordea orain arteko ereduaren alde lerratu da, eta erabakia hartzeko formak kritikatu ditu

X.G. ARRASATE

Arrasateren beharrei erantzuteko bost udaltzain berriren premia ikusita, EAE mailako udaltzainen deialdi bateratuan parte hartzeko erabakia hartu du Udal Gobernuak duela gutxi.

Orain arte, herri mailako lan-poltsa bidez bete izan dira udaltzainen lan eskaintzak, eta lehen aldiz egin dute kontratazio sistema berriaren alde. Hala, Arrasateko Udaleko Enpresa Batzordeak oharra kaleratu du proze-

suaren kontra daudela adierazteko; Udal Gobernuak erabakia "aldebakartasunez" hartu duela salatu du.

"Udal Gobernuak erabakia hartu du sindikatuekin hitz egin eta adostu gabe. Postu horiek betetzeko hautaketa prozesua jada abiatua zegoen: Pertsonal Batzordean oinarriak onartuta, aldizkari ofizialera bidaltzeko zain, eta prozesu guztia bertan behera geratu zen, bestelako arrazoirik eman gabe", azaldu du Enpresa Batzordeak.

Hautaketa eredu propioa

Kasu horretan, "Udaltzaingoa Ertzaintzaren sekzio edo sail bat" izateko arriskua ikusten dute; hautaketa eredu propioaren alde azaldu dira, eta azken urteetan Udalean egin diren hautaketa prozesuak "eredugarriak" izan direla gaineratu dute.

EH Bilduren oharra

Oposizioko alderdi nagusiak oharra kaleratu du, enpresa batzordearekin bat eginez (oharra Goiena.eus-en dago ikusgai).

Goikobaluko sokatira txapelketarako izen ematea zabalik

Goikobalu Gaztelu jaietan egin zuten sokatira txapelketaren lehen edizioa, parte hartze politarekin, gainera. Aurtengo txapelketa hilaren 23an egingo da, 13:45ean, eta 150, 100 eta 50 euroko sariak banatuko dituzte lehen hiru sailkatuen artean. Izena emateko: AED elkarte (aed@aedelkartea.eus), Jai Zale taberna edo Monte taberna.




RENAULT
Passion for life




Renault MEGANE

Teknologiak eraman egiten zaitu



Renault Mégane berria: kontsumo mistoa (l/100km) 3,7tik 6ra bitartean. CO₂ isuriak (g/km) 95 eta 134 bitartean.

Renault gomendatzen du 

   [renault.es](https://www.renault.es)

AUTOBERRI

San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGÓN

www.autoberri.com

Ordenantza fiskala, ekintzaileen mesedera

Besteak beste, enpresa berrien irekiera baimenaren tasa %40 jaitea planteatzen du Udal Gobernuaren ordenantza fiskalaren proposamenak. Hilaren 27an aurkeztuko da behin betikoa, Ogasun Batzordean, oposizioko taldeen ekarpenak jaso ostean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Udal Gobernuak aste honetan aurkeztu du 2018. urtera begira ordenantza fiskalean ezarri nahi dituen neurriak.

Lehenik eta behin, datorren urtean bere horretan mantendu nahi dituzten tasa eta zergak zehaztu dituzte; landaguneko ondasun higiezinaren gaineko zerga (*IBI rustico* delakoa), jardura ekonomikoaren gaineko zerga (IAE), obren gaineko zerga (ICIO) eta etxez etxeko laguntza edo jangela zerbitzua bezalako gizarte zerbitzuen tasak. Gainontzeko zerga guztiei kontsumo prezioen indizea (KPI) aplikatzea proposatzen du Udal Gobernuak.

Hobariak ekintzaileentzat

Aurkeztutako proposamenen artean, jardura komertzial berriak abian jarri nahi dituztenentzat hobariak planteatu dituzte, udal fiskalitatea "traba izan beharrean, pizgarri izan dadin", azaldu du Ander Garaik.

Jardura ekonomiko berri hori lokal batean egiten dutentzat %40ko hobaria planteatzen du Udal Gobernuak, eta aktibitate hori lokal fisikorik gabe egiten dutentzat, aldiz, %95ekoa. Zerbitzuak bezeroen etxeetan eskaintzen dituzten ile-apaintzaile edo masajistak jarri ditu Garaik adibide gisa.

Zabor tasetan aldaketa

Zaborren gaineko tasa Mankomunitateak ezartzen duen kopuruaren arabera izango da. Irail bukaera aldera zehaztuko da zein den Arrasatekin egin beharko duen ekarpen ekonomikoa, baina, hori heldu bitartean, komertzioaren zabor tasetan aldaketa egitea planteatzen du Udal Gobernuak.

Kasu horretan, aholkularitzek eta belar-dendek bigarren kategoriako tasa ordaintzea proposatzen dute, okindegiek, gestoriek eta notariotzek bezala. Orain arte, hirugarren katego-

rian zeuden, tabernen eta jate-txteen maila berean.

Proposatutako beste neurri bat etxean lan egiten duten profesionalentzat da. Orain arte, etxean lan egiten zuen abokatu batek bi zabor tasa ordaintzen zituen: etxekoa eta enpresarena. Orain, etxekoa bakarrik ordaintzea proposatzen dute.

Udal Gobernuaren proposamenak

Bere horretan mantendu

- Landaguneko ondasun higiezinaren zerga (*IBI rustico* delakoa).
- Jardura ekonomikoaren gaineko zerga (IAE).
- Obren gaineko zerga (ICIO).
- Gizarte zerbitzuekin lotutako tasak.

Gainontzeko zerga eta tasak

- Kontsumo prezioen indizearen (KPI) arabera igoera izango dute. Irail amaiera aldean zehaztuko da KPIren zenbatekoa.

Aldaketak zabor tasetan

- Belar dendek eta aholkularitzek bigarren kategoriako tasak ordaintzea, okindegien, gestorien eta notariotzen maila berean.
- Etxean lan egiten duten profesionalen etxeko zabor tasa bakarrik ordaintzea, etxekoa eta enpresarena ordaindu beharrean.

Jardura ekonomiko berrientzako hobariak

- Lokal komertzialak dutenei, irekiera baimenaren tasa %40 jaitsi.
- Lokalik ez dutenei, irekiera baimenaren tasa %95 jaitsi.



GOIENA

Elgarresta, Erguingo haurrekin

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Sailak *Denok zu* indarkeria matxistaren aurkako kanpaina jarri zuen martxan pasa den urteko azaroan. Kanpaina horren baitan, Miren Elgarresta Berdintasun zuzendariak Arrasateko Erguin Herri Eskola bisitatu zuen atzo, eta gaur Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean egon da.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Irailak 16 | 2017 |



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.

Arratoien aurka teknika eraginkorragoen bila

Kexa kopurua ikusita, Udal Gobernuak hirugarren aldiz aldatu du legealdi honetan arratoien aurka lan egiteko enpresa. Uztailetik lanean ari da horietako azkena, eta emaitza onak izaten ari da, batez ere, darabilten sistema mekaniko iraultzaileagatik

Xabi Gorostidi ARRASATE


Arrasatek betidanik izan ditu arratoiak biztanle gisa, nahiz eta ez diren biztanle erosoak izaten askorentzat. Zaila izaten da hauek zenbatzea, eta kontrolpean izatea, baina Obra, Zerbitzu, Mantenu eta Auzo batzordeko buru Oscar Garciak adierazi du herriko arratoi kopurua "normala" dela.

"Albistea irakurrita, edo sare sozialetako kexak ikusita, arratoi asko daudela pentsa dezakete herritarrek, baina, dauzkagun datuen arabera, arratoien kopurua inguruko herrien parekoa da. Hala ere, Udal Gobernu honentzako lehentasunezko gai bat da, eta ahaleginak egiten ari gara sistema eraginkorrenarekin lan egiteko".

Metodologia iraultzailea

Anticimex Cantabrica da uztailetik hona lanean ari den enpresa, eta Gipuzkoan aitzindari den sistema bat aplikatzen ari da Arrasaten, baita Orion ere. "Saneamendu sare barnean *Smart Trap* izeneko makina bat jarri dute, mugimendu eta tenperatura sentore bat duena".

Hala, arratoia makina azpiti igarotzen denean, kolpe hilkor bat ematen dio, momentuan heriotza eraginda.



Arratoien aurka erabiltzen den sistema mekaniko baten irudia. ANTICIMEX

Teknika berri horren onurarik nabarientakoa makinak ematen duen feedbacka da. "Kolpe bat ematen duen bakoitzean, informazioa heltzen zaigu, eta datu fidagarriak ematen dizkigu arratoien aurkako eragiketak zenbatzeko", azaldu du Oscar Garciak.

Hala ere, *Smart Trap* makina ez da arratoien aurkako borrokan bakarrik ari. "Makinaz gain, enpresa berri honek biozidak ere erabiltzen ditu, orain arteko enpresek bezala. Nabarmendu nahiko nuke modu ekologikoan

ekoiztutako biozidak erabiltzen ari garela, Orozkon kokatutako enpresa batek eginak", azaldu du Garciak. Hain zuzen, pozoi-poltsatxo horien kontsumoaren kontrola hamabost egunean behin egiten da.

Kosturik gabe

Udal Gobernuak proposatutako enpresa aldaketek ez dute gain-kosturik eragin. "Cespa enpresarekin daukagun kale-garbiketaren kontratuaren barruan egin dira aldaketak, Cesparen oniritziarekin une oro".



NIRE USTEZ

OSCAR RODRIGUEZ

'1977ko kintadie'

1993an Gasteizera alde egin genuen Arrasatetik, bizitza seguruago baten bila. Udalean zinegotzia genuen aita, baina gizajoak ez zuten alderdi aproposena aukeratu Arrasaten politikari jarduteko! Astero itzultzen zen geurera alkandora urrututa edota aurpegia ubelduta. Horrelakoa zen bizitza!

Amak politikagintzan urratsik egin ez izan arren, gorriak eta bi pasa zituen senarrak pairatzen zuen egunerokotasun latz horrek saminduta eta beldurtuta. Nire anaia txikiegia zen gertatzen zena ulertzeko. Baina etxeko atean agertzen ziren mehatxuak ikustean, zein laurok kaletik gindoazela aitaren kontrako irainak aditzean, eta, batez ere, irainek eta jipoiek neure burua egurtzea xede zutenean... Ni ere erruz jabetu nintzen nire herrizat jotzen nuen hura ez zela guretzako herria.

Asteon *1977ko kintadie* antolatu dute herrian eta pozik bertaratuko naiz, neuzkan lagun apurra agurtu, eta etsaitzat jo ninduten herrikide-hurko askok konprobatu dezaten, pozaren pozez, eta inongo beldurrik gabe itzuli naizela: naizena izateko askatasunaren onurak herritik kanpo gozatu izanaren poderioz.

Udal taldeen artean kezka nagusi Edesa Industrialekiko

Udalbatzako hainbat taldek oharrrak plazaratu dituzte, Edesa Industrial eta Geysen enpresetan iragarri dituzten 327 EREak direla eta.

Udal Gobernuak kaleratutako oharrean, euren "desadostasuna" azaltzen dute zuzendaritzak hartutako erabakiaren inguruan, eta "bertako langileen kaleratzea saihesteko aukera eta bide guztiak aztertu, jorratu eta agortzea" eskatzen diote enpresari.

Baleikek astelehenean helarazitako oharrean, CNA Group-en plana "bideragarri" bezala azaltzea "langileei iruzur egitea" dela uste du, talde katalanaren proposamena "sasi-bideragarritasun plana" dela iritzita.

Sasoiko produktuz josita dator iraileko baserritarren azoka

Abuztuan atsedean hartu ondoren, bihar egingo dute, Seber Altuben plazan, opor osteko lehen baserritarren azoka.

Bertaratzen direnek barazki aukera zabala izango dute zain Seber Altubeko postutxoetan: piperra, tomatea, berenjena, kalabazina, kalabaza, pepinoa, zerba, porrua eta hainbat fruitu, besteak beste.

Tailerrik ez

Bihar ez da tailer berezirik egongo, Elkartasun Eguneko eta Mugikortasun Asteko ekintzekin talkarik ez egite aldera. Hala, sasoiko produktuak izango dira iraileko azokako protagonista nagusiak.

MATRIKULA EPEA

IREKITA!

Ingelesa, frantsesa,
alemana, txinatarra,
... Askotariko
ikastaroak

badator!

KOMA OÑATI
sfernandez@komalingua.com
· 943 71 82 08 ·

KOMA ARRASATE
mzumarraga@komalingua.com
· 943 71 26 31 ·

komaGROUP

Oroimen Egunari bultzada emateko lanean

Domekan, Oroimen Eguna izango da, Besaide mendi elkartekoek antolatuta. Mendian hildako euskal mendizaleak omentzeko egunari bultzada eman gura diote, baina ez egunari bakarrik, baita Besaideko inguruei ere, zainduta zainduta

Xabier Urzelai ARRASATE

"Oroimen Eguna gainbeheran dago; argi eta garbi, gainera. Eta egoera horri buelta eman gura diogu. Hori ez dugu behalakoan egingo, denbora beharko dugu, eta, akaso, domekan igarriko da apur bat, baina ea datozen urteotan euskal mendizaleondako garrantzitsua den egun horri bultzada ematen diogun", adierazi du Besaideko presidente Aitor Zubiagak. "Euskal Mendi Federazioarendako ere hitzordu berezia da, halaxe aitortzen dute eurek ere, eta eurekin harremanetan gaude, eguna antolatzeke orduan eurek ere esku har dezaten".

Oroimen Eguna iraileko hirugarren domekan ospatzen dute, eta Arrasateko Besaide mendi elkarteak, Aramaioko Orixol mendi elkarteak eta Elorrioko Erdella mendi elkarteak txandaka antolatzen duten eguna da: "Jendeak ondo dakien moduan, halako elkarteetan jendea sekula ez da soberan egoten, eta lanak pilatu egiten zaizkigu. Hala, gure artean harreman estuagoa izateko lan egin behar dugu, hori ezinbestekoa izango delako Oroimen Egunari merezi duen bultzada emateko".

10:30ean hasiko dute ekitaldia

Domekarako prest daukaten ekitaldixoa 10:30ean hasiko dute: "Txalapartariak, dantzariak eta bertsolariak izango ditugu, eta lore eskaintza egingo zaie mendizaleei. Horren ondoren, Euskal Federazioko presidentek berbalduko du. Eta, txosnan jatekoak eta edatekoak egongo dira".

"TXALAPARTARIEKIN, DANTZARIEKIN ETA BERTSOLARIEKIN BATERA EGINGO DA LORE ESKAINTZA"



Besaiden 2010ean ospatutako Oroimen Eguneko erretratu. GOIENA

Besaideko ordezkariekin berbetan



ALVARO ARREGI
BESAIDEKO KIDEA

"Monumentua pinu artean zegoen 80ko hamarkadan"

"1955eko urrian inauguratu zen Besaideko monumentua, baina ondorengo urteetan inguruak pinuz landatu zituzten, eta 80ko hamarkadan pinu artean erabat ezkutatuta geratu zen dena; bazirudien klandestinitatean ospatzen genuela Oroimen Eguna. Inguruak ezagutzen zituztenak ere galdu egiten ziren Besaidera bidean. Hori konpontzeko aitzakian egin zen 90eko hamarkadan bigarren monumentua, eta horretarako lursail batzuk erosi ziren, eta inguruak txukundu.



AITOR ZUBIAGA
BESAIDEKO PRESIDENTEA

"Besaide ezin da izan motorrendako jolas-gune"

"Besaideko Oroimen Eguna Aramaioko, Elorrioko eta Arrasateko mendi elkarteek antolatzen dugu, txandaka. Eta egia da gure artean bizkarra emanda antolatzen dugula egun hori. Hori ikusita, eta jakinda inguruok ze garrantzitsuak diren euskal mendizaleondako, federazioari eskatu diogu laguntzeko. Bestalde, Besaiden txukuntze lan batzuk hasi ditugu, baina gehiago egin behar da. Leku babestua izan beharko luke, eta ez motorrendako edo 4x4 ibilgailuendako jolas-gune".

Hainbat kategoriatako taldeak Pitxi Torneoan, zapatuan

Talde nagusiak mailaz igo den Ordiziaren kontra neurtuko ditu indarrak, 18:30ean, Iturripen

X.U ARRASATE

Ford Mugarri Arrasatek –eta Izarraitz Aloña Mendik– datarren asteburuan hasiko dute Euskadiko Txapelketa, eta, asteburuan, motorrak berotzen joateko moduko partidua jokatuko dute arrasatearrek, non eta etxeko torneoan. Izan ere, bihar, zapatua, Pitxi Torneoa jokatuko dute kluba osatzen duten hainbat taldek, eta goizean eta arratsaldean izango dira partiduok.

Bihar, zapatua, infantil mailakoek 10:00etan jokatuko dute, 12:15ean etorriko da territorial mailako norgehiagoka, 16:00etan jokatuko dute gazteek, eta 18:15ean izango da Euskadiko Txapelketan lehiatuko den taldearen txanda. Hor, arratsaldeko azken partiduan, Arrasatek mailaz igo berri den Ordiziaren bisita izango du.



Herrero, artxibo argazkian. GOIENA

Sare sozialetan presente

Bestalde, eskubaloizaleek Arrasateko klubeko detaille guztiak sare sozialetan jarraitu ahal izango dituzte, Facebooken, Twitterren, Instagramen eta klubeko webgunean bertan: www.arrasateeskubaloi.eus.

% 100 AFEKTIBOA

EUSKARA IKASTAROAK

Debagoieneko AEK

"Komunikazioa da gure metodoa"

EUSKARA TITULU OFIZIALAK

Garibai 14 · 943 77 03 69
arrasate@aek.eus



Ghost Number & His Topsy Gypsies taldea. GHOST NUMBER & HIS TIPSYPY GYPSIES

Kulturate Akustikoak: IX. edizioa itxiko duen asteburua

Bantastic Fand eta Ghost Number & His Topsy Gypsies musika taldeek jardungo dute Kulturaten

Iker Oñate ARRASATE

Aurreko asteburuko kontzertua sorta atzean utzita, egitarauko azken asteburuari begira jarriak dira Kulturate Akustikoak. Bada, bide horretan, bi kontzertu eskainiko dituzte gaur –ostirala– eta domekan: Bantastic Fand eta Ghost Number & His Topsy Gypsies taldeek jardungo dute Kulturateko agertokian.

Kulturate Akustikoek IX. edizioa du aurtengoa; eta, antolatzailen esanetan, bere horretan dirau helburuak: "Inguruan gehiegi entzuten ez diren estiloen bueltan mugitzen diren taldeak ekartzea". Bide horretan, argitu dute ez dagoela estilo bakar bat, "AEBetako soinuak nagusitzen diren arren". Aurtengo edizioaren egitaraua osatu duten taldeek lehen aldiz jardun –edo jardungo– dute Arrasateko agertokian.

AEBetako 'rock' doinuak

Bantastic Fand musika talde espainiarrak irekiko du asteburuko egitaraua, gaur, 20:00etan. Modu horretan, AEBetako rock doinuak –folkaren baitako ukietekin– eramango dituzte Kulturateko agertokira, euren esanetan, "bertsiogintzan erori gabe". Gaur-gaurkoz, bi disko dituzte argitaratuta: *Strong enough to refuse* –2014an– eta *Welcome to Desert Town* –2016an–.

Bantastic Fand taldeak esperientzia handiko musikariak ditu: Nacho Para almeriarra eta Paco del Cerro cartagena-rrak. Biek ala biek urteak da-

roatzate musika munduan murgildurik. Besteak beste, esan beharrekoa da The Rivertones taldeko kide izan zirela 90eko hamarkadan.

Lehen kontzertua ibarrean

Bestetik, Donostialdeako zortzikoteak jardungo du domekan, 20:00etan: Ghost Number & His Topsy Gypsies. Zehatz esanda, Debagoienean eskaintzen duten lehen emanaldia izango da Kulturatekoa. Hala, martxoan argitaraturiko diskoa –*From dawn to dust*– aurkeztuko dute. Dena den, taldeko tronpeta jole Jon Ander Burgosek argitu duenez, diskoan entzungai ez dauden hainbat abesti ere eskainiko dituzte. "Orain artean, harrera ona izaten ari da *From dawn to dust* lana. Pozik gaude", argitu du.

2014an jaio zen Ghost Number & His Topsy Gypsies taldea, Burgosen esanetan, "musika herrikoia" lantzeko asmoz: "Taldea sortu genuenean, oraindik guttiz zehaztu gabe zegoen musika estiloa. Bada, ezer erabaki aurretik, musika herrikoia bueltan jorratzen ziren estiloak ezagutu gura genituen".

Gaur-gaurkoz, antzinako swinga –bestelako estiloetako ukietekin– eskaintzen dute Donostialdeako musikariek. "Esan daiteke askotariko herrietako eta estiloetako zertzeladak aurki daitezkeela gure abestietan", azaldu du Burgosek. "Musika dantzagarria da, nolabait", gaineratu du.

Gaszte eta helduentzat ipuin kontaketa, martitzenean

Rakugoaz –Japoniako ahoko literatura tradizioa– gozatzeko aukera izango da martitzenean, irailaren 19an, Kulturateko areto nagusian. 18:30erako finkatu dute hitzordua.

Antolatzailak argitu dutenez, 10 urtetik gorako gaszte eta helduei zuzenduriko saioa eskainiko dute Axen Escalada, Arantzazu Maiz, Maider Ibarguren

eta Hiromi Yoshida ipuin kontalariek.

Duela 400 urte sorturiko generoa da rakugoa, bestelako antzerkiak –kabukoa, adibidez– ikustera joateko aukerarik ez zuten herritar xumeei halakoak eskaini guran. Bada, bide horretan, egunerokotasuneko getakarietan oinarrituriko istorioak kontatzen dituzte ipuin kontalariek, helburu batekin, baina, publikoari barrea eragin nahian. Sarri, pertsonaien arteko elkarrietzeta izaten dute ardatz.

Egitarau oparoa Trikitixa Eskolaren ate irekietarako

Arrasateko Trikitixa Eskolaren ate irekiak antolatu ditu gaurko; ekintza sorta oparoa prestatu dute horren aitzakiapean, *Eskola plazara!* lelopean. 18:00etan irekiko dute egitaraua, Herriko Plazara kalejira eginda. Bertan egingo dituzte osteko ekintzak: trikitiarekin eta panderoarekin hartu-eman, *Gurozuna jo* ekintza eta Trikitigin lehiaketa.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

2017ko irailaren 20ra arte

-%20*

kirol-arropan

Kirol zapatak,
barrukoak eta
galtzerdiak barne.



Bazkideentzat
soilik

Kaxatik igarotzerakoan, zure EROSKI Club txartelean sartuko dizugu erositako produktuen %20ko zenbateko balioa. Zenbateko hori hurrengo erosketetan erabil dezakezu. Kontsulta itzazu baldintzak zure hipermerkatuan. Kontsulta ezazu erabilgarritasuna denda bakoitzean.





Aratz elkarteko kideak urteurrena aurkezten, martitzenean. MIRARI ALTUBE



Igerilariak dominekin, 2010ean. GOIENA



Italian, film laburra aurkezteko egindako bidaian, 2006an. ARATZ



Elkarteko hainbat kide iaz apirilean. M.A.



Txupina botatzeko gertu iaz. A. AGIRIANO

Adimen urritasuna duten herritarren bueltan 25 urte

Aratz elkarteak ibilbide oparoa izan du Aretxabaletan, eta urteurrena ospatzeko egitarau dotorea gertatu dute: musikarekin girotutako pintxo-potea, antzerkia, batukada... Herritar guztiak gonbidatu dituzten eurekin batera ospatzera

Mirari Altube ARETXABALETA

Adimen urritasuna duten aretxabaletarrek eta haien familiek osatutako Aratz elkarteak 25 urte bete ditu. Ibilbide luzea eta oparoa egin du, eta herritar horien egoera asko aldatu da azken urteotan. Urteurren hori herritarrekin batera ospatu gura dute irailaren 19tik 23ra bitartean egingo dituzten ospakizunekin.

Atzegiren sorrera

Aratzen sorreraren aurretik Atzegirena dago: "Aratz ezin da ulertu Atzegiren sorrera aipatu gabe", jakinarazi du Jokin Antxiak, Aratz elkartearen sortzaileetako batek. Hain zuzen, 1960an sortu zuten Gipuzkoako elkarte den Atzegi, adimen urritasuna dutenen eta haien familien bizi kalitatea hobetzeko asmoarekin:

"Eskualdeka antolatu zen, eta gu partaide garen Bergara aldekoa oso garrantzitsua izan da Atzegiren ibilbidean".

Hezkuntza izan zen lehenengo erronka, eta horri heltzeko San Miguel patronatua sortu zuten Atzegiren eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren artean. 1964an zabaldu zuten Bergarako eskola eta 1968an, 60

plaza zituen eraikin berrira pasatu ziren. 1982-1983 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak hartu zuen eskola horren ardura eta desgertu egin zen patronatua. Aretxabaletarrak orduantxe hasi ziren antolatzen eta lanean, eskolarako garraioa ordaintzeko laguntza beharrak eraginda.

"Bigarren erronka lan munduan zelan integratu izan zen. Gureak sortu zen orduan, 1975ean, Atzegik bultzatuta, eta Bergara erreferente izan zen", azaldu du Antxiak. Ondoren, Arrasateko tailerra etorri zen, 1990ean.

Aratzen lehen pausoak

Bizi kalitatea hobetzeko egitasmo berriak abian jarri aldera, aretxabaletarrek 1981ean erabaki zuten taldea osatzea. Hilero egiten zituzten batzarrak orduan. "Urritasunak zituztenak identifikatzea izan zen gure lehenengo lana, eta horiek herriko elkarte gerturatzerara animatzea", dio Antxiak. Taldea poliki-poliki hazten joan zen eta beste urritasun batzuk zituzten familiak ere gerturatu ziren -Aspace...-, haiek ere zeresana zutelako. "Erabaki genuen elkarteak diru apur bat izatea, aparteko gastuekin familiei lagundu ahal izateko: bidaiak, botikak...". Horretarako, jaialdiak antolatu zituzten -1981 eta 1984 artean kirol etxean egin ziren eta 1985 eta 1999 artean Zاراia zineman-, eta "herriak bikain" erantzun zuela gogorarazi du: "Herriko eta inguruko musikariekin eta artistekin jardun genuen, eta unean uneko ospetsuak gonbidatu genituen: Los Dominguez All Star, *Goenkale*-koak...". Azken urteotan ez dute jaialdirik egin, eta 2000 ezker gastronomia eta folklore jaialdian postua jarzen dute dirua batzeko.

Elkartea, baina, ofizialki 1992an sortu zuten, hainbat traba antzeman zituztelako erakundetara jotzerakoan. "Ondo pentsatutako erabakia izan zen. Seguru asko, herri mailako Gipuzkoako elkarte ofizial bakarretakoa izango gara; hala ere, Atzegirekin eta gainerako taldeekin harreman ezin hobea izaten jarraitzen dugu".

Hezkuntza eta lan beharrak behin aseta eta dirutxo bat izanik, aisialdiari heltzea erabaki zuten. "Urtero egiten dugu jaialdi bat. Hasieran aretxabaletarren eta eskoriatzarren artean zena 2000 ezker eskualdeko kideen topaketa da. Eta kirol lehiaketa

tetan ere parte hartzen dute, Donostian eta Legazpin, besteak beste". 2004 eta 2012 artean bost film labur egin zituzten: *Bidaia baten ametsa*; *Amapolia*; *Are-Bale*; *Ekipo*; eta *Olympics*. "Horiei esker ahaztezinak izan ziren hiru bidaia egin genituen Italia-ra, Gorgonzolako Cinema Nuovo jaialdian parte hartzeko".

Durana kaleko etxebizitza

"Ordura arte pentsatzen ez zena gertatzen hasi zen gero: adimen urritasuna dutenak gurasoen babesik gabe geratzen hasi ziren, haien heriotzagatik. Horrek babestutako etxebizitzaren beharra utzi zuen agerian", argitu du Antxiak. Atzegik 1967an sortu zuen lehen zentroa horretarako, eta ondoren, beste hainbat etorri ziren; eta 1989an horien guztien ardura Aldundiak hartu zuen, Uliazpi sortuta.

1995ean Kasilda Iraeta aretxabaletararen herentzia garrantzitsu bat jaso zuen Atzegik, eta herrian bertan inbertitzea erabaki zuen Gipuzkoako elkarteak. 2003an inauguratu zuten Durana kaleko 13. atarteko etxebizitza, zortzi lagunendako, eta ondoren, hamasei lagunendako egokitu zen. "Erabaki benetan aproposa izan zen, herri erdierdian dagoelako. Gainera, herri-

Ospakizunen egitaraua

Irailak 19

• **19:00** Zinema: bost film labur, adimen urritasuna dutenek eginak. Arkupe.

Irailak 20

• **19:00** Pintxo-potea txistulariek eta trikitilariak girotuta.

Irailak 21

• **19:00** Antzerkia: *Eguzki lorearen kondaira*. Arkupe.

Irailak 22

• **19:00** Batukada herriko kaleetan.

Irailak 23

• **11:30** Urteurreneko ekitaldi nagusia. Arkupe.
• **13:00** Kale animazioa Oihulari Klownekin: *De pronóstico reservado*.

ko taldeak gora egin zuen kopuruan eta sendotu egin zen. Horrek animatuta, Aratz elkarteak alboko lokal bat erosi zuen, autonomia handiagoa izateko".

Ospakizunak irailaren 19tik 23ra
Urteurrena ospatzeko, egitarau dotorea gertatu dute. "Herritarrek gurekin bat egitera eta gurekin batera ondo pasatzera animatu gura ditugu", adierazi zuten martitzenean egindako agerraldian elkartutakoek. Aratzeko kideek, gainera, 25 urte-

tan egindakoen berri jaso dute argazkietan eta horiek ikusgai egongo dira aste osoan herriko hainbat denda eta tabernatan.

Egunotan ondo gogoan izango dituzte une batean edo bestean inguruan izan dituztenak eta egun ez daudenak. Era berean, laguntza emandako guztiak eskertu gura izan dituzte: "Gure ibilbide oparo hau ez litzateke posible izango laguntzarik gabe. Ezezko oso gutxi jaso ditugu. Eta beti egon zarete hor. Eskerririk asko guztioi!"

"Atzetik datozenei konfiantza eman behar diegu lanean jarraitzeko"

JOKIN ANTXIA ARATZ ELKARTEKO IDAZKARIA

Elkartearen sorreraren parte izan zen Antxia, eta gaur egun ere oraindik elkartearen jarraitzen du idazkari ardurarekin. Gainera, Atzegiren Debagoieneko ordezkaria ere bada azken hamasei urteotan.

Aratzek izan duen ibilbidearen gaineko zein hausnarketa egingo zenuke?

Atzera begiratuta, esango nuke orduan jarritako helburua bete egin dela. Hiru kontu nabarmenduko nituzke, bi positiboak eta beste bat, ez hainbeste: batetik, bigarren familia bat izan gairela

azpimarratu gura dut. Beti elkarrekin hara eta hona, jendea beti gertu lanerako, egindako deialdi guztietan parte-hartze handia... Bigarrenik, esango nuke Aratzeko hainbat kidek lotura zuzena galdu dugula taldearekin. Nik neuk, esaterako, anaia hil zen eta... Baina ez dut alde egin taldetik



GOIENA

eta, neuk bezala, beste hainbatek; hortaz, hori bada zerbaiten adierazgarri... Eta hain positiboak ez dena da elkartearen sorrerako kideak gabiltzala oraindik hor aurrean, eta belaunaldi aldaketa behar da. Beste batzuk sartzeko ordua iritsi da; gurekin ez dadila geratu, ez dadila bukatu orain dela 25 urte baino gehiago hasi zen egitasmo hori. Eta horretarako, atzetik datozenei konfiantza eman behar diegu lanean jarrai dezaten.

Gaur egun zein da elkartearen egoera?

Indartsu dago, bai, bai. Proiektutxo batzuk topatu gura ditugu, adierazgarriak izango diren proiektutxo batzuk, eta lan horretan gabilta orain. Ilusioa badago, bai horixe, eta lanean jarraitzeko gogoia ere bai.

Elkartean eragina izan zuen Durana kaleko etxebizitzak?

Bai. Hamasei lagun etorri zirenean herrira bizi izatera, konturatu ginen gure aukerak askoz handiagoak zirela. Aurretik lau, bost, sei ginen, eta ikusi genuen hogeitaz lagunekin askoz kontu gehiagori heltzeko gai ginela. Eta hor gabilta...

Egindakoak eginda ere, oraindik badago zeregina, ezta?

Bai, bai. Atzegi oso lan ona egiten dabil; hezkuntza, lan eta etxebizitza kontuak –plaza kopuruekin gorabeherak egon arren– konponduta daude hari esker. Neure ustean, aisialdia da hankamotz dagoena: kirol gehiago egin daiteke, musikarekin ere badago lana egiteko, antzerki munduan... Gure lana aisialdian kokatu behar dugu orain.



Hainbat herritar esteladarekin astelehenean. MIRARI ALTUBE

Elkartasuna adierazi diote Kataluniari hainbat herritarrek

EH Bilduk egindako ekitaldian, Pello Urizarrek adierazi zuen Kataluniak hartutako erabakia ez dagoela "atzera botatzerik"

Mirari Altube ARETXABALETA

Katalunian bizi duten prozesuari babesa erakutsi zioten astelehenean, Diada egunean, hainbat herritarrek, EH Bilduk gonbidatuta. Herriko Plazan elkar-tu ziren eta EAKo idazkari orokor Pello Urizarrek azaldu zien herritarrei Kataluniako prozesua zein unetan dagoen eta Euskal Herrian izango duen eragina: "Demokraziaren prozesu bat da, eta herriak duen erabakitze eskubidea babestea edo ez babestea da kontua. Kataluniak orain, eta Euskal Herriak aurrerago, etorkizuna

finkatzeko duten eskubidea onartzea edo ez onartzea da kontua", eta gaineratu zuen: "Kataluniarrak ibilbide hau bukaeraraino egiten dutenean ate bat irekiko da gureta ere, eta gure esku egongo da euskal gizarte moduan ate hori aprobetxatzea.

Bilboko kaleak betetzeko deia

Hori horrela, Gure Esku Dagok deituta zapatuan Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin zuen: "Jakin dezatela Katalunian Euskal Herria eurekin dagoela. Bilboko kaleak goraino beteko ditugu".

Yoga eta KOI ikastaroak hasiko ditu Atxabalta Mugik

Astelehenean, irailaren 18an, jarriko dituzte abian bi jarduerak eta izen-emate epea zabalik dago kiroldegian

M.A. ARETXABALETA

Joan den uztaillean iragarritako lez, bi jarduera jarriko ditu abian Atxabalta Mugik irailarekin batera: batetik, yoga, eta bestetik, koordinazioa, oreka eta indarra. Astelehenean, irailaren 18an, hasiko dute denboraldia eta izena emateko epea zabalik dago. Plazak mugatuak direla iragarri dute; hortaz, interesatuek lehenbailehen jo dezatela Ibarra kiroldegira (943 03 98 42 eta info@ibarrakiroldegia.com). Bi ikastaro horietan jarduteko ezinbestekoa da Atxabalta Mu-

gin izena emanda egotea; baten batek interesa badu, eska ditza argibideak kiroldegian edo Atxabalta Mugiren bulegoan (Durana kalea 11).

Astean bi saio

Astean bi saio eskainiko dituzte. Yoga eskolak izango dira, martitzenetan eta eguenetan (16:00-17:15). Eta koordinazioa, oreka eta indarra lantzen dituzten jarduera saioak astelehenean eta eguaztenetan (16:00-16:45). Batean bakarrik zein bietan jardun ahal izango da.

GEDk deitutako manifestaziorako autobusak 15:30ean

Debagoieneko herri gehienetatik lez, Aretxabaletatik ere irtengo dira autobusak, Gure Esku Dagok deituta bihar, Bilbon, egingo duten manifestaziorako. 15:30ean abiatuko dira, Azbeko geltokitik. Txartelak aurrez saldu dituzte –Urbaltz, Gurea eta Azkena–. Kataluniako erreferenduma babesteko manifestazioa 17:30ean abiatuko da, Casillatik.

Kontzertu ekonomikoaren gaineko hitzaldia

EAJk antolatutako *Konferentzia irekiak Leintz bailaran* programaren baitan, Pedro Luis Uriartek –Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun sailburua 1980-1984 artean– kontzertu ekonomikoaren gaineko hitzaldia eskainiko du: *Gure kontzertu ekonomikoa... eta gure komunitatea*. Martitzenean da, hilaren 19an, mojen komentuan, 19:00etan.

Guardiara eta Arrikruzera irteerak Basotxorekin

Irteera bi egingo ditu Basotxo erretiratuen elkarteak irailean. Hilaren 25ean, astelehena, Arabako Errioxara joango dira, Guardia aldera, eta hilaren 27an, eguaztena, Oñatiko Arrikruzeko kobak ezagutzera. Izena emateko epea zabalik daukate; horretarako, Basotxoren bulegotik pasatu behar da astelehenetik egubakoitzera bitartean (11:00).

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Autoak aparkatuta Loramendi kalean. MIRARI ALTUBE

Autoak partekatzea sustatuko dute aurten

'Partekatzeak urrunago eramango zaitu' leloa izango du irailaren 16tik 20ra egingo dute Mugikortasun Asteak. Antolatutako ekintzen artean, bihar, zapatua, 'nordic walking' saioa egingo dute eta eguaztenean, bigarren eskuko azoka

Txomin Madina ARETXABALETA

Beste urte batez, Aretxabaletak ere bat egingo du Europa mailan egiten den Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin. Hori dela eta, hurrengo egunotarako hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak.

*Partekatzeak urrunago eramango zaitu da aurtengo leloa, eta, horrekin, autoa partekatze-
ra animatu nahi dituzte herri-*

tarrak, baita beste garraio mota batzuk erabiltzera eta prestatu diren ekintzetan parte hartzera ere.

Azoka eguaztenean

Irailaren 20an, eguaztenea, bigarren eskuko azoka egingo dute Herriko Plazan, eta bizikletak, patinak, patineteak, kaskoak eta bestelako materiala saltzeko

aukera egongo da bertan. Udala arduratuko da materiala jasotzeaz eta jabeak jarritako prezioan saltzeaz. Saltzen ez dena bueltatu egingo zaio jabeari. Material bilketa martitzenean eta eguaztenean egingo dute Arkupeko harreraren: martitzenean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta eguaztenean, goizez.

'Nordic walking' saioa

Bihar, zapatua, izango da, 10:00etan hasita, Ibarra kiroldegian. Bi orduko saioa izango da, eta, behin amaitutakoan, gosari osasuntsua eskainiko zaie parte-hartzaileei. Interesa duen edonork eman dezake izena kiroldegian bertan.

Bizikleta martxa

Domekan egingo dute familia guztiairendako modukoa den irteera.

10:00etan hasiko da martxa, Herriko Plazan. Handik Urkulura abiatuko da lehenengo, eta Torrebasorainoko bidea egingo du; gero, berriz ere herrira itzuliko da.

Bigarren eskuko azoka

Irailaren 20an izango da, Herriko Plazan, 17:00etatik 20:00etara. Askotariko materiala saltzeko aukera egongo da bertan. Azokaz gain, gurpilen zulaketak konpontzeko tailerra eta bizikleta elektrikoaren erakustaldia ere egingo dituzte.



Iazko martxako parte-hartzaileetako bat. EKAITZ FILARMENDI

Domeka honetan egingo dute II. Mendiko Bizikleta Martxa

Herriko Plazatik irtengo da, 09:00etan, eta parte-hartzaileek 33 kilometroko ibilbidea egingo dute

T.M. ARETXABALETA

UDAK eta Udalak antolatutako II. Mendiko Bizikleta Martxa egingo dute domekan. "Helburua da kirola egin bitartean naturaz eta gure herriko inguru zoragarri-
ez gozatzea", dio UDAko presidente Agurtzane Elkorok.

33 kilometro pasatxo dituen ibilbidea egingo dute bizikletazaleek. 09:00etan irtengo da martxa, Herriko Plazatik, eta, besteak beste Mendiolatik, Areantzik, Urkuluko urtegitik, Goroetatik eta Bedoñatik igaro ostean, berriz ere hasierako puntura itzuliko dira. Zailtasun tekniko er-

taineko ibilbidea da eta 1.300 metroko desnibel metatua du.

Izen-ematea

Martxan parte hartzeko, izena eman beharko da. Domekan bertan eta Herriko Plazan izango da horretarako aukera, 08:30ean hasita. Federatuek 10 ordaindu beharko dituzte; federatu gabekoek 15; eta 14 urtetik beherakoentzat doan izango da.

Martxa amaitutakoan, Kurtzebarri eskolan duxatu ahalko dira hala gura dutenek, eta bizikletak garbitzeko mangera egongo da eskolako patioan.



M.A.

Pettiren doinuak gozagai

Eguazten iluntzean kontzertua eskaini zuen Petti abeslariak Urbaltz tabernaren kanpoaldean. Loramendi elkarteak kultura kalera ateratzeko antolatutako azken emanaldia izan zen, eta, eguraldia lagun, jende asko gurturatu zen nafarraren doinuak entzutea. Berakoak ez zuen hutsik egin, eta argi utzi zuen bera bakarrik nahikoa dela entzuleak txunditzeko.

Ziklistak, izako bizikleta irteeran. ESKORIATZA.EUS

Mugikortasun Asterako egitarau zabala dator

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea irailaren 17tik 30era izango da Eskoriatzan. Hainbat ekintza prestatu dituzte, herritarrak autoa albo batera utzi eta era osasungarrian mugitu daitezzen bultzatzeko asmoz. Lehen ekintza, bizikleta martxa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea izango da irailaren 16tik 22ra bitartean, eta, horren bueltan, egitarau zabala prestatu dute Eskoriatzan, domekan hasi eta irailaren amaiera arte. Egitarau ofizialaz gainera, ekintza ezberdinak egingo dituztela adierazi dute antolatzaileek; batez ere, ikastetxeetako gaztetxoei zuzenduta.

Domeka honetan, bizikleta martxarekin emango diote hasiera Mugikortasun Asteari, eta 10:00etan, Fernando Eskoriatza plazatik abiatuta, Urkulura joan-errotia egingo dute, tartean, Torrebason hamarretako janda. Irailaren 21ean, berriz, *Seguru baietz* autobusa egongo da plazan. Kampaina ibiltari horren helburua da herritarrei bizikletan modu egokian ibiltzeko aholkuak ematea, eta, horretarako, seinalizazio-txalekoak eta beste material batzuk banatuko dira, 17:00etatik aurrera. Haur eta familientzako bide hezkuntzarako bideo jokoak, joko erraldoiak,

parte-hartzaileentzako opariak, eta abar izango dira.

Kale animazioa, berrikuntza

Aurten, berrikuntza moduan, Huhezikoek antolatuta, *Kotxea partekatzeak urrunago eramaten zaitu* lelopean, kale animazioa egongo da, 19:30etik aurrera, Lur Korta aktore oiartzuarraren eskutik. "Huhezi eraikinetik gertuen dauden aparkalekuetako bat gorde egingo dute, autoa partekatu dutenek aparkatu dezaten. Kolorre ezberdinez margotuko dute, eta, agian, kartelen bat ere jarriko diote... adierazi du Saioa Alzuak, Ibarraundiko teknikariak.

Badatoz goitibeherak

Bestalde, azken urteetan herrian errotu diren goitibeherei lotuta, bi hitzordu nagusi izango dira: lehena, irailaren 23an, goitibehera tailerra izango da, Txistularien Arratean, 15:00etan hasita, eta bigarrena, Apotzagako goitibehera jaitsiera; azken hori irailaren 30ean izango da, 15:00etan.

Mugikortasun Astearen egitaraua

Irailak 17

- 10:00 Bizikleta martxa.

Irailak 21

- 17:00 *Seguru baietz* autobusa plazan.

Irailak 22

- 19:30 Kale animazioa plazan.

Irailak 23

- 15:00 Goitibehera tailerra, Txistularien Arratean.

Irailak 30

- 15:00 Apotzagako goitibehera jaitsiera.

"Bosgarren edizio honetarako eginda ditugu prestaketa lanak"

JOSE ANGEL URRUTIA ANTOLATZAILEA

Eskoitzako Goitibehera Zaleak taldea, motorrak berotzen

I.B. ESKORIATZA

Apotzagako Goitibehera jaitsiera bosgarren urtez egingo da aurten; irailaren 30ean izango da. Lasterketa sortu zenetik hona, bailarako eta herriko gazte askok hartzen dute parte bertan, eta Eskoitzako Goitibehera Zaleak taldeko Jose Angel Urrutia buru-belarri aritu da, urtero lez, prestaketa lanetan.

Aurten, Apotzagako V. goitibehera jaitsiera; dena prest?

Bai, dena prest dugu lasterketa egunerako. Kartelak aste bukarrera honetan aterako ditugu herritarrak ohartarazteko. Honekin batera, gonbidapena egin nahi dut jendea bertara parte hartzera etorri dadin, eta, bestetik, jaitsiera ikustera hurbildu daitezten, ikuskizun bikaina izaten baita.

Badago berrikuntzarik?

Lasterketa urterokoa izango da, Apotzagatik herrigunerako 1,5 kilometroko bidea, baina federazioan badaude aldaketak. Izan ere, talde berri bat dago, ni ere federazioaren parte naiz, eta gauzak serioago egiten ari gara uste dut. Guk egiaztatzen ditugu goitibeherak, dauden arauen arabera...

Herrian errota dago goitibehereko zaletasuna, ezta?

Bost urtean arrakasta izan duen lasterketa da, eta urtero hartzen dute parte bertako zein kanpoko pilotuek. Iaz bezala, Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioako Open Norte txapelketarako puntuagarria da eta lehiatzen

Jose Angel Urrutia. I.B.

eskoriatzar bakarria izango da aurten: Edgar Arevalo. Edozelan ere, eskoriatzar asko izango direlakoan nago, txapelketara begira lehiatuko ez direnak, baina, beste urte batzuetan moduan, lasterketa honetara, bereziki, parte hartzera etorriko direnak. Hala, nahi duenak aukera du dagoeneko izena emateko *Fotomotor* webgunearen bidez, baina 14 urtetik beherakoek gurasoen baimena behar dute.

Mugikortasun Astearen barruan, bi ekintza goitibeherekin lotuta; tailerra eta lasterketa. Zertarako da tailerra?

Goitibehera tailerra irailaren 23an izango da, Txistularien Arratean. Eskoitzako Goitibehera Zaleak taldekoak han izango gara, goitibeherak soldatzeko beharra duten gaztetxoei laguntzeko asmoz, besteak beste.





Arizmendiko Almen gunean batxilergoko ikasleentzat egin duten gune berria. I.B

Egitasmo pedagogikoan oinarritutako lanak

Arizmendi Ikastolan, Almen gunean, Lehen Hezkuntzako eta batxilergoko espazioak konfiantzaren pedagogia ardatz duen egitasmoan egokituta hasi du 2017-18 ikasturtea. Hezkuntza ez formalari begira, berriz, futbol zelaia asfaltatu egin dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Arizmendi Ikastolak ikastola-eredua garatzeko konpromisoa hartu du, eta, horri erantzunez, Almen gunean hainbat lan egin dituzte ikasturte berriari hasiera emateko. Lehen eta bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetakoko gelak birmoldatu dituzte, eta batxilergo berritua ere eskainiko dute ikasturte honetan, haur hezkuntzan egindako ibilbideari jarraituz.

Batxilergoko gela arteko parretak bota egin dituzte, espazio zabalak jarrita; atsedena egin da... Honela azaldu du Unai Busturia zuzendariak: "Batxilergoa *Project Based Learning* (PBL) –euskaraz Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza (POD)– metodologia erabiliz irakatsi nahi da. Hainbat arlotan arazoak planteatu, eta ikasleek arazoari irtenbidea eman behar diote... Ikaskuntza eredu hau gauzatzeko espazioak modu ezberdinetan antolatu dira..."

Futbol zelaia asfaltatuta

Hezkuntza ez formalari dagokionez, bestalde, kanpoko espazioetan bere garapena izan dezan, Almen guneko futbol zelaia jarduera eremu bihurtu nahi da bizpahiru ikasturtetan zehar, eta dagoeneko oinarri litzatekeen aglomeratu asfaltoduna egin dute. Hiru fasetan banatuta egongo dira hezkuntza ez

formalera zuzenduta dauden lan horiek, eta lehenengoa egin da, bigarren eta hirugarren fasei begira: espazio horretan, gune ezberdinak jarri nahi dituzte, elkarren artean lotuta egongo direnak. Aldaketa horrekin, adinaren arabera psikomotrizitatea landu nahi da eta kirol ezberdinak uztartu nahi dira, besteak beste.



Almengo futbol zelaia, asfaltatuta. I.B



Eskoriatzako jokalaria bat, falta jaurtitzear, Aretxabaletaren aurkako partiduan. GOIENA

Denboraldi-aurrean indarrak hartzen ari da Eskoriatza

Pasa den zapatuan Aretxabaletaren aurka jokatutako lagunartekoan, eskoriatzarrek irabazi zuten partidua, 8-6

I.B ESKORIATZA

Irailaren azken aste bukaeran hasiko da Euskal Liga, eta Eskoriatzako areto futboleko lehen taldea denboraldirako gogor ari da prestatzen. Pasa den zapatuan, lagunartekoa jokatu zuten, Manuel Muñoz kiroldegian, Eskoriatzak eta maila nazionallean, Hirugarren Mailan, arituko den UDA-Aretxabaletak, eta 8-6 irabazi zuten etxekoek.

Aukera askoko partidua izan zen, eta ikusteko modukoa. Honela azaldu du Narciso Pavok, Kirol Elkarteko areto futbol taldeen koordinatzaileak: "Indar

handia hartzen ari da lehen taldea denboraldi-aurrean. 7-2 joan ginen aurretik markagailuan, eta aukera asko izan genituen, baita Aretxabaletak ere. Azken momentuan, intentsitatea jaitsi egin genuen, eta 8-6 amaitu zen partidua..."

Denboraldi-aurrea amaitzear

Aste bukaera honetan, Aurrera Vitoriaren aurka jokatuko dute, eta hurrengo asteburuan, Gijonera joango dira denboraldi-aurrea ixtera. Ligako lehen partidua etxean jokatuko dute, Atxurre Bakioren aurka.



Iker Molina, entrenatzaile

Areto futboleko lehenengo taldeko entrenatzaile berria Iker Molina izango da, Antonio Tena ordezkatzuz. Tena sei urtez izan da lehen taldeko entrenatzailea, baina aurten, orain arte bigarren taldean entrenatzaile egon den Iker Molinak hartuko du taldearen gidaritza.



San Pedro jaietan jarri zuten erakusketa muntatzen ari zirela. BUZTINATE ELKARTEA

Buztingintza ikastaroa hastear, tailer irekia herritarrentzat

Irailaren 21erako, herritarrentzat tailerra antolatu dute Buztinate elkarteak, 18:00etan, herriko plazan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herritar talde batek iaz sortu zuen Buztinate elkarteak, buztingintza eta zeramika ikastaroetan ikusitako beharretatik abiatuta, herritarrek asetzeko asmoz. Hala, ikastaroek izandako arrakastaren ostean, aurten ere, haurrentzako eta helduentzako ikastaroak antolatuko dituzte.

Ikasleei buztingintzara gerturatzeko asmoz, irailaren 21ean, ate irekiak egingo dituzte Fernando Eskoriatza plazan. Hala, 18:00etan, iaz, ikastaroan izan ziren ikasleek beraien lanak eramango dituzte, herritarrek buztingintza ikastaroan zer egingo den ikusteko. Bestalde, ikastaroko Alvaro Garcia irakasleak tornua eramango du gerturatzen diren herritarrei ezagutza batzuk emateko, eta zalantzak dituztenei argibideak emateko. Gainera, gaztetxoendako buztingintza tailerra ere egingo da.

Bazkide egiteko aukera

Tailerraz gain, Buztinate elkarteak bazkide egiteko aukera ere izango da, eta, horretarako, elkarteak hainbat kide izango dira bertan, nahi duenari edozein informazio edo zalantza eskaintzeko asmoz.

Buztinateko bazkide izateko, urtean hamabi euro ordaindu beharko dira, eta horretarako azken eguna irailaren 29a izango da.

Ikasturte berria, urrian

Iaz bezala, buztingintza tailerra haur eta helduentzat egongo da. Hala, ikastaroak eguaztenetan izango dira, haurrak 16:45etik 17:45era egongo dira eta helduak, berriz, 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaroan izena eman nahi duenak 626 25 38 77 telefonora deituta edo eskoriatzabuztina@gmail.com helbidera idatzita egin dezake.

Eskoriatzatik Bilbora joateko autobusa egongo da

Kataluniako erreferenduma babesteko manifestazioa deitu du Gure Esku Dago mugimendua irailaren 16rako, Bilbon. Arratsaldeko bost eta erdian Casillatik atera, eta, Autonomia kalea, Hurtado Amezaga eta plaza zirkularra zeharkatu ostean, udaletxean amaituko da mobilizazioa, *Demokrazia. Bostatu erabakitze*ko lelopean.

Katalanek bizi duten egoerari sostengua emateko Eskoriatzatik ere autobusa izango da hara joateko. 15:00etan irtengo da, eta txartelak salgai daude dagoeneko, Hotela tabernan eta Goxo Txikin, zortzi eurotan.

Manifestazioaren antolatzaileek hau iragarri dute: "Irailaren 16an Bilbon begirunea eta errespetua adieraziko diogu Kataluniako herritarren gehiengoaren borondateari; hau da, herritarrek etorkizuna erreferendum baten bidez erabakitzeari".

Herritarren parte-hartze handia Andramaixetan

Leintz Gatzagako udal ordezkariak jaien balorazio positiboa egin dute, nahiz eta aurreko urteetan baino jende gutxiago etorri den kanpotik. Hala ere, gatzagarren parte-hartzea "handia" izan dela adierazi dute, besteak beste

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako jaiak pasata, balorazio "positiboa" egin dute udal ordezkariak. Egubakoitzean, esaterako, bolo txapelketa izan zen, eta giro aparta izan zen bertan. Honela azaldu du Joanes Mendizabalek, Kultura zinegotziak: "Iaz baino jendetsuagoa izan da eta Roberto Otazu zinegotzia izan zen garaile". Rock kontzertuak ere arrakastatsuak izan ziren, nahiz eta beste urteetan baino jende gutxiago hurbildu zen. "Zapatu eta domekan, berriz, eguraldia ez genuen lagun izan, baina, hala ere, herri afaria eta kintoen arteko jolasak nabarmentzeko ekintzak dira; izan ere, herritarren parte-hartzea handia izan zen".

Jaiak bukatuta, hainbat ekintza Zapatuan, erretiratuen bazkaria izango da, 14:00etan, Toki Eder elkarteak, eta domeka goizean, Gatzagako Pilota Txapelketako finalak jokatu dira.



Kintoen arteko jolasetan sei taldek hartu zuten parte. AITOR AGIRIANO



Tears and Beers. IMANOL SORIANO

Iturburuaren proiektua garatzeko prozesua martxan

'Iragana, gatza eta etorkizuna' lelopean, proiektua ezagutarazteko hausnarketa herritarra egingo da

I.B LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak irailean eta urrian zehar garatuko du *Iragana, gatza eta etorkizuna* proiektua. Etorkizuneko erronkak definitu eta gatz iturburuaren proiektua ezagutarazteko hausnarketa herritarra egin nahi da.

Prozesu ireki horrek bi helburu izango ditu: batetik, Udalak gatz iturburuaren ustiaketarako egindako proiektua aurkeztea eta herritarren ekarpen eta iritziak jasotzea, eta, bestetik, herriaren etorkizunaz haus-

narketa egitea eta erronka eta behar nagusiak identifikatzea.

Prozesua Aztiker Soziologia Ikergunearen aholkularitzarekin garatuko da, eta hiru urrats ezberdinetan egin nahi dute: lehenengo urratsa irailaren 20an izango da. *Iraganetik etorkizuna proiektatuz*: herriak izan duen bilakaera ezagutu eta norbanakoen nahiz elkarleen artean diagnosis eta kontakizuna erai-kiko da.

Bigarren urratsa, berriz, irailaren 27an izango da, eta gatz iturburuaren proiektua ondo

ezagutzeko eta ekarpenak egiteko saioa izango da.

Hirugarren eta azken urratsa, berriz, urriaren 28an izango da. *Etorkizuneko proiektzioan sakondu*: erronka nagusiak eta lehen-tasunak identifikatzeko saioa izango da.

Herritar guztiei deia

Iturburuaren proiektua garatzeko lan-saio guztiak 18:00etan izango dira, kultura etxean, eta, herriaren etorkizuna eta herriaren garapen sozial eta ekonomiko lantzeko, Leintz Gatzagako Udalak ezinbestekotzat du herritarren eta eremu ezberdinen arteko elkarlana eta harremanak garatzea. Horrenbestez, antolatu diren hiru bilera edo lan-saioetan parte hartzeko dei egingo da herritar guztiei, denen artean erabakiak hartzeko asmoz.



Frankismo garaiko irudi bat. ARAMAIOKO UDALA

Diktadurako testigantzak ahaztuak izan ez daitezzen

Arabako Foru Aldundiak martxan jarri duen Frankismoaren Biktimei Arreta Emateko Bulegoa Aramaiora iritsiko da datorren eguaztenean –hilak 20–, eta garai hartan biktima izan zirenek testigantza emateko aukera izango dute 09:00etatik 12:00etara

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, ikerketa bat jarri du abian Arabako Lurralde Historikoko Memoria Historikoa berreskuratzen laguntzeko helburuarekin. Hori horrela, lurraldean diktadura frankistak jazarritako pertsonen informazioa bilduko da.

Horretarako, Frankismoaren Biktimei Arreta Emateko Bulegoa ireki du Aldundiak, garai hartan jazarpen hori pairatu zuten pertsonen, horien senideen edota hurbilekoen euren testigantza partekatu, eta duten dokumentazioa aurkeztu dezaten.

Jasotako informazioarekin, Araban diktaduran jazarriak izan ziren pertsonen buruzko txosten bat egingo da. Horren bitartez, bi gai hauetan sakondu nahi du Arabako Foru Aldundiak: memoria berreskuratzean eta frankismoaren biktima guztien ezagutzan eta horiei ordaina ematean.

Udala, ekimenarekin bat

Aramaioko Udalak bat egiten du ekimenaren helburuarekin, eta horregatik eskatu du bulegoa herrian jartzeko aukera izatea. "Arabako Batzar Nagusiko talde politiko batzuek aurrerapauso txiki bat eman dute zentzu honetan eta Aramaioko Udalak bat egiten du honekin. Memoria historikoa ez da egin trantsizio garaian, horrela erabaki zutelako batzuek. Baina ezinbestekoa da aurrera jarraitzeko memoria hau egitea, gertatu zenaren ikuspegi eta bizipenak jasoz. Zer gertatu zen frankismo garaian gure herrian? Nola bizi izan zuten/zenuten aramaiotarrek?", adierazi du Lierni Altuna alkateak, ohar baten bitartez.

HERRITARREI AUKERA APROBETXATZEKO DEIA EGIN DIE UDALAK, TESTIGANTZA EMATERA ANIMATUZ

Hori kontuan hartuta, aukera hori aprobetxatzeko dei egin die herritarrei, eta euren testigantza ematera animatu. "Zuek garai hartako biktima izan bazarete, era batean edo bestean, edo baten bat ezagutzen baduzue biktima izan dena, informatu eta animatu testigantza ematera". Gaineratu du edozein kontakizunek balio duela memoria historikoa egiten laguntzeko. "Frankismo garaiko biktimei edozein testigantza izan daiteke, torturatik hasita, euskaraz ikasteko debekura", azpimarratu du Altunak.

Hitzordua aurrez

Bulegoa Bizente Goikoetxea plaza egongo da irailaren 20an, eguaztana, 09:00etatik 12:00etara. Hala ere, hitzordua aurrez eskatzea gomendatzen du Arabako Foru Aldundiak. Horretarako aukera egongo da 945 18 19 00 telefonora deituta edota victimasfranquismo@araba.eus helbidera idatzita.

Aldaketak herrian, Rallysprinta dela eta

Aita Gabirel Jauregi, Pedro Ignazio Barrutia eta Nardeaga kaleak itxita egongo dira bihar

E.A. ARAMAIO

Bihar, zapatua, Aramaioko XVI. Rallysprint lasterketa egingo da eta horrek hainbat aldaketa eragingo ditu herrian. Batetik, Aita Gabirel Jauregi, Pedro Ignazio Barrutia eta Nardeaga –kiroldegitik okindegira– kaleak zirkulazioari moztuta egongo dira lasterketak irauten duen bitartean.

Bestalde, aipatutako kaleetako eta frontoiko aparkalekuek libre egon beharko dute 08:30erako, Rallysprintaren antolaketa lanetarako. Horrekin lotuta, Udalak hau jakinarazi die herritarrei: "Edozein larrialdirengatik itxita kaleak erabili beharko bazenituzte, antolakuntzarekin zuzenean harremanetan jarri". Eta haiek bideratuko dutela zirkulazioa.

Horrez gain, lasterketa pasatzen den auzo guztietan ere kontuan hartu behar diren oharrak banatu dituzte antolatzaileek –Uribarri, Arexola, Arriola, Etxauguen, Gantzaga eta Arraga–. Bidea 14:00etan itxiko dute eta ez da irekiko proba bukatu arte. Eta norbaitek behar bereziren bat izanez gero, antolatzaileekin jarri beharko du harremanetan, ondorengo telefonoaren bitartez: 696 95 25 98 (Julen).

24 pertsonak eman dute odola, horietatik bik lehen aldiz

Irailaren 7an egin zen odol ateratzea, Odol Emateko Elkarteak deituta. 24 pertsona joan ziren parkean aparkatuta izaten den autobusera odola ematera. Horietatik bik lehen aldiz eman zuten, gainera. Eta beste bik ezin izan zuten eman, arrazoi medikoak direla eta. Elkarteak begi onez ikusi ditu datu horiek, positiboki baloratu ditu.



NIRE USTEZ

MANEX
ARRIOLABENGOA

Erlijioa eta etika

Erlijioa edo etika. Aukera ezazu bietatik bat. Horregatik, momentuz, bertan behera utziko ditut oinarritzko hezkuntzak musikarekiko dituen hutsuneak. Gaur egun, nola da posible etika derrigorrezko ikasgaia ez izatea gure eskoletan.

Esan beharra daukat erlijioa aukera bezala jartzea positiboa dela, jarduera pertsonala eta aniztasun handikoa baita, baina etika?

Etika gizarte osatzen dugun gizaki guztion betebeharra da; gainera, erlijioak ez bezala, gure arteko desberdintasunak eta desadostasunak apurtzeko gaitasuna dauka. Ez al du etikak guztiok amankomunean ditugun giza baloreak lantzen, eta ondorioz, gizarte harmoniatuago bat sortzen?

Orain gutxira arte eta oraindik, gizartean, erlijioek zeramaten eta daramate giza banakoaren eta giza taldearen portaera jorrazteko betebeharra. Baina gaur egun, hezkuntza eta gizarte laiko batean, etikak batu beharko luke gizakiaren portaera indibiduala eta kolektiboa aztertzeko eta lantzeko ardura.

Sagarzaleen elkarteak telefono zenbaki berria dauka

ASEk, Aramaioko Sagarzaleen Elkarteak, ondorengo oharra kaleratu du: "Mendixolako erakinean sagarra transformatzeko lanen denboraldiari hasiera eman diogu. Beraz, gure instalazioak erabili nahi badituzu, elkartearen telefonora deitu behar duzu hitzordua hartzeko. Telefono zenbakia aldatu egin dugu eta ondorengo da: 689 58 99 13".



Eltziegoko Udal Banda, kontzertu batean. DAVID LAMAZA

Eltziegotik ekarritako doinuak entzungai gaur

130 urte baino gehiagoko historia duen Eltziegoko Udal Bandak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, kultura etxean, 20:00etan; emanaldia Sastiñako egitarauaren baitan kokatuta dago eta Arabako Foru Aldundiaren kolaborazioarekin lotu da

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Sastiñako kontzertua kultura etxean izango da gaur, eta gonbidatua, berriz, Eltziegoko Udal Banda. "Gaur egun, 35 bat musikarik osatzen dugu taldea. Adin guztietako jendea daukagu, 12 urteko musikarietatik hasi eta 70 urtekoetaraino", adierazi du Oscar Ruizek, bandako zuzendariak.

130 urte baino gehiagoko historia duen banda da Eltziegokoa eta gaur egun ere "oso indartsu" mantentzen dela adierazi du Ruizek. Azken urteetan, lau zuzendari izan ditu bandak, eta, musikari dagokionez, aldatzen joan da, abesti klasikoetatik zarzuelak, pasodobleak... gaur egungoetaraino. "Ez gara genero konkretu batean zentratzen. Denetarik jotzen dugu, klasikoak bai, baina musika modernoagoa ere bai", azpimarratu du zuzendariak.

Kontzertua Arabako Foru Aldundiaren bitartez lotu du Udalak. Izan ere, Aldundiak progra-

ma berri bat sortu du, zeinen helburua den musika bandarik ez duten udalerrietara beste banda batzuen kontzertuak eramatea. "Aramaion jotzeko aukera eskaini ziguten eta guk oso pozik hartu genuen eskaintza. Gogo handiz gaude kontzertu hau emateko", dio Ruizek.

Ez da lehena

Eltziegoko Udal Banda Aramaion izana da duela urte batzuk, eta horren gaineko informazio gehiago kontzertuan bertan emango da. "Historialari bat daukagu taldean eta hark azalduko du duela urte dezente Eltziegoko Udal Banda Aramaion izan zela jotzen. Polita izango da garai haiek gogoratzea eta hori aramioarrekin partekatzea", adierazi du Ruizek.

Hori dela eta, gerturatzeko dei egin die aramioarrei: "Kantu ezagunak joko ditugu, kontzertu eramangarria izango da eta ziur gaude gustatuko zaiela. Etortzen dena ez da damutuko".

Eltziegoko Udal Banda

Hauek dira gaur eskainiko dituzten abestiak:

Sangre de Artista
• J.Teixidor

Duncannon Overture
• James D. Ployhar

The Beatles in Concert
• Lennon and Mc.
Cartney-Hautvast

Abba Gold
• Konp. / Arr. Ron Sebregts

Do, Re, Mi
• Richard Rodgers

Nino Bravo en Concierto
• Manuel Calero Garcia



Aramaioko euskara ikasle batzuk. ARAMAIOKO UDALA

Euskara eskolak jasotzeko matrikulazio epea zabalik dago

Kanpaina bateratua egin da Arabako udalen eta kuadrilla guztien artean; eskolak urrian hasiko dituzte

E.A. ARAMAIO

Ikasturte berriaren hasieran, euskara eskolak antolatu ditu Aramaioko Udalak aurten ere.

Izen-ematea zabalik dago eta irailan zehar egongo da horretarako aukera. "Izena ematen dutenen profila, ikasle kopurua, eta abar ikusi ostean, gutxi gorabehera, talde bat edo bi osatzen ditugu. Normalean, udaletxean egokitzen dugu gela bat eskolak emateko, eta kultura etxean ere eman izan ditugu. Lehenik, taldea definitzen dugu, eta gero, talde horri egokitu zaion programa bat osatzen saiatzen gara", adierazi du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak.

Azkeneko urteetan bi ikasle talde izan dira martxan, nahiz eta iazko ikasturtean benetan funtzionatu zuena bat izan zen. "Taldea egonkorra daukagu. Hauek duela urte batzuk hasi ziren euskara ikasten, nahiko maila

baxuan, baina balorazioak adierazten du 4-5 urtetan asko hobetu dutela eta gorakada handia izan dutela. Talde horretan ikasle finkoak daude, urtetik urtera aldatzen ez direnak eta euskara maila aurreratua dutenak. Zazpi pertsona inguru dira, eta nik uste dut horiek jarraitzeko asmoa badaukatela", zehaztu du Mondragonek.

Hala ere, hasiberriei, animatzeko dei egin nahi izan die. "Badakigu Aramaion taldetxo bat dagoela euskaraz ez dakiena, edo ibili izan dena, baina oso euskara maila baxua duena. Eta horiei deialdi berezia egin nahi diegu".

Mintzalagun programa

Azken urteetan zortzi bat lagunek osatutako talde finko bat ari da eta aurten ere jarraituko dute. Udalak programan parte hartzeko dei egin die ikasleei.

Alboka ikastaroak aurten ere, Fede de Diosen eskutik

Aurten ere, alboka, danborra, bizkaitar dultzaina, txaramela, kainubera eta beste hainbat instrumentu ikasteko aukera izango da Aramaion, Fede de Dios irakaslearen eskutik. Ikastaro horiek urrian hasi eta ekainera bitartean iraungo dute. Informazio gehiagorako eta izena emateko 688 69 57 63 telefonora deitu behar da (Irati).

Pilates eskolak jaso ahal izateko izen-ematea zabalik

Urritik aurrera izango dira eskolak eta horiek jaso ahal izateko izen-ematea zabalik dago, irailaren 22a bitartean. Udaletxean bertan eman beharko da. Bi aukera egongo dira: astelehenean eta ostegunetan 19:45etik 20:45era eta astearteetan eta ostegunetan 10:30etik 11:30era. Prezioa 120 euro da eta plaza mugatuak dira.

Bi eraikin berri egiteko lanak Larramendin

San Juan auzoko industrialdean bulego eraikin komertzial bat eta industria jarduerara bideratutako beste bat egingo dituzte, bertako ingurua urbanizatzeaz batera. 2010ean inauguratu zuten eremua, eta, gaur-gaurkoz, enpresa bakarra dago bertan

Maite Txintxurreta BERGARA

Larramendi gunean, San Juan auzoko industrialdearen gainean dagoen eremuan, Eusko Jaurlaritzaren Sprilur sozietate publikoa pabiloi eta bulego berriak eraikitzen hasi berri da asteon. Zehazki, eraikin industrial bat, eraikin komertzial bat eta horien inguruko urbanizazio lanak egingo dituzte bertan. Larramendiko gunea 2010ean inauguratu zuten arren, gaur egun industria pabiloi bakarra dago bertan: Embalan3 enpresarena, hain zuzen ere.

Atzo eguerdian, eguena, aurkeztu zituzten Larramendin egingo dituzten lanak Elena Lete Bergarako alkateak eta Txaber Ourok, Sprilurko zuzendariak. Aurkezpen horrekin, hasiera eman diete 8.415 m²-ko lurrazalaren atontze lanei. Lur horretan Debagoieneko industria eta zerbitzu enpresak kokatzea da asmoa.

Eraikinen ezaugarriak

Larramendin egingo duten eraikin industrialak 7.650 m²-koa izango da, eta C lursailean kokatuko dute. 17 pabiloi modular izango ditu horrek, horietatik bederatzia 510 m²-koak eta gainontzeko zortziak, berriz, 380 m²-koak. Hamar metroko altuera izango dute pabiloi horiek.

Horrekin batera, aipatu bezala, hirugarren sektorera bideratutako eraikin bat ere egingo dute -K lursailean-, eta bigarren horrek 7.650 m²-ko neurria izango du. Eraikin komertzial horrek hiru solairu izango ditu, behealde kontatuta. Beheko solairu horrek ez du hormarik izango, eta goiko bi solairuetan bulegoak egingo dituzte, bakoitza 100 m² ingurukoa.

Bi eraikin horiekin batera, urbanizazio lanak ere egingo dituzte Larramendiko gunean. Nagusiki jarduera industria-erara bideratutako eremua izan



Lanen hasierako agerraldia. TXOMIN MADINA

ERAIKIN INDUSTRIAL BAT, ERAIKIN KOMERTZIAL BAT ETA URBANIZAZIOA EGINGO DITUZTE

arren, pabiloi eta bulego eraikinak eraikitzearen arrazoia, Sprilurtik azaldu duenez, "enpresa jarduera desberdinen arteko sinergiak erraztea" da, enpresa interesatuek hala proposatuta.

Industrialdearen helburua

Atzoko aurkezpenean azaldu zuten, eraikitze lan horien exekuzio epea hamaika hilabetea izatea aurreikusten dute; lanek 2018ko urte bukaerara arte iraungo dute. Lokal berriak eraikitze inbertsioa 2,76 milioi euro izango dela azaldu du Sprilurrek.

Lanok bukatzean, Larramendi industrialdea "kokaleku interesgarria" izango da "bere jarduera gauzatzeko espazio berrien beharra daukan edozein enpresarentzat", bultzatzaileen esanetan.

Gipuzkoako handienetakoa

Larramendiko eremu osoak 149.352 m²-ko azalera erabilgarria dauka gaur egun, eta bederatzia lursail urbanizatu daude bertan. Debagoieneko industrialderik handiena da, eta Gipuzkoa mailan ere, handienetakoa. Bere kokapena "estrategikoa" omen da, bultzatzaileen esanetan, "komunikazio gune garrantzitsuetatik hurbil" dagoelako, AP-1eko Beasain-Durango ardatza, Eibarrerako AP-8 errepidea baititu gertu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetatik -Bilbo, Donostia eta Gasteiz- antzeko distantziara dagoelako.

Eusko Jaurlaritzaren (Sprilurren bitartez), Gipuzkoako Foru Aldundia eta Debagoiena eta Debarrena eskualdetako udalak partaide dituen Deba Bailarako Industrialdea Saren baitan dago Larramendi, Deba bailarako herrietan kokatutako beste bederatzia industrialderekin batera.

Artean, zehazteke dago zeintzuk izango diren eraikin berri horiek okupatuko dituzten enpresak, eta eskaintza horrek zabalik jarraitzen du.



NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

Bi patxo

Udako oporretatik bueltan, batzuk depresioak jota bueltatzen omen dira. Nire kasuan, arduratzen nauen fenomeno berezi bat gertatzen jat: ez dakit nola gestionatu oporren bueltako agurrak. Lankideak, familia, lagunak... Badakit protokoloak esaten dabela emakumeei bi patxo eman behar dotsetela eta mutilei eskua, baina garaiak aldatzen ari diren heinian, dudak sartzen jataz emakumeei patxoak edo eskua emotean -kobra-ren bat edo beste jaso ondoren, noski-. Gainera, ez dot uste nere kaktus-bizarrarekin patxoak jasotzea inori gustatuko jakonik, ez hitz egiteagatik askotan aurpegian pegauta geratzen jaten makilari eta krema plastoiez. Eskua emoteari buruz ere badauzkat dudak, enterau naizenetik txirindulari talde profesional bateko kideek ez dutela elkar eskua emoten birusak ez kutsatzeko. Proposamen bat daukat: zergatik ez ditugu ohiturak aktualizatzeko eta hemendik aurrera besarkadak eman bai neska eta bai mutilei?... Bueno, hobeto pentsauta, bestearen besapiak usaintzeko arriskua be badago... Hau da jiria... Eta inuitek bezala sudurrekin igurtziak ematen baditugu? Kar, kar... ez dot uste inor ausartuko denik nere sudurrekin tope egiten...

Bergarak 3,6 kilometroko bidegorri sarea dauka jada

Boni Laskuraingo bidegorria erabilgarri dago, eta txirindulariendako bideak herria zeharkatzen du

M.T. BERGARA

Udalak egindako Boni Laskuraingo bidegorri zati berri horrekin, herriko bidegorri sarea 3,6 kilometrokoa da dagoeneko. Boni Laskuraingo plazarotik Ernai kaleraingoko zatia da berria, eta alde bakoitzean aurrez eraikitako txirindulari bideak lotu ditu horrela.

Era berean, Gipuzkoako Aldundiak egindako bi bidegorri zati lotzen ditu: iparraldetik, Sorluzeraino doana, eta hegoalde, Elorregi aldera doana,

Arrasatera zein Oñatira joateko aukera eskaintzen duena.

Bidegorriaren zati berria zutailan zabaldu zen. Asfaltatze eta margotze lanak egin ditu Sasoi Eraikuntza SL enpresak; horien aurrekontua 197.858 euro izan da.

Etorkezunean, Urteaga inguruan eraikitzeoak diren bidegorri zatiak handituko du Bergarako sarea, eta, Aldundiak eraikiko duen zatiarekin batera, Bergara eta Antzuola ere lotuko ditu bizikletendako bideak.

Ordutegi aldaketa Agorrosin kirolgunean

Hilaren 18an emango diete hasiera Agorrosingo kirol jarduerari. Bada, ordutik aurrera zerbitzuaren ordutegia ere aldatu egingo dute, eta ordu erdi lehenago irekiko dute, hau da, 06:30ean. Itxi ere lehenago itxiko dute, 21:30ean. "Proba" egin nahi dute, "erabiltzaile goiztiarrenei aukera emateko".

Garaiz zaude VI. postal lehiaketan parte hartzeko

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Udan bitzitako istoriotxoak kontatuz une politik oroitua eta kursoari gogoz ekiteko aukera bikaina da Udako Euskarazko VI. Postal Lehiaketa. Hilaren 17ra arte bidai daitezke postalak; onenak tableta bat jasoko du. Oinarriak, *Jardun.eus*-en.

Danbor hotsei jarraituz, San Martin gogoratzera

Helduen danborradan 590 herritar irtengo dira gaur gauean eta umeenean 250 bat espero dira bihar arratsaldean; urteurren danborrada izango da: Aritzeta abesbatza duela 30 urte irten zen lehen aldiz eta danbor-jole japoniarrek 50 urte beteko dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

San Martin jaien bigarren aste-buruan, helduen zein umeen danborradak izango dira protagonista. Gaur irtengo da helduena, kultura etxetik (22:30), ibilbide honekin: Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraizkozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea, San Martin plaza. 19 taldek eman dute izena eta 560 danbor jotzaile arituko dira, inoizko kopururik handiena.

Kalera irtengo diren taldeen artean badira urteurren berezi batzuk. Batetik, Aritzeta abesbatza danborradan lehen aldiz irten zela 30 urte bete dira aurten, eta, bestetik, 1967an lehenengoz irten ziren danbor-jole japoniarrak. "Felix Garitanok eta beste bergarar batzuek asmatu zuten Miguel Gonzalez Bastidaren *Nagasaki 1967* abestiaren musika haurren danborradarekin lotzen.

50 urte eta gero, ehunka japoniar irtengo dira, helduen zein umeen danborradetan", gogora ekarri du Valen Moñuxek. Ondoren, San Martin Agirrerren heriotzaren errepresentazioa hasiko da (23:30), 1597ko otsailaren 5ean Nagasakin izan ziren 26 martirien –tar-tean San Martin Agirre bera– erailketak oinarri hartuta.

Zapatuan, berriz, umeen txanda izango da (18:30). Honako hau izango da ibilbidea: Kultura etxea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraizkozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkale, San Martin plaza. Musika Eskolako gazte bandaren laguntza izango dute. Ikastetxeetatik 130 neska-mutikok eman dute izena, baina badira euren kabuz izena eman dutenak; 250 ume inguru irtengo dira.

Sanmartinetako beste klasikoak
Bestalde, sanmartinetako gainerako klasikoek ere ez dute hutsik egingo: musika bandaren

kontzertua –bihar, San Martin plazan (12:30)–, aire libreko Simon Arrieta pintura lehiaketa –sari banaketa domekan izango da udaletxean (14:30)– eta txistulari bandak lagundutako Bergarako Erraldoi Konpartsaren kalejira –domekan izango da, San Martin plazatik irtenda (18:00)–, besteak beste.



San Martin Agirrerren gurutziltzaketaren errepresentazioa, 2015eko jaietan. GOIENA

Gaueko autobus zerbitzua

Etorriko direnei begira, Pesak gaueko autobus zerbitzua indartuko du gaur gauean. Batetik, Eskoriatza eta Eibar arteko linea

indartu dute eta, bestetik, antzuolarrek zein elgetarrek ere autobusak izango dituzte 00:00etatik 06:00etara. Geltoki nagusietan bakarrik geratuko dira.



LAZPIUR

Altuna, Lazpiur eta Dual sistema

Miguel Altunaren eta Lazpiur enpresaren Dual formakuntzarako akordioari esker, aurten Lanbide Heziketako bost ikasle Lazpiurren arituko dira lanean; lau produkzio postuetan eta bestea administrazioan. Bi aldeendako onuragarria da akordioa: "Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute ikasleek; enpresarentzat ere ona da, Lazpiurreko lan egiteko modua erakutsiko diegu".



Boluko frontoia estali: bai ala ez?

Irailaren 23an egingo da Boluko pilotalekua estaltzeko proiektuaren gaineko galdeketa loteslea eta Aranerreka, Koldo Eleizalde, Iriburu eta Bolua kaleetako 1.262 auzotar daude botoa ematera deituta; aurrez botoa eman daiteke, hilaren 20an, udaletxeko idazkaritzan



Irudiko estalkia jartzea edo ez, horixe erabaki beharko dute Boluko auzotarrek. IMARA

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Udalak Bolua auzoko udal pilotalekua estaltzeko egin duen proposamena burutzea nahi duzu? Horixe izango da Boluko frontoiaren estalkiaren harira Udala Gobernuak proposatutako herri-kontsultaren galdera, eta galdera horri bai edo ez erantzun beharko diote Boluko auzotarrek. Hain justu, Aranerreka, Koldo Eleizalde, Iriburu eta Bolua kaleetako bizilagunak daude deituta galdeketa parte hartzera; guztira, 1.262 herritar.

Irailaren 23an egingo da. Mahai bakar bat jarriko da auzotarrek botoa eman ahal dezaten, Beart elkartearen lokalean -Bolua kalea 47-. Botoa emateko ordutegia honako hau izango da: 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Egun horretan botoa ematerik ez duten auzotarrek aurretiazko botoa emateko aukera bakarria izango dute: irailaren 20an, udaletxeko idazkaritzan, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Botoa emateko, nortasun agiria, pasaportea edo gidabaimen originala eraman beharko da.

Auzotarrek etxean jasoko dituzte botatzeko paperak, eta botopaper horietan *bai* edo *ez* markatu beharko dute. Hala ere, Beart elkartearen lokalean bertan etxez etxe banatutako paperak ere egongo dira irailaren 23an.

Mahaikideei, 200 euroko dieta

Galdeketa mahaia Udaleko langile batek eta bi herritarrek osatuko dute. Mahaikide izan gura duten Boluko auzotarrek gaur arte, hilak 15, izango dute izena emateko aukera -13:30ak baino lehen-. Interesatuak udal webgunean dagoen inprimakia

bete beharko dute (<http://www.bergara.eus/eu/boluko-udal-pilotalekua-estaltzeko-kontsulta>), eta udaletxeko idazkaritzara eraman. Aurkeztutako auzotarren artean zozketa egingo da; hori bai, lehentasuna izango dute langabeek. Izan ere, mahaikide bakoitzak 200 euro jasoko ditu dieta gisa. Horien egin-beharra izango da botoa emateko aukera ahalbidetzea eta ondoren botoak zenbatzea, aktak egitea eta dokumentazio guztia udaletxeko idazkaritzara eramatea.

Estaltzeak, 190.000 bat euro

Gobernuaren arabera, dagoneko herritarrek egin dituzten ekarpenak aintzat hartuko dira, pilotalekua estaltzeko proposamenak aurrera egiten badu. Hala, Boluko pilotaleku estalia auzo osorako ekipamendua izango litzateke. Erabilerari dagokionez, pilotan jokatzeko Bergarako Pilota Sailak lehentasuna eta ordutegi zehatza izango ditu, baina, horrez gain, kirol, kultura edo aisialdi arloko ekintzak antolatzeko aukera eskainiko luke. Gazez itxita egongo litzateke eta soluzio teknikoak ezarriko liriteke, besteak beste, irisgarritasuna, argiteria eta soinu murrizketa bermatzeko.

Pilotalekuaren estalkia egiteko 150.000 euroko baliatuko liriteke eta aurrez aipatutako soluzio tekniko horietarako, berriz, 40.000 euro inguru.

190.000 EURO INGURU DA AURREKONTUA: 150.000 EURO ESTALKIA ETA 40.000 BAT EURO GAINERAKOA



GOIENA

"Auzoak ez badu nahi, ez dugu egingo"

ELENA LETE
ALKATEA

Zergatik antolatu duzue herri-kontsulta bat?

Eztabaida sortu da Boluan. Batzuek frontoia estali nahi dute eta beste batzuek ez. Eztabaida bukatzeko eskatu ziguten auzotarrek parte-hartze prozesuko bileretan. Bestalde, programan jasota genuen eta hauteskundeetan garaile izan ginen. Beraz, herritar batzuek onartu zuten Boluko frontoia estaltzea. Hala ere, koherentziaz hori egiteko auzotarren berme handiagoa behar genuen eta aldeko zein kontrako iritzia jaso genituen. Ez dugu alde bakoitzaren neurria ezagutzen; hori argitzeko antolatu dugu kontsulta. **Eta emaitza, loteslea.** Bai. Herriarekin dugun lotura gure programarekin duguna baino estuagoa da. Ikusten badugu auzoak ez duela nahi, ez dugu egingo.



GOIENA

"Prozesu osoa lardaskeria hutsa izan da"

AGURNE BARRUSO
EH BILDU

Zeintzuk izan dira EH Bilduk abstentziora jotzearen arrazoiak?

Alde batetik, Boluko galdeketa egin dadin ez dugu oztoporik jarri nahi. Izan ere, bagenekien gu abstenituta ere aurrera egingo zuela galdeketa. Beste alde batetik, baina, proiektu horren inguruan gauzatu den prozesu osoa lardaskeria hutsa izan dela salatu nahi dugu. Proiektu horren bueltan Udala Gobernuak izan duen kudeaketa txarraren ondorio bat da galdeketa, nolabait. Horregatik jo dugu abstentziora; ez diogu oztoporik jarriko galdeketa, baina Gobernuak eramandako prozesuari ezin genion baiezkotzea eman. Lardaskeria hutsa izan da eta salaketa hori mahai gainean geratzen nahi dugu.



GOIENA

"Diagnosi bat da Boluak behar duena"

AIERT LIZARRALDE
IRABAZI

Zergatik abstenitu da Irabazi?

Kudeaketa ez da egokia izan. EAJK bere programan zekarren proiektu bat dela garbi dago; Boluak diagnosi bat behar zuen beharrak zeintzuk diren jakiteko. Diagnosi gabe EAJK erabaki du programako puntu horrekin azkenera arte jarraitzea. Auzo-koherentzia guztiz txikitu dute; hiru bilera egin ziren Irizarren, auzotar kopuru handi batek eskatuta, eta hirurak izan ziren desatseginak. Alkatea berea defendatzen, eta frontoi ondoko bizilagunak behin eta berriz eskatzen proiektua geratzeko... Oso gogorra izan zen, hori ikusten da Gobernuaren maila nolakoa den parte hartzea bultzatzeko orduan. Udalean ez dago inongo ordenantzarik edo irizpiderik parte hartzearen bueltan.



Senior mailan bi talde izango ditu Bergarak, lurraldeko lehen eta bigarren mailetan. GOIENA

Hiru talde zituzten duela bi urte; zazpi dituzte gaur

ESKUBALOIA Bergarako eskubaloi taldekoak pozik daude klubak azken bi urteotan izan duen gorakadarekin. Gizonezkoetan kategoria guztietan dituzte taldeak, eta emakumezkoetan bi talde izango dituzte kantxan, infantil eta kadete mailetan

Xabier Urzelai BERGARA

Labegaraietan datozen asteotan hasiko dituzten liga txapelketak prestatzen dabilta –talde nagusia urriaren 7ko asteburuan hasiko da lehian–, eta badute lana, zazpi talde izango dituzte-eta kantxan: "Duela bi urte, 2015-2016 denboraldia hiru talderekin amaitu genuen, eta nahiko justu, gainera. Hori ikusita,

zuzendaritzan erabaki genuen nahiz eta jokalaria gutxiarekin egon, nahiko justu ibilita ere, gure jarrera taldeak sortzearena izan behar zela, eta halaxe hasi ginen. Jokalari gutxi izanda ere taldeekin aurrera egin genuen, eta emaitza onak eman ditu horrek, gazteak eskubaloiara erakarri ditugulako eta bi urtean kluba asko hazi delako; egun,

zazpi talde ditugu", adierazi du Josetxo Muniategik.

Deigarria da, esaterako, emakumezkoen ez izatetik aurtien infantil eta kadete mailetan lehiatzera pasako direla: "Gabonetan hasi zen neska talde bat entrenatzen, eta taldea sortu genuen. Gainera, neska horiek beste asko erakarri dituzte, eta pozgarria da hori".



BKE

Bergarako neskak, ligarako prest

Lurralde mailako liga txapelketa iraileko azken asteburuan hasiko badute ere, mahoneroek urrira arte itxaron beharko dute liga hasteko, lehen astean atsedena izango dute eta. Talde polita osatu dute bergararrek, 25 jokalariz osatutakoa. Eibar, Anaitasuna, Aloña Mendi, Mutriku, Urola eta Amaiak Bat taldeekin batera izango dira hirugarren multzoan.



OIHANA ELORZA

Harrobia sustatzeko lanean

Beti Busti elkarteak antolatuta, piraguismoa egiten ari dira hainbat gaztetxo, bi taldetan banatuta, egunotan, Labegaraietan. Klubeko ordezkarien partetik azalpen teorikoak jaso dituzte lehenengo, eta errekarra jaitsi dira gero, piraguan sartu eta kirola praktikatzera. Gaur, egubakoitza, egingo dute ikastaroaren azken saioa.

Erregulartasunaren bila

Gizonezkoen senior mailan, Bergarak lurraldeko lehen eta bigarren mailetan izango du ordezkartza. Edu Orgaz izango da lehenengo taldeko entrenatzailea, eta, kanpoko ikuspuntua dela onartzen badu ere, Muniategik uste du taldeak erregularrago izan behar duela: "Iaz oso partidu onak partidu txarrekin tartekatu zituzten, eta hori da taldeak hobetu behar duen gauzetako bat. Jokalari kopuruarekin ez dugu arazorik, beheko mailetatik jokalariek ere igo ditugu, baina horiek bigarren taldean geratuko dira. Hala, esperientzia irabazten joan behar dugu, partiduetan momentuko emaitzak larregi baldintzatzen gaitu, eta momentu bakoitzean kantxan zer egin behar den ikasi behar dute jokalariek; horretarako, denbora behar da. Akaso, iaz jokalaria batzuei azkarregi eman genien ardura handia".

GLOBAL STUDIES AKADEMIA



Ingeleseko eskolak

- Adin eta maila guztiak (3 urtetik aurrera)
- Talde murriztuak (zortzi, gehienez)
- Banako eskolak

Irakasgai guztietarako laguntza eskolak: **Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergoa...**
Hizkuntza berriak (oinarrizko maila): **Alemana, frantsesa, txinera, italiera...**

San Lorenzo 23, behe 1 - BERGARA • Tel.: 943 22 93 24 - 605 76 32 72
global_studies_academy@yahoo.es

Mataren azken obraren aurre-estreinaldia gaur

'Welcome' izena duen kale antzerki ibiltaria eskainiko du Iñaki Mata antzuolarrak gaur, San Martin plazatik abiatuta (19:00); sortutako azken panpina aterako du kalera: "Motxila daraman pertsonaia bat da, kaletik eskatzen eta harremantzen dabilena"

Jokin Bereziartua BERGARA

Proposamen interesgarri batekin dator gaur, San Martin jaien barruan, Iñaki Mata txotxongilolari eta panpinaegile antzuolarra. *Welcome* izenarekin baitaiatu duen obra berriaren "aurre-estreinaldia" egingo du, San Martin plazatik hasita (19:00). Izan ere, "poesia ikusgarria" eskainiko duen obra ibiltaria da *Welcome*: "Bizitzan zehar pertsona guztiok izaten ditugun transformazioei ongietorria egin gura die antzezlanak. Motxila daraman pertsonaia bat da protagonista, kaletik eskatzen eta harremantzen dabilena. Ikusleekin sortzen diren harreman horietatik gauza interesgarriak ateratzen dira".



Iñaki Mata, *Welcome* antzezlan ibiltarian erabiliko duen panpinarekin. A. DOMINGUEZ

"Uste du benetakoa dela"

Matak dioenez, gaur kalera aterako duen panpinak "itxura errealista" du: "Jendeak panpina ikusi eta uste izaten du benetakoa dela. Proba batzuk egin izan ditut eliza kanpoan eskatzen jarrita, eta hurbildu izan zait jendea dirua ematera ez dena konturatu ere egin panpina batekin ari zela harremantzen". Burgosko katedralaren ondoan zegoela, esaterako, Donejakue bidea egiten ari zen erromes bat zela pentsatu zuten askok.

San Martin plazatik abiatuta, gutxi gorabehera, 25 minutuko bi txanda egingo ditu: "Hori baino emanaldi luzeagoa larregi izango litzateke niretako. Panpinak pisu handia dauka eta deskantsatzea komeni izaten zait". Gaurko aurre-estreinalditik harago, ez dauka beste emanaldirik lotuta. Panpina berria kale antzerkien eta txotxongiloen jaialdi berezitueta ateratzea da haren asmoa: "Halaxe izan zen *Barreras*-ekin eta horrela jarraituko dut *Welcome*-ekin. Jaialdi horietan, Leioakoan edota Lleidakoan kasu, nolako harrera izango duen ikusi gura dut".

Eskola bat ezagutza partekatzeko

30 urte luzez dihardu Matak txotxongiloen munduan eta urte horietan guztietan ikasitakoarekin Debagoienarako eskola bat irekitzeko proiektua dauka buruan udaberria ezker. Hala

ere, beste proiektu batzuk tartean, "stand by" egoeran dago orain eskolarena: "Iraila amaitu ostean berriro helduko diot; lokalik ez badaukat, baserrian hasiko nintzateke lanean; ea nola funtzionatzen duen".

Erromeria plazan, denetarik Muniben

San Martin jaien barruko zuzeneko musika eskaintzari dagokionez, erromeria taldeek protagonismoa hartu dute festen bigarren asteburuan. Batetik, Joselu Anaiak taldea igoko da gaur gauerdian San Martin plazako agertokira (00:15); Euskal Herriko plaza taldeen artean beterranoenetakoak dira, erromeriaren iragana eta oraina. Bihar ere erromeria izango da protagonista agertoki berean (20:00), Huntza taldearen eskutik. Talde jaioberria eta gaztea, arrakasta handiz dihardute udan, festarik festa.

Bestalde, Xaxauk antolatuta, kontzertuak izango dira bigarren urtez Munibeko txosnagunean. Jaialdi interesgarria antolatu dute biharko, 22:30ean hasita: Oki Moki, Tacumah Reggae Band eta Los Perros de Pavlov taldeek joko dute. Getarian bizi diren Paula Estevezek eta Aritz Aranburuk osatzen dute Oki Moki taldea eta pop melodia itsaskorrek eskainiko dituzte Muniben, gitarra zakarrekin nahastuta; *Ocean Breeze* izeneko lehen diskoa kaleratu zuten iaz. Tacumah Donostiako reggae taldea da, 2008an sortua eta gaur egun hamar musikariz osatua. Jamaikako reggae klasikora gerturatzen dira, eta 1970eko eta 1990eko hamarkadak gogoan izan arren ukitu pertsonala eta indartsua eskainiko dute. Eta, amaitzeko, Los Perros de Pavlov taldeak euskarazko rapa eskainiko du, musika elektronikoa eta instrumentuak nahastuta.



Kamerata Oiasso orkestrako talde argazkia. KAMERATA OIASSO

Kamerata Oiasso orkestra bihar, Italiako musikagileen piezekin

'Kultura kalera' ekimenaren barruan joko du zapatuan Irungo hari orkestrak, Mariaren Lagundian (19:00)

J.B. BERGARA

Kultura kalera programaren barruan, Kamerata Oiasso sokazko orkestrak kontzertua eskainiko du etzi, irailak 17, Mariaren Lagundiko elizan (19:00). Duela gutxi sortutako orkestra da Kamerata Oiasso, kide gehienak irundarrak dira eta lotura estua dute hiriarekin eta bertako jarduera musikarekin. Orkestraren izena ere Irungo hiriarren antzinako adieratik dator: Oiasso. Musikari profesionalak dira taldea osatzen duten gehienak, hainbat orkestra sinfonikotan jo izan dutenak. Hala ere,

Kamerata Oiassoren helburu nagusia da kalitatezko musikaren hedapena bermatzea, bere esanahi zabalenean. Agertoki tradizionalenetan jotzeaz gain, ohikoak ez diren entzuleengana hurbiltzea da euren asmoa eta asteburu honetan Bergaran eskainiko duten kontzertua testuinguru horretan kokatzen da.

Egitarauari dagokionez, Kamerata Oiassok "bidaia nostalgiko bat" proposatuko du Italiatik, 1653tik 1979ra arteko konpositore italiarren piezak -Corelli, Vivaldi eta Puccini kasu- interpretatuta.



IMANOL SORIANO

Azpeitiko bikotea nagusi soltean

Azpeitiko Amets Amubieta eta Larraitz Larrañaga bikotea izan da irabazlea Moises Azpiatzuren omenezko helduendako 32. dantza askatu txapelketan. Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga bergararrek, podiumetik kanpo geratu arren, "oso pozik" bukatu zuten txapelketa. Aurten bederatzi bikote lehiatu dira.

"Arreta, Elgetan, beste herrietako mailakoa da"

JOSEBA IÑAKI URGOITIA SENDAGILEA

Elgetarren sendagilea ia 34 urtez, gaur, barikua, hartuko du erretiroa Urgoitiak. Gogoan ditu hasierako urteak eta dio hobekuntza handiak izan direla ordutik hona

Larraitz Zeberio ELGETA

Egun bereziak dira honako hauek sendagilearendako. Azken egunak ditu Elgetako kontsultan.

Iritsi da erretiroa. Pozik hartzen duzu ala kostako zaizu egokitzea?

Ba, ez dakit. Oso berria izango da. Urte mordoa dira gauza bera egiten, eta aldaketa ekarriko du. Bertigo apur bat sortzen du.

Pazienteak gerturatu zaizkizu agurtzera? Haiendako ere aldaketa izango da.


Etorri dira batzuk. Ziur aldaketa izango dela, baina taldean lan egiten dugu eta tarteka etorri izan dira ordezkioak. Osakidetza sarean gaude eta istorio klinikoak informatizatuta daude. Ez da lehen bezala, dena zegoela medikuaren buruan.

Mila bat biztanleko herri bateko sendagilea izan zara. Ezaugarri bereziak izango ditu horrek.

Zalantzarik gabe. Eredu itxiagoa da, nahiz eta herri handiagoetan sendagileek paziente kupo bat duten. Hemen elkar ezagutzen dugu eta elkar ikusten dugu kontsultatik kanpo ere.

Nola gogoratzen dituzu lehenengo urteak Elgetako kontsultan?

1983ko azaroan iritsi nintzen hona. Oposizioak gainditu, eta Elgeta aukeratu nuen. Ordezkapenengatik, ezagutzen nuen apur bat aurretik. Atentzioa,



Joseba Iñaki Urgoitia Elgetako kontsultan. L.Z.

orduan, astean zazpi egunekoa zen eta 24 orduz. Medikua eta erizaina geunden eta biztanle guztiei ematen genien arreta, izan helduak, izan haurrak.

Laguntza medikorako zentroa Arrasaten zegoen –gerora Debagoieneko Ospitale bihurtu zena– eta espezialistak, berriz, Eibarren.

Asko aldatu da Elgetako osasun zentroa hiru hamarkadatan?

Aldaketa oso handiak izan dira. Hasteko eta behin, lantaldearen dedikazioa. Osakidetza sartzeak lantalde batean lan egitea ekarri zuen, eta Bergarako larrialdi zerbitzuak sortzeak aldaketa handia ekarri zuen. Bestetik, hasiera batean, ez zegoen Elgetan analitikaririk egiterik. Eibar-ko anbulatoriora joan beharra zegoen. Ostean lortu zen analitketarako odola hemen ateratzea eta laginak Eibarrera taxi bidez bidaltzea. Azkenik, Debagoieneko Ospitalea sortzeak baliabide gehiago ekarri zituen; adibidez, tresneria berria diagnostikoa egiteko...

Gaixotasunei dagokienez, aldaketa nabarmenak izan dira?

Gizartean, orokorrean, izan diren aldaketak: infekzio-arazoak gutxitu izan dira eta gero eta gaixotasun kroniko gehiago daude. Biztanleriaren adina igo egin da. Lehen ez zen batera arrunta 90 urtera heltzea eta gaur egun ez da hain zaila.

Elgetako botikarekin ere harreman oso estua dago, ezta?

Elkarren behar izana daukagu, eta, herri txikia izanik, gertutasun handia dago bai herritarrekin, bai gainerako zerbitzuekin, izan botika edo Udaleko Ongizate Saila. Lankidetzaren on dago eta garrantzitsua da zerbitzu onena emateko, zalantzak argitzeko, eta abar...

Eta elgetarrak, gaixotzen direnean, paziente onak dira? Gogorak, ke-xatiak...? Zer esango zenuke?

Jende atsegina da eta ondo ezagutzen dute beraien burua. Orokorrean, ez dira kontsultara edozein tontokeriagatik etortzen. **Urteotan une gogorak ere izango ziren. Larrialdi egoerak, gaixotasun larriak...**

Noski, baina asko aldatu dira gauzak. Hasieran, nahiko bazarrik geunden. Orain, ez. Baliabide berriak daude; esaterako, 112 emergentzia zerbitzua. Helikopteroa ere badago eta inoiz erabili behar izan da. Zerbitzu onak dira. Beti nahi izaten dugu azkarrago iristea, eta abar, baina zerbitzu onak dira.

Elgetako osasun zentroa gaur egun ondo hornituta dago?

Une honetan Elgetan ematen den osasun arreta inguruko edozein herritan ematen denaren mailakoa da.

Erretiroa hartzerakoan, zenbat ardua uzten dituzu?

Bergarako Unitateko arduraduna naiz eta Angiozarko kontsultante ere nik pasatzen dut.

Eta hurrengo sendagilea nor izango den erabakita dago?

Izendatuta dago. Nik astean jakin dut. Emakumezko bat da. Elkartuko gara eskualdatzea egiteko.

Aholkurik emango zenioke?

Ez. Gazteagoa da, eta, seguruenik, ni baino prestakuntza maila hoberekin etorriko da.

Eta zein asmo du Iñaki Urgoitiak etorkizunerako?

Etxea daukat, lanagatik; kontuan izanda emazteak ere erretiroa hartzen duela eta lekeitiarra dela, hasiera baten, Lekeitiora joango gara bizi izatera.

Eta elgetarrei, zer esango zenieke?

[Barre] Elgetan oso ondo bizi daitekeela uste dut. Diren modukoak izaten jarraitzeko esango nieke.

"HASIERAKO URTEETAN ATENTZIOA ASTEAN ZAZPI EGUNEKOA ZEN ETA 24 ORDUZ"

Elkartek eta komertzioek ere bali dezakete Hirix plataforma

Mugikorrendako aplikazio berria erabilgarri dago, eta atzo egin zuten herritarrendako aurkezpena udaletxean

L.Z. ELGETA

Elgeta Hirix udal komunitatearen parte da. Komunikazio plataforma martxan da, eta edozein herritarrek deskarga dezake aplikazioa. "Herriko entitate guztiek egin ditzakete ekarpe-

nak, eta, Udalarendako ez ezik, herriko elkarteendako zein komertzioendako ere oso erreminta baliagarri bihur daiteke", adierazi du a3rConsulting etxeko Aitor del Hoyok. "Uneotan Udalak du indar handien apli-

kazioan, baina herriko edozein eragilek sor dezake bere kontua, herritarrei helarazi nahi dizkien edukiak partekatzeko".

Atzo egindako saioa herritarrendako izan zen. Hirix zer den, nola funtzionatzen duen eta nola deskargatzen den azaldu zuen Del Hoyok. Bizpahiru hilabete barru herriko komertzioendako eta elkarteendako formazio saio irekia egingo dutela adierazi du a3rConsulting etxeko adituak. Ziurtatzen du etekin handia atera dezaketela.

Elgetako XII. Vespa eta Lambretta topaketa domekan

Urtero moduan, Vespa eta Lambretta motorrak ikusgai egongo dira herriko plazan, 10:30etik 12:15era. Ondoren, 40 kilometroko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek. Ibilbidea da Elgeta, Elorrio, Miñota, Berriz, Eroski, Matiena, Elorrio, Kanpanzar eta Elgeta. Bazkaria, aurten ere, El Rincon de Lola jantzetxean izango da, 14:30ean.

OHARRAK

Baserritarren azoka

Zapatuko azokarako izen-ematea udaletxean hilaren 18ko 12:30ak arte.

Tortilla lehiaketa

Izen-ematea zabalik liburutegian hilaren 22ra arte.

Podologia

Iraileko kontsulta hilaren 21ean izango da. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).



Aurrefabrikatutako gelak ordezkaturako dituen eraikina. ANTZUOLAKO UDALA



Estilo modernoa dauka. A. U.



Gelak eta pasilloa. A. U.

Ukitu modernoa izango du eskola berriak

300 metro koadro handiagoa izango da Antzuolako Herri Eskola. Lan sakonak egingo dira, eta, gela gehiago izateaz gain, patioa eta jangela ere handiagoak izango dira. Aurrefabrikatutako gelen alboko espaloirainoko azalera hartuko du eskola berriak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Herri Eskolako lanak 2018-2019ko ikasturtean egingo dira. Datorren urtean hasi eta urtebeteko epean egingo dela obra azaldu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek. Obra sakona izango dela gaineratu du: "Handitze sakona izango da. Hala, 300 metro koadroko azalera irabaziko du eskolak. Aurrefabrikatutako gelen espazioa ez ezik, alboan daukan espaloirearen eremua ere oso-osorik hartuko du. Luzeran ere irabaziko du espazioa".

Gela gehiago

Egingo den eraikinak bi solairu izango ditu, etxabeaz gainera. "Patioa eta jangela ere handiagoak izango dira. Jangela ia bikoitza izango da, gainera. Lehenengo solairuan, bi gela egongo dira –horietako bat bikoitza izango da, handiagoa-. Bigarren solairuak, aldiz, tamaina bereko hiru gela izango ditu. Horrez gain, pisu bakoitzean bulegoak eta komunak ere egingo dira, noski", argitu du Hirigintza teknikariak.

Modernoa vs klasikoa

1.200.000 euro pasatxoko aurrekontua dauka obrak. Proiektu irabazleak, gainera, eraikin modernoa egiteko proposamena aurkeztu du. Hala, arkitektura tradizionalari, estilo modernoko eraikina gehituko zaio: "Orain dela 30 urte egin ziren handitze lanek lehengo estilo klasikoa jarraitu zuten; baina oraingo proiektu irabazleak estilo modernoa dakar eta nik uste dut ondo etorriko dela eskola modernizatzeke".



Atez ateko edukiontzia dauden tokia ere hartuko du eraikinak. ANTZUOLAKO UDALA



NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ IRAMIREZDEOKARIZ@MONDRAGON.EDU

Ezagutza edo erabilera

Euskaldun izatea gero eta nekagarriagoa dela ni neu ohartuta, konturatzen zara hartu duzun jarrera, konpromiso tinko eta temati horretan gero eta bakartiago zabilazala, eta horrek guztiak narama gordin agian zera galdetzer: ba ote daukan euskaldunak Euskal Herrian lekurik.

Izan ere, uztailean argitaratuko datu soziolinguistikoez eta ni neuk lan egiten dudun fakultatean nahiz bizi naizen herrian jasotako esperientziez ez dute besterik adierazten, eta, etsipenaz jota-edo, itxaropen-galera edo krisi batera naramate euskaltzale bezala, naramana galdetzer zera den gure

identitatean hizkuntzari ematen diogun garrantzia.

Katalunia dugu une honetan estatu-nazio bat osatzeko nahi baten erreferentea. Esan beharrik ez dago zer jarri duten egitura politiko juridiko berri horren ardatz: katalana. Guk, berriz, kontzientzia nazionalik balego, eta berdin zait ze kolore

politikoa den, non kokatuko genuke euskara? Gaur, euskaldun zaharengan ere euskara erabiltzeko orduan gero eta larriagoak diren pitzadurak antzemanda, nor daki.

Esaera zaharrak diosku: euskara ez da dena Euskal Herrian, baina euskararik gabe ez dago Euskal Herririk. Ala bai?

Ondare garrantzitsu bati buruzko ikerketa sakona

Mairuaren Alardearen Kultur Elkartearen ekimenez, Lourdes Odriozola ikerlari eskarmentuduna jaietako ospakizun nagusiaren inguruko hainbat aspektu jasotzeko bilketa lan bat burutzen ari da uztaillaz geroztik. Urte bukaerarako bukatuta izango du

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Antzuolako jaietako Mairuaren Alardea herriko ondare kultural eta historiko garrantzitsuena da. Bada, hura babesteko eta sustatzeko sortu zen Mairuaren Alardearen Kultur Elkartekoek Antzuolako Alardearen inguruko ikerketa sakona abiarazi dute, Antzuolako Udalak, Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurjaritzaren Kultura Sailak sustatuta.

Hori dela eta, Alardearen ikuspegi globala ikertzeko beka bat atera zuten, eta dagoeneko topatu dute pertsona egokia, uztaillaz geroztik horretan lanean ari dena: Lourdes Odriozola. Geografia eta Historian lizentziaduna da, baita Historian doktorea ere, eta hainbat ikerketa lan eta artikulu publikatu ditu. Urte bukaerarako bukatuta izango du Alardeari buruzko lana.

Aldaketak eta berezitasunak

Urteetan zehar hainbat aldaketa izan dira Antzuolako Alardean. Azkenaldiko sakonenak, Alardea Biziberritzeko Taldeak bultzatutakoak, ospakizuna gaur egungo balioetara egokitu eta herriarren parte hartzea sustatzeko helburuarekin. 2009tik aurrera hasi ziren aldaketok aplikatzen;



Aurtengo Alardean egindako argazkia. IMANOL SORIANO

hala, esaterako, Mairuaren figura duindu egin zen, eta, Antzuolako tropei bezala, bere zaldia edota segizioa jarri zitzaion, errekreazioari kutsu belikoa kentzeaz batera. Horien aurretik, baina, urtez urte beste hainbat eguneraketa izan ditu ospakizunak.

Antzuolakoak gainontzeko alardeekiko hainbat berezitasun ere baditu: Iparragirrenen bertsoak eta alardeko dantzak, esaterako.

Bada, ospakizunaren jatorriaren inguruko historiaren gain,

eraldaketa eta berezitasun horiek guztiak ere jasoko ditu ikerketak: "Ezin da ukatu ibilbide historiko luzea egin duela Antzuolako Alardeak, baina eguna da esateko ere bere ikuspegi globalarekin loturiko ikerketa baten beharrea gaudela".

Ikerketa lana bukatzean, horren sozializazioa eta zabalpena egitea izango da helburua, elkarteko Iñigo Ramirez de Oka-rizek azaldu duenez. Asmoen artean daude liburua argitaratzea, erakusketak egitea, material pedagogikoa sortzea...

'Ilusioz eta gogotsu' hasiko dute kategoria berrian denboraldia

Iker Agirregabiria atezain arrasatearra fitxatu du Antzuola futbol taldeak; bihar jokatuko du lehenengoz

Maidar Arregi ANTZUOLA

Zapatuan hasiko du denboraldia Antzuolako futbol taldeak. Aurten, gainera, mailaz igo ostean, lehen partidua izango dute Erregional Preferente mailan. Tolo-sa izango dute aurkari. Ez dela erraza izango aurreratu du Ibon Gezalagak, AKEko presidentek: "Lehen partidua Tolosan jokatuko dugu eta partidua zaila izango da. Gainera, guretzako kategoria berria izanda, hasiera gogorra izango da".

Ilusioa handia dago taldeki-deen artean eta denboraldia gogotsu hasiko dutela gaineratu du Gezalagak. "Maila berria gogorra izango da, baina ikusiaz jokalariek daukaten gogoia, seguru nago denboraldia ondo joango dela. Esaten den moduan, partiduz partidua joan behar dugu ikusten", azpimarratu du AKEko presidentek.

Atezain berria

Atezain baten beharra ere ba-zeukan taldeak; hala, ez dute edonolako fitxaketa egin, eta eskarmentudun atezain bat eka-rrari dute Antzuolara: Iker Agirregabiria. "Iaz Aretxabaletako UDA taldean ibili zen atezain arrasatearra fitxatu dugu. Postu horretan hutsunea geneukan eta beharrezkoa zen fitxaketa hori egitea", azaldu du.

Hainbat derbi jokatuko dira aurten Erregional Preferente mailan. Besteak beste, iaz jaitsi zen Aloña Mendi futbol taldea ere izango du aurkari Antzuolak Eztalan, baita Oñatiko Azkoagain futbol zelaian.

Esan bezala, etxetik kanpo, Tolosako Usabal futbol zelaian jokatuko du denboraldiko lehen partidua Antzuolak, arratsaldeko hiru eta erdietan hasita, zapatuan.

Antzuolarrek babesa erakutsiko diote Kataluniari

Kataluniako erreferenduma babesteko eta erabakitze esku-bidea aldarrikatzeko, zenbait antzuolarrek zapatuko manifestazioan hartuko dute parte. Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, manifestazioa irailaren 16an, 17:30ean, Bilboko Casillatik abiatuko da. Antzuolatik autobusa 15:30ean irteno da, autobus geltokitik.

Edurne Uribesalgoren eskulan ikastaroetan izena eman daiteke

Eskulan ikastaroetan norberak nahi duena egiteko askatasuna izango du: koadroak margotu, gauzak zaharberritu, egurra margotu, gauzak itxuraz aldatu... Izena emateko azken eguna irailaren 22a da eta udaletxera (943 76 62 46) edo liburutegira jo behar dute interesa dutenek. Helduendako nahiz gaztetxoendako ikastaroak izango dira.

Antzinatik datorren ospakizuna

Arma ikuskatzeak dira alardeak, eta Antzuolan, 1536koa da ezagutzen den lehena. Batzar Nagusiek deituta Bergarara joateari uko egin ziotelarik, antzuolarrek euren auzoan zuten.

Mairuaren figura

Mairuaren figurari buruzko lehen aipamena geroagokoa da, 1881ekoa.



1915eko Alardearen argazkia. MAIRUAREN ALARDEAREN KULTUR ELKARTEA

OHARRAK

Erakusketa

Bergarako Beart elkarteko Juanjo Altuna margolariaren lanak ikusgai daude Aitz Garbi tabernan irail osoan.

KZgunea

Oinarritzko Internet ikastaroa eta smartphoneak eta tabletak erabiltzeko ikastaroak eskainiko ditu KZguneak urrian. Izena emateko azken eguna irailaren 22a da; udaletxean (943 76 62 46) edo liburutegian eman daiteke izena.

Ingeles ikastaroa

Helduen Eskolak (EPA) ingeles ikastaroa eskainiko du Bergarako Irizar jauregian (943 76 44 52).

Errezeta zaharretik datoz bizkotxo berriak

1833ko agirietan irakurri dute Oñatiko bizkotxoaren berri, eta, errezeta lortuta, prestatzen ari dira orain Antton Azpiazu txokolategilea eta Raul Fernandez gozogilea, Artixa elkarteekin batera. Eguaztenean eramango dituzte kultura etxera, probatzeko

Oihana Elortza OÑATI

Herritar gehienek Oñatiko bizkotxoaren berri ez dutela onartzen du Txokolateixiako Antton Azpiazuk, baina agiri zaharretan irakurri dute horren berri eta Oñatin egiten zela ere entzun izan zien herritar batek edo bestek aitajaun-amandreei. "Benito Perez Galdosen *De Oñate a la Granja* idatzian jasotzen da gozo horren berri, baita sasoi hartako Bilboko eta Madrileko errezeta liburu banatan ere. 1849an Oñatira etorri zen Gereka txokolate lantegiko nagusiak egiten zituela gogoratzen zuen haren ilobak, eta Maribi Arregik ere gogoan du Hankaluzenian nola saltzen zuten, poltsatxoetan, bizkotxoak egiteko osagaiak", azaldu du Azpiazuk.

50 gramo

Informazio hori guztia batu eta gozoa errekupeatzeko lanean hasi zen Azpiazu, Artixa elkarteekin batera. "Bizkotxo Oñatikoa izanda, garbi ikusten genuen Oñatin egin eta saldu behar genuela, eta, hala, Aizpeko madalenak egiten dituen Raul Fernandez gozogile oñatiarrarekin jarri ginen harremanetan. Ideia gustatu, eta proiektuan sartu zen", du gogoan Azpiazuk.

Oñatiko bizkotxo ez da, baina, etxean egin ohi diren bizkotxoaren moduko tamainakoa, pastelen tamainakoa baizik. "Bizkotxo hitza bera pluralean agertzen da agiri guztietan; beraz, ulertzen da txikiak zirela. Eta guk ere horrelakoak egingo ditugu, 50 gramokoak. Horiek sartzeko kaxak ere egin ditugu".

Osagaiak hiru baino ez dira: arrautzak, irina eta azukrea. "Baina kontserbagarria ere sartu behar zaie, denboran luzeago irauteko, eta horretan ari gara orain. Kontserbagarriak naturalak izango dira; limoi azala, kasu. Ron pixka bat ere botako diogu, baina gustua emateko



Antton Azpiazu, Oñatiko bizkotxoak erakusten Txokolateixia aurrean. O.E.

KILOMETROAK JAIAN ETA HERRI EGUNEAN POSTUAK JARRIKO DITUZTE PROBATU ETA EROSTEO

izango da hori, labera sartzean alkohol guztia galdu egingo du eta. Kontua da ahalik eta hezetasun txikiena izatea lortu behar dugula, beste propietate guztiak galdu gabe, noski, eta, horretarako, proba asko egin behar ditugu", dio Antton Azpiazuk.

Eguaztenean

Datorren eguaztenean, hilak 20, erakutsiko dute Oñatiko bizkotxoak jendaurrean. Kultura etxean izango da, 19:00etan. Artixako kideak, Azpiazu bera eta Fer-

nandez izango dira hitzaldian bizkotxoari buruzko azalpenak emango dituztenak. Baita Lauren Busca ere. "Bizkotxoaren jatorria bilatzeko lanean egin genuen topo Buscak eta biok. Osasun arazoengatik ikertzeari utzi zion hark, eta nik jarraitu nuen bidea. Baina eguaztenean hura ere egongo da", aurreratu du Azpiazuk.

Hitzaldiaren amaieran, Oñatiko bizkotxoak emango dituzte, probatzeko eta entzuleen iritzia jasotzeko. "Herritarren iritzia jakitea asko interesatzen zaigu. Gura dugu jakin, adibidez, azukre gehiegi ote duen, edo kanela bota behar ote diogun... Hori guztia kontuan hartuko dugu, eta esperimendatzen jarraitu. Gabonak alderako izango dugu behin betiko errezeta", dio Azpiazuk.

Dantzariak irtengo dira biharko umeen danborradan, lehenengoz

Iñaxio Ibarrodo konpositore oñatiarrak pieza bat sortu du umeen danborradarako, eta bihar estreinatuko dute

O.E. OÑATI

Bi berrikuntza nagusi ditu bihar, zapatua, arratsaldean egingo duten umeen danborradan: batetik, dantzarien konpartsa bat izango da. 2007an jaiotako neska-mutikoek osatuko dute talde hori. Bestalde, Iñaxio Ibarrodo musikari oñatiarrak pieza bat konposatu du propio umeen danborradarako, eta bihar estreinatuko dute.

Erdigunean

Santa Marina plazatik abiatuko da, bihar, umeen danborrada, 18:00etan. Herriguneko kaleetan barrena ibiliko dira dantzan eta danborrak astintzen eta Foruen plazan bukatuko dute, beti bezala. 2008 eta 2009. urteetan jaiotakoak izango dira aurtengo danbor-joleak. Antolatzaileek herriko gainerako umeak ere gonbidatu dituzte danborradan



Umeak entseguan Eltzian. A.T.

parte hartzera eta zirkuko elementuz mozorrotuta joateko gonbidapena egin dute: pailazoz, lehoiz edo akrobatiaz, adibidez. Bestalde, nagusiak ere hasi dituzte euren danborradako entseguak. Bihar dute hurrengoa, 17:00etan, Eltzian.

Plaza mugatuak daude autodefentsa ikastaroan

Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, 14 urtetik gorako emakumeendako autodefentsa ikastaro bi egingo dituzte irailean. Lehenengoa bihar egingo dute eta bigarrena, hilaren 22an. Euskaldun Berria gelan izango da, 17:00etatik 21:00etara, eta, plazak mugatuak direnez, aurretik eman behar da izena, udaletxean. Irailaren 20a da azken eguna.

Uretako sorosle ikastaroa egingo dute Zubikoa kiroldegian

Uretako sorosle titulua birziklatzeko ikastaroa egingo dute Zubikoa kiroldegian hilaren 23an. Parte hartzeko beharrezkoa da sorosle titulua izatea, eta hori aurkeztu beharko da. 100 euro da prezioa eta kiroldegian bertan eman behar da izena. Kanpoko desfibrilagailu automatikoa erabiltzen ere erakutsiko dute ikastaro horretan.

Birzikleta Azokarekin hasiko da bihar Mugikortasun Astea

Bigarren eskuko bizikletak, kasakoak, maillotak edo gurpilak egongo dira, besteak beste, bihar, zapatua, egingo den Birzikleta Azokan. Plazako frontoian egingo dute azoka hori, 10:00etatik 13:00etara. Bestalde, Mugikortasun Astearen barruan, bihartik hilaren 22ra arte herribusa doan izango da. Autobusetan eta geltokietan jarriko dute oharra.

1936ko gerra Oñatiko emakumeek nola bizi zuten azalduko dute

Emakume oñatiarrak 1936ko gerra garaian izeneko hitzaldia egingo dute hurrengo martitzenean, 19an, kultura etxean, 19:00etan. Emakumeek Emana erakusketaren barruan, orduan gertatutakoa azalduko dute Idoia Etxeberrriak, Jerardo Elortzak eta Juia Monjek. Erakusketa bera irailaren 22ra arte egongo da zabalik.

Oñatiko kobazulo sakonena, Lizartzan

Gaur-gaurkoz herriko kobazulo sakonena izan daitekeenaren esplorazioan murgildurik dihardute Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko kideek. Aipaturikoak Lizartza inguruan du sarbidea; eta, dagoeneko, 242 metroko sakonera duen eremura helduak dira

Iker Oñate OÑATI

Katalogaturik dauden artean, Oñatiko koba sakonena da Lizartzakoa: Lizartza 1 –berorren esplorazioan dihardutenek kobaren izena ezezagun dutenez, zonaren izena jarri diote, 1 zenbakiaz lagunduta-. Bada, gaur-gaurkoz, 242 metro sakon dituzte topografiaturik. AMET Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kideek bertara iristeko egin duten bidea, bestalde, 1.188 metro luze da.

Erreferentzia gisa, Lizartza inguruan hasita, Arantzazuko errepidera helduak direla esan daiteke; oraindik, dena den, behar bidea dute egiteke. "Gesaltzako kobarantz doa bidea. Beraz, oraindik beherago egiteko esperantzaz dihardugu", dio Borja Abarrategi AMETeko kideak. Aurreikusten dutenaren arabera, Lizartza 1 koba Gesaltzakoarekin loturik egon liteke.

Beraz, aurrera begira, hasia duten bidea jarraitzea dute hel-



Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kide bat Lizartza 1 kobaren esplorazioan. AMET

buru; eguraldiak utzi bitartean, noski. "Batez ere, udaberriaz geroztik dihardugu Lizartzako kobaren esplorazioan murgildurik; beraz, oraindik ez dakigu eurite garaian noraino igoko diren errekek. Erreken mailaren hazkundea gure jarduna oztopatzen du sarri", azaldu du Abarrategik. Gauzak horrela, eurite garaia heldu bitartean, ahalik eta eremu zabalena aztertu gura dute AMETeko kideek; gauzak horrela, horretan buru-belarri jardungo dute irailetik urrira bitartean.

Aktibo dagoen koba

Gaur egun aktibo dagoen koba da Lizartzakoa: Aloña mendiaren inguruan baturiko ura jasotzen du, erreka batera eramanez. "Uste dugu Arantzazuko erreka arro eraman dezakeela Aloña inguruan bilduriko ura. Finean, ur hodia balitz bezala dihardu", argitu du Abarrategik. Orain artean, hiru erreka bide ikusi dituzte kobazuloan.

Esplorazioa, bide nagusian

Gaur-gaurkoz, kobazuloaren bide nagusia esploratzen dihardute, gainerakoak alde batera utzita –oraingoz-. "Orain, kobaren sakonera jakitea da helburu nagusia. Hori lortuta, Lizartza 1-ek dituen gainerako bideak aztertzen has gaitezke", esan du Abarrategik.

Aipatu beharrekoa da, bestetik, jauzi asko dituen bidean dihardutela. Kasuak kasu, atzera egin

beharra ere izan dute, sokak bidea jarraitzeko gura besteko luzerarik ez zuelako. Eskura duten materialak utzi bitartean, bestetik, ordu askoko esplorazio jarduna egin ohi dute. "Azken irteeretan ordu asko egin ditugu kobaren barrenean. Azkena hamasei ordu pasakoa izan zen, esaterako; 10:00etatik 02:30era bitartean egon ginen koba barruan", azaldu du Abarrategik.

Esplorazioa berrekinda

Esan beharra dago AMETek 2002an ekin ziola Lizartza 1 kobazuloaren esplorazioari. "60 metroko sakonera topografiatu ostean, esplorazioa eten genuen, eremu horretan aurrera egiteko traba aurkitu genuelako", dio espeleologia taldeko kideak. Dena den, puntu horretan haize korronteak atzeman zituzten; eta, aurrera egiten saiatzea erabaki zuten duela hainbat hilabete.

Tartean, ordea, AMETek ez du bere jarduna eten. "Aizkorri-Aratz natura parkearen inguruko kobak aztertzen ibili ohi gara. Balio handiko eremua da: 1.000tik gora ditugu katalogaturik", dio Abarrategik. Beraz, AMETeko kideek koba asko dituzte aztertzeke.

ORAINGOZ, LIZARTZA INGURUAN HASITA, ARANTZAZUKO ERREPIDERA HELDUAK DIRA AMET-EKOAK



NIRE USTEZ

AMAIA MADINA

Non dago politika?

Udazken goiztiar hau korapilatsuegi aurkezten ari zaigu. Aitortzen dut bizi dugun Espainiako Estatuaren eta Kataluniaren arteko borrokaren aurrean kezka eta interes bizia daukadala. Bi protagonistek arerioa norberaren nahietan zimurtzen den itzaroten dihardute, nahiz eta pentsatzen dudana, kontzientek direla, aipaturiko emaitza, zimurtzea, erabat desiragarria ere ez litzatekeela izango. Bidean, mehatxuak, kereilak, gaitasungabetze posibleak... aurkitzen ditugu. Arma sakratu bezala. Indarreko legezotasuna nagusitzen da, Estatuaren hegemonia inposatuz. Uste dut ikuskizun hain tamalgarriaren aurrean, Kataluniako gizartea hasitako bidez konbentzita dagoela, nahiz eta, era berean, arduratuta egon eta ezinegona izan.

Konbentzituta nago politikaren jokoak soilik ekar dezakeela desiratutako konponbidea, eta horretarako legezotasun gutxiago eta politikaren joko behar dugu, gako erreserbarik gabe onar dadin: Kataluniako herriaren gehiengoaren borondatearen emaitza onartzea.

Oñati oinarri duten bi ikerketa-lan aurkeztuko dituzte

Lege Soziologia Institutuko bi kidek euren lanak aurkeztuko dituzte astelehenean, irailaren 18an, eraikineko aretoan; horien bien tesiek Oñati dute oinarrian. Batetik, *Pakistani Immigration and Integration in the Basque Country: a Case Study of Oñati* tesia aurkeztuko du bertako ikasle eta Oñati Research Forum taldeko sortzaile Patara McKeen kanadarrak, 11:30ean. Hurrengo lana, bestetik, 20:00etan aurkeztuko du Francisco Vertiz irakasle eta abokatu argentinarrak: *La política urbana y la regulación de la vivienda en Oñati (2007-2016)*. Oñatiko Udala Grant ikerkuntza-bekaren onuradunak dira horiek biak.

Berakatz-zopa lehiaketa egingo dute San Migel egunean

Lehiaketak lehen edizioa izango du aurtengoa. Bestetik, eskuragarri daude Herri Eguneko bazkarirako txartelak

I.O. OÑATI

Aurten, berrikuntza moduan, berakatz-zopa lehiaketa jasotzen du jaietarako egitarauak. Zehatz esanda, San Migel egunerako –irailaren 29rako– finkatu dute hitzordua. Bi pertsonako taldeek jardungo dute.

Bada, ireki dute lehiaketan esku hartu nahi dutenentzat izen-matea; irailaren 19ra bitartean egongo da zabalik. Udaleko Kultura Departamentura deituta edo kultura.idazkaritza@onati.eus helbidera idatzita eman daiteke izena.

Herri Eguneko bazkaria

Bestalde, eskuragarri daude Herri Eguneko –irailaren 30a– bazkarirako txartelak. Kultura etxean eta herriko hainbat tabernatan –Arrano, Izarraitz, Oñati eta Olakua– eskura daitezke. Bi menu jarri dituzte eskuragai: haurrena –10 eurotan– eta helduena –19 eurotan–.

Bestetik, azken urteetako ohi-turari jarraiki, jairako propio diseinaturiko zapiak ere izango dira eskuragarri. Interesa dutenek kultura etxean eros ditzaketek, euro baten truke.



Auschwitz eta Sasquatch taldeen arteko partidu bat, iazko denboraldian. IMANOL SORIANO

Dagoeneko martxan da Herriko Futbol Txapelketa

Pasa den asteburuan izan ziren San Migel Txapelketako –zazpiko futbola– lehenengo partiduak eta bihar jokatuko dituzte finalurrekoak; herriko jaien ostean, Superkopa jokatuko da lehenik –urriaren 7an– eta ondoren ekingo diote liga txapelketari

Eneko Azurmendi OÑATI

Ekin dio denboraldiari Herriko Futbol Txapelketak, eta, ohi bezala, zazpiko futboleko San Migel Txapelketarekin abiatu da. Pasa den astean jokatu ziren lehen partiduak, honako emaitza hauekin: Zalaparta 0-2 Etxaixat; Sasquatch 0-1 Auschwitz; Kalañatasaray 3-5 Txuskos; eta Harripe Balonpie 4-2 Shatoken Moñura. Emaitza horiek kontuan hartuta, bihar, zapatua, jokatuko dituzte finalerdiak, Larrañako futbol zelaian.

Alde batetik, Harripe Balonpiek eta Txuskosk neurtuko dituzte indarrak, 12:00etan. Bestetik, Etxaixat eta Auschwitz ariko dira aurrez aurre, 13:00etan. Finala datorren zapatuan izango da, irailaren 23an.

Zortzi taldek eman dute izena San Migel Txapelketan. Hala ere, txapelketa horretan ez dute gero liga txapelketa jokatuko duten talde guztiek izena ematen, data eta jende kopuruarekin lotutako arazoak direla eta.

Hamaikako futbola, mantendu

Urtetik urtera talde gutxiagok ematen dute izena Herriko Futbol Txapelketan eta izena ematen duten horiek ere jendez justu ibiltzen dira askotan. Hori dela eta, iazko denboraldia bukatu ostean, zalantzan jarri zen hamaikako futbola, eta batzordean planteatu zuten denboraldi osoan zazpiko futbola egitea. Hala ere, hamaikako futbola bere horretan mantentzea erabaki dute.

Hamabi talde ligan

Iazko talde kopuru berbera izango du aurtengo liga txapelketak. Izan ere, Joxely taldeak ez du jarraituko, baina haren lekua Harripe Balonpie taldeak hartuko du. Beraz, honako hauek

JOXELY TALDEAK EZ DU JARRAITUKO ETA HAREN LUKUA HARRIPE BALONPIE TALDEAK HARTUKO DU

osatu dute 2017-2018 denboraldiko liga txapelketa: Albok, Auschwitz, Dollygan's, Etxaixat, Hangola, Harripe Balonpie, Kalañatasaray, Kili-Kolo, Sasquatch, Shatoken Moñura, Txuskos eta Zalapartak.

San Migel eta Errosaixo jaien ostean, urriaren 7an Superkopa jokatuko dute iazko liga eta kopa txapelkunek, Albokek eta Kili-Kolok, hain zuzen.

Horren ostean, urriaren 21ean hasiko da liga txapelketa. Joko-sistema eta arautegia ez dira aldatuko: lehen lau sailkatuak liga irabazteko finalurrekoetarako sailkatuko dira eta gainontzekoek kopa lehiatuko dute, kanporaketa formatuan.

Bi epailek, utzi

Jabi Altubek eta Jabi Azpiazuk epaile lanak egiteari utzi diote eta aurrerantzean bi epaile bakarrik geratuko dira: Joseba Molinero eta Mattin Ugarte. Beraz, taldeetako jokalariek egin beharko dituzte epaile lanak.

Denboraldia hastear Aloñako taldeak, helburu ezberdinekin

Futbol taldeak etzi, domeka, ekingo dio urteari eta saskibaloia eta eskubaloia taldeek, datorren asteburuan

E.A. OÑATI

Etzi estreinatuko da futbol taldea Erregional Preferentean. Idiazabal taldearen aurka jokatuko dute, 16:30ean, Azkoagainen.

Taldeak bi baja izango ditu: Julen Palaciosena eta Julen Agirrerena. Asier Ugarte, berriz, taldera itzuli da. Denboraldiari ekiteko gogoz daude jokalaria. "Entrenamenduetan landutakoa ondo islatzen ari gara zelaian, eta, partiduak jokatu ahala, hobetzen joatea espero dugu. Ea igoera lortzen dugun", adierazi du Gaizka Irizar jokalaria.

Liga gogorra

Eskubaloian, bi atezainen baja –Lander Elorza eta Josu Arenaza– izan du aurtan Aitor Aranbururen taldeak eta Mikel Elorzak beteko du hutsune hori. Eneko Ugarte atezainak ere jarraituko du. Azken horrek

adierazi du gogotsu daudela denboraldia hasteko, nahiz eta jakitun diren ez dela erraza izango iazko denboraldi borobila errepikatzea. "Liga asko gogortu da. Goitik talde indartsuak jaitsi dira eta horretaz kontzientzia izan behar dugu. Beraz, ahalik eta urrunen iristea izango da gure helburua, baina hankak lurrean izanda", dio Ugartek.

Baja garrantzitsuekin

Saskibaloia taldeari erreparatuta, talde gaztearekin ekingo dio denboraldiari. "Bizpahiru baja garrantzitsu izan ditugu. Talde gaztea daukagu, altuera gutxi-koa. Beraz, abiadura baliatu beharko dugu partiduak irabazteko", dio Aitor Ugartek, taldeko entrenatzaileak. Denboraldiari begira, ez du helburu finkorik jarri. "Joango gara ikusten partiduz partidu nola gauden".

Tiago Gonçalvesi omenaldia, mendi martxaren ostean

Arrakasta itzela izan du Oñatiko III. Mendi Martxak. Izan ere, dagoeneko 500 pertsona inguruk eman dute izena www.kirolprobak.com webgunean. Internet bidezko izen-ematea itxita dagoen arren, antolatzaileek adierazi dute ez dituztela plazak mugatuko eta jakinarazi dute bihar bertan ere, martxari hasiera eman baino lehenago, egongo

dela horretarako aukera. Hala ere, garaiz ibiltzeko ohartarazi dute. "Martxa 07:30ean hasiko dugu. Beraz, momentuan izena eman nahi duenari esan nahi diogu lehenago azaltzeko plaza, garaiz abiatu ahal izateko". Federatuek 14 euro ordaindu beharko dute izen-ematea eta federatuta ez daudenek, berriz, 16 euro.

Bukatzean, maiatzean hil zen Tiago Gonçalves oñatiar gazteari omenaldi berezia egingo diote plazan, 13:00etan.

San Migel Pilota Txapelketako finalerdiak bihar

Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko dira partiduak, Zubikoa kiroldegian. Kadete mailan, Alberdi-Perez Gutierrez-Ballerenaren aurka ariko dira, batetik, eta Ariztegi-Tatiegi Perez-Cuairanen aurka, bestetik. Gazte mailan, berriz, batetik, Biain-Ibarloza Uribe-Azpitarteren aurka, eta, bestetik, Osa-Cordon Egiguren-Gartziaren aurka.

Reala eta Osasuna elkarren aurka gaur, kilometroen alde

Emakumezkoen futbola izango da gaur Azkoagainen futbol zelaian, kilometroak jaiaren barruan. Realak eta Osasunak neurtuko dituzte indarrak, 18:30ean. Sarrerak leihatilan izango dira salgai: 15 urtetik beherakoentzat bost eurotan eta nagusientzat hamar eurotan. Partiduaren atsedendian Lekaixoka produktuen azoka egingo dute.

"Euskal Herrian gertatu dena ez da jolasa izan"

ANDER LIZARRALDE LIBURUAREN IDAZLEA

'Boluntario baten ibilerak' liburua idatzi berri du Ander Lizarralde 'Pertz'-k, Gregorio Garitaonandia 'Borda' oñatiarraren ETako militantzia ardatz nagusizat daukana

Eneko Azurmendi OÑATI

Elorregi Goiti baserrian sortu zen Gregorio Garitaonandia *Borda*, 1953an, eta 18 urte zituela ETAn sartzea erabaki zuen. Erakunde politiko militarrean igarotako zazpi urteetan bizitako esperientziak batu ditu Ander Lizarralde *Pertz*-k, liburu batean. Biurteko lanaren ostean, irailaren 22tik aurrera salgai egongo da liburua, 12 eurotan, Arrano tabernan eta Altuna estankotan, eta idazkiaren aurkezpena, berriaz, urriaren 20an egingo dute, Antixena gaztetxean.

Zer azaltzen du liburuak?

Idea bat egiteko, 180 orrialde ditu eta hiru ardatz ditu. Ardatz nagusia da *Borda*-k ETA erakundearen barruan egin zuen militantziaren -1971tik 1977ra- gainerako kontaketa zehatz bat. Ardatz nagusi horri bi gehitu dizkiot: batetik, Oñatin gai honi buruz eskuratu ahal izan dudana informazio guztia, bi aldeak kontuan hartuta: atxilotuak, torturatuak, atentatuak, eta abar. Bestetik, gaur egungo munduaren martxaren inguruko nire iritziak sartu ditut. Beraz, nahaspila bat da.

Zerk eraman zaitu liburu hau idaztera? Nondik sortutako ideia da?

Borda ezagutu nuenean, ikusi nuen arantza bat sartuta zuela, zerbait kontatzeko beharra zuela nabaritu nion. Eta, apurka-apurka, liburu bat idaztearen ideia sortuz joan zen, nik kazetari lanak egin eta berak garai hartako kontuak kontatu. Hala ere, hasieratik azpimarratu izan dit bere belaunaldi osoa deskribatuko zuela, bera protagonista izan gabe, nahiz eta kontakizun gehiena berari buruz den.

Dokumentazio lana ere eskatuko zizun liburu honek, batez ere, bigarren zati horretarako?

Hori da. Batetik, testigantza zuzenen bitartez lortu dut informazioa, elkarrizketak eginda. Gero, egunkarien hemerroteketan



Ander Lizarralde *Pertz*, liburuaren idazlea. ENEKO AZURMENDI

"KONTAKETA ZEHATZ BAT EGIN BEHARKO GENUKE LEHENIK, IRITZIA EMAN AURRETIK"

eta liburu batean ere batu dut informazioa.

Nolakoa izan da prozesua?

Esan bezala, elkarrizketa bidez egin dut. Gauza bati buruz hitz egiten hastean, beste bat agertzen zen, eta, hariari tiraka, garai hartako erretratu bat lortu dudala esan nezake; nahiko zehatza, gainera.

Liburuan jasota dagoenetik, zer nabarmenduko zenuke?

Euskal Herrian pasatu dena ez da jolasa izan, gogorra izan da, eta memoria historikoaren arloan gauza batzuk lantzeko daude. Hau da, kontaketa zehatz bat egin beharko genuke lehenik, iritzia eman aurretik.

Zer-nolako esperientzia izan da liburu hau idaztea?

Idazketa prozesua oso zaila izan da niretzat. Terreno berri bat zen niretzako, eta hasieran errazak zirela uste nuen gauza as-

korekin topo egin dut. Hainbat esaldirekin borrokak izan ditut. Baina, aldi berean, esperientzia aberasgarria izan da; izan ere, gauza asko ikasi ditut. Harri bat jaso eta gauza pila bat agertzea bezala izan da. Ezagutzen ez nituen kontu ugari ezagutu ditut, Oñatin gertaturikoak. Uste dut belaunaldi eten bat egon dela, eta transmisio bat egin beharko da.

Gustura geratu zara emaitzarekin? Bai, gustura geratu naiz, baina iruditzen zait guztiz itxi gabeko lan bat izan dela. Informazio batze bat izan da, eta gauza asko geratu dira jaso gabe. Lehen esan dizudan moduan, memoriaren arloan gai asko daude jorrazteko eta sakontzeko.

Zein, adibidez?

Liburu hau idazterakoan, deskubritu dut Oñatin 1960ko hamarkadan Cabra izeneko talde baten mugimendua egon zela, ETaren gaian garrantzi handia izan zuena, eta uste dut bada-goela zer kontatu gai horrek eman zuenarekin. Hala ere, nik ez dut uste idatziko dudarik; beraz, beste bati gonbidapena egiten diot, animatu dadin horri buruz idaztera.

Argazkilaritza ikastaroak, Ilunpetan taldearen eskutik

Saio horietan parte hartzeko, 605 75 39 66 telefonora deitu edo 'ilunpetan@gmail.com' helbidera idatzi

E.A. OÑATI

Ikastaro horiek bi zatitan banatuko dira: batetik, hastapena; hau da, argazki kamera modu manualean erabiltzen ikasteko aukera ematen duena. Oinarrizko teknika, kamerak ematen dituen aukerak eta argazkien konposizioa landuko dira. Hemen bi talde egongo dira: lehen euskarazkoa izango da, urriaren 10etik azaroaren 28ra arte, martitzen 18:00etatik 19:30era, eta zapatu goiz bat; bigarrena, berriz, gaztelerazkoa, urriaren 9tik azaroaren 27ra arte, aste-

lehenero 18:00etatik 19:30era. Prezioa 70 euro izango da.

Bestetik, argazkilaritzan saio kontzeko ikastaroa izango da, eta, hain zuzen, konposizioari, argiari edota kontaktu gura denari erreparatuko zaio, besteen argazkiak begiratzuz eta aztertuz. Filtroak, flasha eta beste hainbat baliabide erabiltzen ere erakutsiko da saio horretan. Hemen talde bakarra egongo da, urriaren 10etik ekainera arte, martitzen 18:00etatik 19:30era, eta zapatu goiz bat; bigarrena, berriz, gaztelerazkoa, urriaren 9tik azaroaren 27ra arte, aste-

Musika doinuak nagusituko dira San Martin jaien lehen egunean

Screamers & Sinners, What A Band eta Vancouver taldeak ariko dira oholtza gainean, 22:04tik aurrera

E.A. OÑATI

Asteburu honetan ospatuko dituzte San Martin auzoko jaiak.

Gaur 18:57an emango zaie hasiera jaiak, etxafuego jaurtiketarekin, eta ondoren, 18:59an, Martintxo txerriaren gorakada egingo dute. 19:07an, txorimaloak aterako dira, Jose de Azpiazu Musika Eskolako kideen musikaz lagundurik. 19:32an, pintxo-potea egingo dute. Gauean, berriz, Summertime Fest festibala, 22:04an hasita. Screamers & Sinners -psychobilly doinuak-, What A Band -country- eta

Vancouver -rocka- taldeek kontzertua eskainiko dute. Hori bukatzean, Level Grooveren eta Iñaki Cerqueiraren emanaldia egingo da gaztetxe zaharrean.


Bihar, 11:00etan, txikitrail bizikleta lasterketa egingo da, eta bukatzean, jolasak, umeendako. 14:00etan, auzo-bazkaria egingo dute. Bazkalostean, mus txapelketa egingo da, 16:00etan. 17:30ean, Supituki taldeak antzezlan eskainiko du. 19:00etan, pintxo-potea egingo dute berriro, eta ondoren, Gaitzerdi taldearen erromeria egingo da.

'Oñatiko Zertzeladak' emanaldirako sarrerak salgai

San Migel egunean -irailak 29- *Oñatiko zertzeladak* emanaldia eskainiko dute Olaitturri taldekoek, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Antzezlaren hiru zatiak bata bestearen atzetik eskainiko dituzte oraingoan. Sarrerak salgai daude Txokolateixian, sei eurotan, eta erosleek liburua eta zozketarako txartela ere jasoko dute.

Hiri Galduak taldeak kontzertua eskainiko du Pako Tabernan

Etzi, domeka, Hiri Galduak taldeak emanaldi akustikoa eskainiko du Pako tabernan, 19:30ean. Hi Exekutibo taldeko Josu Calvo abeslariaren proiektu akustiko berria da Hiri Galduak. 2017an argitaratu dute lehen lana, *Paititi* izeneko, eta album horren aurkezpen biraren baitan dago domekakoa. Sarrera doan izango da.



13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Irailaren 17ra arte bidal
ditzakezu zure argazkiak!



DIRT JUMP O MARISQUIÑO (VIGO, GALIZIA) | Argazkia: Ixmael Rueda Nogueiras



LASTRES HERRIA | Argazkia: Garbiñe Altube



ETXEKO LANAK OPORRETAN | Argazkia: Lorea Armendariz Martinez



EGUZKI IZPIAK BASOAN | Argazkia: Unax Agiriano



MONUMENT VALLEY | Argazkia: Isabel Ruiz de Egiño



SENEGALGO KOSTA | Argazkia: Oihana Arrizabalaga



LEHENGUSUAK BARDEAN | Argazkia: Unai Zenitagoia



GILIN IRLETAN DORTOKEKIN IGERIAN | Argazkia: Uxue Otxoa Alberdi



ABUZTUKO ILBETEA SAO MARTINHO DO PORTON | Argazkia: Iñigo San Vicente

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

INTERSPORT
ARRASATE LORAMENDI ZUMARRAGA



MAU-MAU | Argazkia: Maria Jose Briongos




LANDARE JANTZIA | Argazkia: Blanca Ruiz de Zarate



URTZEKO BIDEAN | Argazkia: Oihan Vitoria



ISLA SAONAKO PARADISUA | Argazkia: Jaione Bildosola



SUA BEGIZTATZEN | Argazkia: Maider Madariaga



GOIENA IRAKURTZEN EDINBURGON | Argazkia: Ane Kortabarría



UR GAZITAN EPEL | Argazkia: Justi Garcia Melchor

Sariak

LEHEN SARIA: LENOVO TAB 2 A10-30 tableta

GOIENA SARIA*: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

* Eraman GOIENA edo *Puntua* oporretara, eta argazki originalenak, kuriosoan, graziosoan saria izango du. Animatu eta bidali zuen argazkia!

PUBLIKOAREN SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

PARTE-HARTZE SARIA: Intersport Loramendin erabiltzeko 100 euroko erosketa-txartela.

(Publikoaren Saria aukeratzeko parte hartzen dutenen artean zozketatuko dugu)



Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guztiak foto-blog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Frutostarren Clio autoa, iazko edizioan; txapelketa podiumean amaitzeko aukera izango dute bihar Aramaion. IMANOL SORIANO

54 pilotu lehiatuko dira Aramaioko bihurguneetan

AUTOMOBILISMOA Bihar, zapatua, egingo dute, 15:00etan hasita, Aramaioko Rallysprintaren 16. edizioa. Enrique Barrenetxea-Arandok eta haren kopilotu Anartz Onandiak eskuan dute txapela, baina oraindik asko dago jokoan

Xabier Urzelai ARAMAIO

Rallysprinten egutegiko azken proba jokatu dute bihar Aramaion (15:00), eta, sailkapen orokorrera begira Durangalde Rancingeko Enrique Barrenetxea-Arandok eta haren kopilotu Anartz Onandiak txapela eskuan badute ere, saltsa polita izango da lasterketan. Saillapenean bigarren dauden Aingeru Castro eta Alaitz Urkiola antzularra ez dira lasterketan egongo, baina, egonda ere, 30 puntuko aldea dute lehenengok: "Eta gainera, zapaturako euria eman dute, eta egoera horretan oso gaitza da Aingeruren BMW M3 autoarekin Barrenetxearen EVO 9 autoa gainditzea", dio lasterketa antolatze lanetan ibiltzearekin batera bihar R5 GT Turbo barruan pilotatuko duen Inhar Amenabar aramaioarrak: "Oraingo lasterketarako kopilotua fitxatu dut", dio, barrez, Hodei Ariztegi izango du ondoan.

Eguraldi iragarpena asmatzen badute, buruaz gidatu beharre-

ko lasterketa izango dela azpimarratu du aramaioarrak.

Frutostarrek gertu dute podiuma

Aurreratu bezala, dagoeneko jakinekoea da nork irabaziko duen aurtengo Rallysprint Txapelketa, baina podiuma ez dago erabakita. Eta hor lehia polita egongo da, egun hirugarren dagoen Joseba Frutos eskoriatzarraren

eta laugarren dagoen Gurutz Agirretxeren artean 9 puntuko aldea baino ez dagoelako. Joseba Frutosek anaia Aitor izango du ondoan, eta Clio Sportarekin Agirretxeren M3 autoa gainditzea izango dute helburu.

Horiek ez dira lehia bakarrak izango. Ibarreko zazpi pilotu izango dira irteera puntuan, euren kopilotuek lagunduta.

Debagoiendarrak lasterketan

ZB.	Gidaria	Kopilotoa	Ibilgailua
4	Joseba Frutos	Aitor Frutos	Renault Clio Sport
10	Xabier Elgar.	Nerea Campos	BMW M3 E36
16	Iñigo Errasti	Xabier Eguren	Renault Clio Sport
20	Gorka Idigoras	Monika Muñoz	Renault Clio Sport
28	Inhar Amenab.	Hodei Ariztegi	Renault GT 5 Turbo
51	Mikel Beretxi.	Omer Garcia	BMW E36
54	Alex Calzon	Julen Uribe-E.	Citroen Saxo

ITURRIA: EUSKADIKO AUOMOBILISMO FEDERAZIOA

Leintz Arizmendik etxeko zaleen aurrean egingo du debuta, etzi

FUTBOLA Ohorezko Erregionaleko Mondrak, Bergarak eta Aretxabaletak kanpoan jokatu dute asteburuan

Xabier Urzelai ARRASATE

Leintz Arizmendi emakumezkoen futbol taldeak etxeko zaleen aurrean egingo du debuta, domekan, Mojategin (16:30). Eta kategoria berrira salto txukuna eman ostean jokatu dute ligako bigarren jardunaldia; izan ere, joan den astean, Añorgaren zelaian Titu-ren eta Ezkurraren neskek 1-2 irabazi zuten.

Horrela, maila berriari modu ezin hobean ekin diote; domekako kontrario Derio, berriz, puntu bat batu zuen joan den astean, Lakuaren aurrean 1-1 eginda.

Mondra, UDA, Bergara, kanpoan

Ohorezko Erregional mailan, berriz, etxeko hiru ordezkariak etxetik kanpora jokatu dute. Joan den astean Urolari 4-0 irabazi eta gero, Bergarak sailkapeneko lehenengo postuan hasi

du liga, eta domekan (17:00) Lesakan jokatu du, Beti Gazteren kontra. UDAk ere domekan izango du hitzordua (11:00, Donostia), Vasconiaren zelaian. Eta, azkenik, Mondrak Urolaren zelaira egingo du bisita zapatuan (16:15).

Erregional Preferentea, abian

Asteburuan hasiko dute maila bat beheragokoez liga. Hamasei taldeko multzo horretatik bost Debagoieneko taldeak dira; horrenbestez, pentsa zenbat derbi izango dituzten aurten...

Aloña Mendik Idiazabalen bisita izango du (domeka, 16:30), Aretxabaletak Elgoibarrena (domeka, 16:30), Mondrak Lagun Onakena (zapatua, 16:00), Bergarak Eibarrena (zapatua, 17:00) eta Antzuola da kanpoan jokatu duena, zapatuan (15:30) Tolosan.



#HRMT

GOIENA TELEBISTA, 'EUROPAKO TXAPELKETARA BIDEAN'
IRAILAREN 20EAN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



Mikel Linazisoro, eskuman, Shuta Tanakarekin eta Nathan Martinek batera, podiumean. EDDIE FOWKE / IFSC

Joko Olinpiarretarako txartela du Linazisorok

ESKALADA Bergarako eskalataile Mikel Linazisorok Innsbrucken jokatu den Munduko Txapelketan lortu du datorren urteko Gazteen Joko Olinpiarretarako txartela; zailtasun modalitatean brontzea irabazi du eta modalitate konbinatuan zortzigarrena izan da

Xabier Urzelai BERGARA

Joan den asteburuan jokatu dituzte gazte mailako Munduko Eskalada Txapelketako finalak, Innsbrucken (Austria). Eta bertan, *youth* kategorian –18 urtetik beherakoen maila–, Mikel Linazisorok brontzea jantzi du, eta, horrekin batera, datorren urtean Argentinan

egingo dituzten Gazteen Joko Olinpiarretan parte hartzeko txartela poltsikoratu du.

121 eskalataileekin lehia

Txapelketan 121 eskalataile izan dira, eta lehenengo fasean Sam Avezou frantziarra, Filip Schenk italiarra eta Shuta Tanaka japoniarra gainontzekoak

baino maila hobean ibili ziren. Mikel Linazisorok bederatzigarren postua lortu zuen bere multzoan, eta lan horrekin hurrengo faserako sailkatu zen. Finalerdietan Filip Schenk-ek –Europako Kopako hiru probetatik bi irabazi ditu aruten eta faberito nagusietako bat zen– lehenengo postura egin zuen salto,

PILOTA Sanmartinetako jaialdia etzi, domeka, Bergaran

Bergarako Pilota Elkartek antolatuta, emakumezkoen pilota partiduak egongo dira domekan ikusgai. 18:30ean hasita, kadete mailan, Etxegaraik eta Zubizarretak Barrokak eta Oses izango dituzte aurrean, eta nagusien mailan, Ruiz de Larramenditarrek –Getariako Txapelketa irabazitakoak– Aramendiren eta Etxanizen kontra jokatu dute –Añorgako txapelketa irabazi izan dute–. Palan, Lopezek eta Ramirezek osatuko dute bikotea, eta Galparsoro eta Agirrezabal izango dituzte aurrean.

Ondoren, Gipuzkoako Txapelketako lehenengo partidua jokatu dute Bergarakoek, Tolosaren kontra.

Lehendakari Txapelketako azken aurrekoa, Oñatin

TXIRRINDULARITZA Bihar, zapatua, 23 urtez azpiko ziklistek 90 kilometroko lasterketa izango dute aurretik

X.U. OÑATI

Amateur mailako txirrindulariak denboraldi amaieraren aurrean daude, eta urtea txukuntzeko, edo erabat borobiltzeko, azken aukerak geratzen zaizkie. Hala, bi aukera dituzte asteburuan, zapatuan Oñatin eta domekan Zaldibian izango dituzte-eta lasterketak, eta bi hitzordu horiekin amaituko dute txapelketa.

Bada, bihar, zapatua, txirrindulari kuadrilla polita batuko da Oñatiko Unibertsitateko hiribidean (10:00). Ziklistek 90 kilometro gogor izango dituzte aurretik,

mendate nabarmenik ez badute ere, gorabehera handiko lasterketa izango da eta. Ziklistak Eskoriatzako Aingeru Guardaraino (10:30) joango dira lehenengo, eta, Oñatitik pasa ostean, Udana igo (11:15) eta zain izango dituzte Aztiriako gaina, Lierniko gaina eta Atagoitiko (11:50) gaina; gero, Udantatik berriro ere Oñatira (12:30) itzuliko dira.

Ibarreko ordezkariak dagokienez, etxeko Julen Umerez, Xabier Murgiondo eta Ekaitz Txintxurreta irteera puntuan izango dira.

eta haren atzetik sailkatu zen Nathan Martin frantziarra. Hirugarren eta laugarren, berriz, Shuta Tanaka japoniarra eta Austriako Louis Gundolf sailkatu ziren, hurrenez hurren. Hurrengo lau sailkatuak, tartean bergarra, ez ziren aurrekoak iritsitako heldulekura iritsi, baina finalerako sailkatu ziren berdin-berdin.

Fase erabakigarrian, oso ondo

Fase erabakigarrian, final handian, Mikel Linazisorok egindako saioan lehenengo lau eskalataileen artean punturik gorena markatu zuen. Jarraian, Shuta Tanaka japoniarra inor baino gorago iritsi zen –urrezko domina poltsikoratu zuen horrela–, eta jarraian, Nathan Martin frantziarrak ere eskalataile bergarra gainditzea lortu zuen.

Txapelketako faboritua falta zen, Filip Schenk italiarra, eta Linazisorok kale egindako helduleku berean egin zuen hark ere huts. Hala ere, Linazisoro hurrengo mugimendua egiteko kapaz izan zen, eta, italiarrak halakorik lortu ez zuenez, ho-

rrek apurtu zuen bien arteko berdinketa, eta Mikel Linazisororendako izan zen brontzezko domina.

Argentinara, Gazteen Jokoetara Zailtasun modalitatean lortutako brontzeak ez dio, baina, 2018an Buenos Airesen egingo dituzten Gazteen Joko Olinpiarretarako txartela eman. Lorpen hori modalitate konbinatuan egindako lanari esker lortu du beragarrak –zailtasuna, boulderra eta abiadura hartzen dituzte kontutan–.

Argentinarako txartela lortzeko, modalitate konbinatuko 13 onenen artean sailkatu beharra zegoen. Eta, abiadura 24. sailkatu ostean eta boulderrean 28.a izan eta gero, Bergarakoak zortzigarren amaitu zuen sailkapen orokorrean. Eskuan du, jada, txartela.

MODALITATE KONBINATUKO HAMAHIRU ONENEK LORTU DUTE SAILKATZEA

ARAMAIXOKO XVI.

16 irailak 2017

RALLYSPRINT'

Igo MANGA, 15:00etan • BIDE MOZKETA, 14:00etan • 3 MANGA

JUBAR Alto eta partitak... Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO • 945445998	EKI TABERNA Razioak, opitarokak... Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO • 945445998	Antea Lardegia
Udalaitz, S.L. Gestioa, zerbitzuak... Tel: 943 71 18 70 • Fax: 943 71 18 71 • info@udalaitz.com	CE Cristalera Errasti, S.L. Tel: 943 791 421 • Fax: 943 792 285 20090 ARASAITE	GRUAS IBAI LURRERRI, S.L.
gestión Gertu abokulariak... Arriaga kalea 11, 1. solairua • 20084 ARASAITE Tel: 943 791 21 • Fax: 943 791 21	ARBOTE taberna	AÑAI TABERNA Eguzki menuak, Baxiak... © 945 44 51 01 (Aramaioko)
EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA	TAKOLO Tel: 943 791 10 • Fax: 943 791 10	epeler
IBARRA OKINDEGI Tel: 945 44 51 01 • Fax: 945 44 51 01 ARAMAIO	BIRIBIL TABAKOAK, EDARIAK Zainagile 35 • ARRASATE	VAGSPEED SUPPLERIA GONDOIA Tel: 943 797 388 • 470 773 84 info@vagspeed.com

"Kontzertuak, guretzat, ospakizunak dira"

RUPER ORDORIKA MUSIKARIA

laz kaleratu zuen 'Guria Ostatuan' aurkeztuko du Oñatiko gaztelekuan irailaren 22an, 22:30ean; Iker Martinez oñatiarra igoko da taularen gainera Ordorikaren aurretik

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Sarrerak zortzi eurotan salduko dituzte egunean bertan leihatilan, 20:30ean hasita; ez da aurre-salmentarik izango.

Kontzertuarekiko ze sentimendu dituzu?

Ospakizun bat da. Guk horrela hartzen ditugu kontzertuak, ospakizun moduan, eta, gainera, Oñatin izanda, gehiago. Esker turik nago antolatzaileekin.

Herriko Iker Martinezek joko du zure aurretik. Zer deritzozu?

Aurrekoan eskuratu nuen haren *Itzalen mundua* diskoa. Interesgarria, benetan. Aspalditxo dabil musika munduan eta pauso handia eman du bakarka. Luzaroko ibilbidea opa diot. Musikari talde asko egon dira Oñatin urteetan zehar, eta gaur egun ere talde eta bakarlarari ugari dauzkagu, zorionez.

Zeintzuk izango dituzu zuk agertokian lagun?

Neure *mugalariak*: Arkaitz Miner, gitarra eta biolinarekin; Hasier Oleaga, baxuan; eta Lutxo Neira, baxuan. Azken urteotan asko ibili gara elkarrekin.

Azkenekoz Oñatin abestu zenuenean Ander Etxaniz izan zenuen ondoan. Izango da horrelako sorpresarik?

Ba, orain ez dakit... Ea *Marti*-rekin egoteko modua hartzen dudana eta zer edo zer gertatu...



Ruper Ordorika. LUIS JAUREGIALTZO

Kanpoan ibili beharra daukat aurreko egunetan, eta ez da samurra izango, baina zerbait egiten ahaleginduko gara.

Urtebete beteko du laster *Guria Ostatuan* lanak. Gustura ari zara zuzenean eskaintzen?

Oraindik baditugu azken diskoari lotutako kontzertuak eskaini beharra: Arrasaten azaroan izango gara, Durangon eta Iparaldean ere lotuta ditugu... *Guria Ostatuan* oso ondo hartua izan da. Niretako, lan luzea izan zen diskoa antolatzea, eta denboralditxo bat behar izan dut

lasaiago ibiltzeko. Grabaketek eta ondorengo lanek dedikazio handia eskatzen dute, eta, beste aldetik, gero eta azkarrago, ahaztuta gelditzeko arriskua dago. Niretako, lan berri bakoitzak aurrerapausoa ekarri ohi du: kantu berriak, kontzertuak....

Hori izango duzu gaztelekuko erreperitorioaren ardatz?

Bai; azken diskoko kantuak sartuko ditugu, baina beste sasoi-takoak ere bai, askotxo.

Kilometroak jaiaren asteburuan izango da. Baduzu domekan etortzeko asmorik?

Ahaleginaren ondoren suerte pitin bat ere beharrezkoa izaten da eta espero dut jende asko ibiltzea eta ondo-ondo pasatzea Txantxiku Ikastolaren aldeko Kilometroak jaiaren. Badakit Oñatik inguru paregabeak eskaintzen dituela... Niri dagokidanez, ez dakit oraindik joaterik izango dudana. Jaiak, behintzat, badi-tugu aurretik: Kilometroak, sanmigelak... Ez dago gaizki!

Izan zinen 1989ko edizioan? Ze oroitzen dituzu?

Ez daukat munduko memoriarik finena, baina, oker ez banago, kontzertu handi bat antolatu zen ordukoan eta gonbidatu batzuk ekarri nituen nik: Rory Mcleod, Tapia eta Leturia... Horraino heltzen naiz.

Urriaren 5ean abiatuko dira zortzigarren Kooltur Ostegunak

Glaukoma, Los Amantes, Willis Drummond eta Porco Bravo taldeak izango dira datorren hileko gonbidatuak

A. A. ARRASATE

Castelloko Los Amantes taldea izan ezik, gainontzeko hirurak aurrez egonak dira egunetako musika zikloan. "Taldeen errepikatu gura izaten dute eta jendeak ere eskaerak egiten dizkigu. Hiru kasu horietan, itzelak izan ziren euren emanaldiak eta berri ere gonbidatu ditugu; hirurak, baina, kantu berriekin datoz", esan du Iker Barandiaranek, Kooltur Ekintzak taldeko kideak.

Orain arteko bidetik jarraituko dute, hau da, "puntualitateari utsiz", 22:00etan hasiko dira kontzertuak, eta sarrerak bost eurotan izango dira. "Ez dago helburu berririk. Arrasaten kultura eskaintza interesgarria eskaintzen jarraitzea, guk geuk eta publikoak orokorrean gozatzeko; eta, aldi berean, musikariei gustura aritzeko moduko baldintzak eskaintzea".

Glaukomaren 'Kalima', hasteko

Hip hop, raggamuffi eta beste-lako soinu beltzak lantzen dituen Tolosako taldeak zabalduko du egitaraua. Kaleratu berri duten laugarren lana aurkeztuko dutela dio Barandiaranek. "Bonberenean aurkeztu zuten aurreko astean eta Arrasateko gazte-txean egingo dute birako bigarren geldialdia. Jendetza batu izan dute aurrekoetan".

Castelloko Los Amantes hiru-kotea izango da urriaren 12an. "Power-popa egiten dute; Ramones-en tankerako punk-rock melodikoa". Urriaren 19an, Willis Drummond taldeak *Tabula rasa* diskoa aurkeztuko du. "Post-rocka, rock gitarrerora eta intentsitatea dituzte ikur. Barakaldoko Porco Bravo ere oso indartsu dabil eta Pulpo taldekidea hil izanaren kolpetik aurrera eginez, gogor datoz".

Hendaia eta Iruñeko dantza taldeak gonbidatu dituzte

Domekan egingo dute Oñatin Haurren Eguna eta hamahiru dantza talde elkartuko dira. Goizean alkate txikiaren ohiko dantza egingo dute -11:45ean- eta arratsaldean, alardea, 17:00etan.

600 haur dantzari inguru etorriko dira, Oñatz dantza taldeak gonbidatuta. Hendaia Akelarre eta Iruñeko Duguna dira, aurretik, berrikuntza. "Azken bi

urteetan talde ezberdinekin harremanak hasi eta sendotu ditugu, eta horren emaitza da. Harreman horiei esker, gure txikiek tokian tokiko plaza eta dantza ezberdinak ezagutzeko aukera izaten dute, eta oso aberasgarria da hori", dio Oñatz dantza taldeko Maite Irizarrek.

Oñatzekoak eskertuta daude haurren gurasoen inplikazio-gatik. "Oñatiko Haurren Eguna erreferente da kopuruari dagokionez, baina gurasoen laguntzagatik da hori".

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA (EKT)

GOIENA TELEBISTA,
IRAILAREN 21EAN, EGUENEAN, 21:30EAN
GONBIDATUA: JUAN IGNACIO HARTSUAGA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



'Xavier Alvarez de Eulate' pintura lehiaketa bihar

Aurtengoa bosgarren edizioa du Arantzazun –aire zabalean– egiten den pintura lehiaketak. Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur Fundazioak elkarlanean antolaturiko ekimena da eta edonork esku har dezake

Iker Oñate OÑATI

Xavier Alvarez de Eulate margolari frantsiskotarraren omeneko pintura lehiaketak bosgarren edizioa du aurtengoa; Arantzazuko Basilikako beiraiteen egilea da Alvarez de Eulate. Biharko finkatu dute hitzordua. Parte hartu nahi duenak egunean bertan eman beharko du izena, 10:00ak eta 12:00ak bitartean, Gandiaga Topaguneko kultura zentroan.

Bestetik, parte hartzaileek arratsaldean entregatu beharko dituzte euren lanak, 16:00etatik 17:00etara bitartean, izena eman duten toki berean. Orduan hasiko da epaimahaiaren lana.

Aipatu beharrekoa da, bestalde, gura duen orok parte har dezakeela. Horretarako, hiru kategoria eskainiko dira: helduena –16 urtetik gorakoena–, gazteena –12 eta 16 urte bitartekoena– eta haurrena –11 urte artekoena–. Kategoria bakoitzari dagozkion sariak banatuko dira irabazleen artean.

Finean, teknika libre erabilita, Arantzazuko Santutegiko edozein txoko, paisaia edo monumentu margotu ahal izango dute parte hartzaileek. "Margolanaren kalitatea ez ezik, parte hartzaileak Arantzazuren izaera jasotzeko izan duen abilezia



Margolari bat Arantzazuko aire zabaleko pintura lehiaketa. ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOA

baloratu ohi dute epaileek", dio Juan Biainek, Arantzazu Gaur Fundazioko ordezkariak.

Zapatuan aurkezturiko margolanak, oster, ikusgai jarriko dira Gandiaga Topaguneko kultura zentroan. Erakusketa urriaren 7tik 29ra bitartean egongo da zabalik, asteburuetan eta jaiegunetan.

Kaligrafia erakusketa, ixtear

Bestetik, kaligrafia erakusketa domekara bitartean egongo da. Itxiera asteburua izanda, ordu-tegi berezia finkatu dute anto-

latzaileek: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean izango ditu ateak zabalik.

Antolatzaileei dagokienez, "pozik" daude egitasmoak orain arte izan duen harrerarekin: "800 pertsona inguru bertaratu dira erakusketara. Dena den, kopuruari baino gehiago, bestelako lorpenei begiratzen diegu. Hala, aipatzekoa da diseinuaren munduaren bueltan dabilen jende ugari etorri dela; askok hurrengo urteko ekintzetan esku hartzeko interesa erakutsi dute, gainera".

Juan Inazio Hartsuagarekin mitologiari buruz, 'EKT' saioan

Ipuin harrigarrien bilduma hutsa baino, mitoak eguneroko erabakietarako eredu bilduma direla dio

A. A. ARRASATE

Enpresagintza eta Antropologia ikasketak egin zituen, baina linguistika alorrean ere aritutakoa da, eta euskal mitologiaren inguruan hainbat ikerketa argitaratu ditu Juan Inazio Har-


tsuaga tolosarrak. Bilbo Hiria Irratiko Ane Zabala kazetariak elkarrizketatuko du irailaren 21, eguena, 21:30ean Goiena Telebistan eskainiko den saioan.

Idea eta balioen bestelako historia laburra eta horren ikasgaien

aplikazioa gaurko gizartean saiakera-liburua eskuetan hartuta egingo dute euskal mitologiari buruzko solasaldia. "Ipuin harrigarriekin osatutako sail bat baino gehiago da mitologia, gure egunerokotasunean hartzen ditugun erabakiak eta egiten ditugun ekintzak arautzen dituen eredu bilduma da-eta. Ipuin forma duten arren, entretenitzea baino, eredu funtzioa dute mitoei. Egiten ditugun guztiak mitoei agindutakoaren arabera egiten ditugu", dio Hartsuagak.

Goiena Klubaren txokoa

Izarren liga Goiena Klubean!



EIBAR - CELTA

Partidurako 2 sarrera bikoitz ditugu.

Irailaren 24an, 18:30ean Ipuruan jokatuko den partidurako.

PARTE HARTZEKO: IRAILAREN 18RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Eibar [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.

Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA *Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Oñatiko udalari esker

Ruper Ordorikaren eta Iker Martinezen kontzerturako sarrerak ditugu.

Gaztelekuan, Oñatin. | Irailaren 22an, 22:30ean

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Ruper" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.

Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2017 (irailetik aurrera): 20 euro.
Deitu: **943 25 05 05**. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

URTEURRENA



Hilaria Arizaga Garaikoetxea
Antonio Alberdiren alarguna



2016ko abuztuaren 24an hil zen, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 17an, 12:00etan, Osintxuko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Osintxu), 2017ko irailaren 15ean.

URTEURRENA



Luis Agirre Ugalde
Maria Urrutia Macazagaren alarguna




2016ko irailaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 17an, 12:00etan, Osintxuko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Osintxu), 2017ko irailaren 15ean.

ESKER ONA



Gotzon Villar Narbaiza

2017ko abuztuaren 8an hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Haren aldeko meza zapatuan izango da, irailaren 16an, 11:00etan, Bergarako San Pedro parrokian. Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Bergaran, 2017ko irailaren 15ean.

URTEURRENA



Florian Muñoz Orgaz
'Chanin'



2016ko irailaren 5ean hil zen, 67 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko irailaren 15ean.

URTEURRENA



Jose Ignacio Zanguitu Alberdi
'Mugarri'
Mari Puy Arebagaren alarguna



2016ko abuztuaren 29an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

*Gurekin egon zara
gurekin zaude
eta gurekin egongo zara betirako.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko irailaren 15ean.

MEZA



Javier Oleaga Madina
Jesusen Lagundikoa



2017ko irailaren 8an hil zen.

Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko meza bihar, larunbata, irailak 16, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian izango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, familiaren izenean.

Oñatin, 2017ko irailaren 15ean.

OROIGARRIA



Anton Losada Bilbao



2015eko irailaren 13an hil zen, 56 urte zituela.

*Nahiz eta denbora pasa
beti zaude gure ondoan
beti gure bihotzean.*

Maite zaitugu, laztana.

Familixia.
Arrasaten, 2017ko irailaren 15ean.

OROIGARRIA



Marisa Pagonabarraga Oiarzabal
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (Huhezi) langilea



2017ko irailaren 10ean hil zen.

*Gure gogo-bihotzetan zaude, Marisa.
Maite zaitugu!*



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Eskoriatzan, 2017ko irailaren 15ean.

OROIGARRIA



Asun Errasti Iriarte
Ramon Larringanen alarguna



2017ko irailaren 8an hil zen, 68 urte zituela.

*Zure azken bidaiak lasaitasunez prestatu dozu,
jakinda gure maitasuna maleta barruan doiezula.*

Ondo ibili.

Marilu, Marian eta Izaskun.
Eskoriatzan, 2017ko irailaren 15ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 15	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Zapatua, 16	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 17	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 18	BERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Martitzena, 19	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Eguaztiena, 20	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguena, 21	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 15	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 16	URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 17	URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 18	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 19	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztiena, 20	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 21	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
ORATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 15	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 16	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 17	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 18	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 19	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztiena, 20	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 21	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**6. Jose Luis eta Maite**

Irailaren 16an, Arrasateko Ferrerías kaleko Jose Luis Galdosen eta Bergarako Artabillako Maite Agirrebefiaren urrezko ezteiak beteko dira. "Etxekoan partetik, zorionak!".

1. 104 urte

Bergarako Mizpirualdeko egoitzako Gregoria Arietaleanizbeaskoa Maiztegi egoiliarak 104 urte bete zituen irailaren 8an. Udal ordezkariekin eta etxekoekin ospatu zuen.

2. Mertxe eta Juantxo

Bergarako Mertxe Cuadrado eta Juantxo Aldalurrek 25 urte beteko dituzte ezkontuta irailaren 19an. "Zorionak, kuadrillako guztien eta Curado familiaren partetik!".

3. 95 urte

Arrasateko Zabaleta baserriko Maria Iriondok 95 urte egin zituen hilaren 8an eta Arteaga jatetxean elkartu zen senideekin urtebetetzea ospatzeko. Zorionak!

4. Amaia eta Hakan

Amaia Pinachok eta Hakan Nilssonek urtebete egin dute ezkontuta, irailaren 10ean. "Zorionak, bikote, Arrasateko eta Donostiako familien partetik!".

5. Iñaki eta Txaro

Abuztuaren 12an, Bergarako Iñaki Ostolazak eta Txaro Ugartek urrezko ezteiak bete zituzten. "Irailaren 16an ospatuko dugu familia artean. Zorionak!".

7. Jesus eta Pilar

Jesus Telleriak eta Pilar Elorzak urrezko ezteiak ospatu zituzten zapatuan, anai-arrebekin eta ilobekin. "Zorionak, bikote, familia guztiaren partetik!".

8. Izar eta Juande

Izar Egurrrola eta Juande Lopez irailaren 16an ezkontuko dira Zumaiaiko San Telmo ermitan. "Zorionak, bikote! Zorionsu izan! Ederto ospatuko dugu eguna zuekin batera".

9. Nerea eta Markel

Nerea Baena eta Markel Briñas gaur, irailak 15, ezkontuko dira eta bihar familiarekin eta lagunekin batera ospatuko dute. "Zorionak, bikote, eta patxo handi bat guztien partetik!".

10. Roman eta Ana

Roman eta Ana 1994ko irailaren 17an ezkontu ziren, Andra Mari Zuri ermitan. "23 urte ezkontuta eta geratzen direnak... Zorionak eta ondo pasatu eguna!".

11. Mikel eta Oihana

Mikel Lasaga eta Oihana Hernando gaur, irailak 16, ezkontuko dira. "Zorionak, bikote! Egun zorionsua opa dizuegu! Familiako eta lagun partetik!".

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Jon Larrañaga Ormaetxea
Irailaren 19an, 11 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo pasatu zure eguna eta hamaika patxo familia osoaren partetik. Bereziki Iraiderena.



ARRASATE
Oihan Arriaran Zubillaga
Irailaren 18an, 9 urte.
Zorionak! Ondo ospatu eguna eta hamaika danon partetik.



BERGARA
Izaro Loloia Lopez
Irailaren 18an, 3 urte.
Izaro, etxeko guztien partetik, zorion egun eguna! Patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
June Canales Diez
Irailaren 18an, 9 urte.
Zorionak, printzesa!
Primeran pasatu eta on-ona opa dotzugu. Asko-asko maixe zaitxugu eta hiru muxu potolo guztien partetik. Ondo pasatu, printzesa!



OÑATI
Gari Palacin Errasti
Irailaren 18an, 3 urte.
Zorionak eta urte askotarako, Gari! Ondo pasatu zeure hirugarren urtebetetze egunian! Mila muxu, familia danaren partetik!



OÑATI
Ane Arregui Unamuno
Irailaren 18an, 2 urte.
Zorionak, Ane! Ondo pasatu bigarren urtebetetzea eta patxo handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Ega Zabala Pozo
Irailaren 18an, 2 urte.
Bi urte! Zorionak, polit hori! Muxu handi-handi bat, familiako danen partetik. Mua!



ARRASATE
Unax Aranzabal Vitoria
Irailaren 18an, 13 urte.
Zorionak, txapeldun. Primeran pasa dezazula urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ELORRIO
Malen Bergaretxe Garitaonandia
Irailaren 18an, 4 urte.
Zorionak Malen gure etxeko printzesari zure laugarren urtebetetzean, Oinatzen, amatxoren eta aitatxoren partetik.



OÑATI
Ainara Azkoitia
Irailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo, eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu eguna eta goxoki asko erosi bihar dan moduan ospatzeko!



ARRASATE
Malen Beitia Jara
Irailaren 17an, 7 urte.
Zorionak, printzesa!
Primeran ospatuko dugu. Izugarri maite zaitugu, polit hori! Mila patxo familiaren eta, bereziki, Unaxen partetik!



ESKORIATZA
June Aguirre Gandarias
Irailaren 17an, 5 urte.
Zorionak, maitia, etxeko danon partetik. Muxu handi-handi bat. Ondo ospatu zure bost urtetxoak!



BERGARA
Maialen Esteban Laskurain
Irailaren 17an, 4 urte.
Zorionak etxeko printzesarentzako amatxoren, aitatxoren, amamaren eta aittaren partetik. Mila muxu potolo!



BERGARA
Hodei Goenaga
Irailaren 17an, 2 urte.
Zorionak, mutikote!
Egun politxa pasatu. Patxo potolo bat, etxekuen partetik.



ARETXABALETA
Izaro Altube Uribe
Irailaren 17an, 5 urte.
Zorionak, sorgintxo!
Edero pasatu eguna eta patxo pilo bat, etxeko guztien partetik.



OTXANDIO
Eneko Berrio Garaitonandia
Irailaren 17an, 5 urte.
Zorionak gure pirata!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo potolo bat, Agarreko danon partetik.



BERGARA
Alex Mendizabal Paya
Irailaren 17an, 3 urte.
Zorionak, Alex!
Dagoeneko handia zara! Patxo potolo bat, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Oxel Arregi Camino
Irailaren 16an, 3 urte.
Zorionak, *guapeton!*
Ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat Anartzen, Maialenen eta Agerren partetik.



ARRASATE
Aratz Gorosabel Espinosa
Irailaren 16an, 14 urte.
Oso ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
Oskitz Azkarateaskasua Alferez
Irailaren 16an, 10 urte.
Zorionak etxekoen partetik.



OÑATI
Iker eta Aimar Zabaleta
Irailaren 16an, Ikerrek 41 urte eta 20an, Aimarrek 5 urte. Zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunian. Patxo handi bana, familia osoaren partetik.



OÑATI
Izar Aramburu Gende
Irailaren 16an, urtebete.
Zorionak, maitia. Gure etxeko txikien urtebete! Segi beti bezain pozik eta zure irribarre politarekin! Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Oihane Bengoa
Irailaren 15ean, 13 urte.
Zorionak eta urte askotarako, Oihane!
Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo pila bat, familia danaren partetik! Muak!



BERGARA
Beñat Larrañaga
Irailaren 15ean, 6 urte.
Zorionak eta urte askotako, etxekoen partetik.



OÑATI
Noa Montero San Vicente
Irailaren 14an, 6 urte.
Zorionak, printzesa!
Munduko laztanik beruena zuretzat!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna!
Asko maitte zaittugu!



OÑATI
Maddi Solana Amundarain
Irailaren 14an, 4 urte.
Gure bilobaren eguna ospatuko dugu eta poz-pozik jolastuko dugu danok batera. Muxuak, amamaren eta aittaitaren partetik.



OÑATI
Markel Elorza San Miguel
Irailaren 14an, 11 urte.
Zorionak, Markel!
Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
Maialen Cortabarría
Irailaren 13an, 5 urte.
Zorionak, printzesa!
Edero ospatu geben zure eguna merendolan. Muxu pila bat! Maitte zaittugu!



OÑATI
Anje Barrena Agirrebalzategi
Irailaren 12an, urtebete.
Zorionak, polit hori! Jada urtebete! Ondo pasatu eguna familia eta inguruko danakin. Patxo erraldoi bat.



DONOSTIA
Mikel Agirre Pinacho
Irailaren 12an, urtebete.
Zorionak eta patxo handi bat Arrasateko amamaren, ahizpa Maialenen, izeba Amaia eta osaba Hakanen partetik!



ARRASATE
Ibai Rodriguez Baena
Irailaren 12an, 8 urte.
Zorionak etxeko nagusiarri. Disfrutatu gaurok eguna. Besarkada handi bat Jonen, Nahiaren eta familia osoaren partetik.



ESKORIATZA
Lander Villar Maguregi
Irailaren 11n, 38 urte.
Zorionak, aitatxo! Patxo handi bat! Ondo pasatu eguna.



OÑATI
Maddi Txintxurreta
Irailaren 11n, 24 urte.
Zorionak eta urte askotarako, Madditz!
Ondo-ondo pasatu eguna eta zelebrauko danok batera!
Kuadrillakuen partetik! Muak!



BERGARA
Ekhi eta Hodei Iturrospé
Irailaren 10ean, 3 urte.
Zorionak, bikote!
Txokolatzeko pastela jateko danok elkartuko ga. Laztan bana, etxeko danon partetik.



OÑATI
Ekhi Garcia Aranburu Tellería
Irailaren 10ean, 2 urte.
Zorionak, txapeldun!
Patxo handi bat, familia danan eta, bereziki, zure arrebato Izadiren partetik.



ANTZUOLA
Malen Angeles Tellería
Irailaren 9an, 4 urte.
Zorionak, maitxia!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna aitatxoren, amatxoren eta, batez be, Iraieren partetik! Segi holaxe!



BERGARA
June Rubio Belategi
Irailaren 9an, urtebete.
Etxeko txikien urtebete. Zorionak, maitia! Muxu handi bat, printzesa!



OÑATI
Izar Egaña Umerez
Irailaren 8an, 3 urte.
Zorionak etxeko sorgintxoari!
Ondo-ondo pasatu eta egin hiru putzada handi hiru kandelatxo!



ARRASATE
Maria Iriondo
Zabaleta baserriko Mariak irailaren 8an 95 urte bete zituen eta zapatuan Arteaga jatetxean familiarekin elkartu zen ospatzeko. Zorionak, Maria. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Danel Outeiriño Balanzategui
Abuztuaren 31n, 9 urte.
Zorionak, txapeldun! Amatxo.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak:
Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.
Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera.
Ordezkaritzak
Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 15

OÑATI Txandaren 'outlet' azoka
Udako denboraldiko produktuak, prezio merkeetan.
Denda bakoitzaren aurrean, 09:00etan hasita.

ESKORIATZA Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARETXABALETA Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARRASATE Trikitixa Eskolaren ate irekiak
18:00etan kalejira, 18:30ean trikitiarekin hartu-eman eta ostean, pintxoak eta triki-gin lehiaketa.
Herriko plazan, aipatutako orduetan.

OÑATI Reala-Osasuna partidua
Kilometroen aldeko emakumezkoen futbol partidua.
Azkoagainen, 18:30ean.

OÑATI 'Ama nora goaz?' dokumentala
Emeek emana erakusketaren inguruko ekintza.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Welcome' kale antzerkia
Iñaki Mataren eskutik.
San Martin plazan, 19:00etan.

OÑATI San Martingo jaiak
19:10ean txorimaloak, 19:30ean pintxo-potea eta 22:00etan Summertime Fest 4.0, What A Band, Screammers & Sinners, eta Vancouver taldeekin eta Iñaki Cerqueira eta Level Groove DJekin.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ARAMAIO Eltziegoko Udal Bandaren kontzertua
Sastiñako zikloko emanaldia.
Aipatutako lekuan, 20:00etan.

BERGARA Bantastic Band taldea
Kulturate Akustikoak egitarauko kontzertua.
Kulturaten, 20:00etan.

BERGARA San Martingo danborrada
Inoizko helduen danborrada jendetsuena eta zaratatsuena egingo dute, kultura etxean hasita.
Bergarako kaleetan, 22:30etan.

BERGARA San Martinen errepresentazioa
Udal Musika Bandaren laguntzarekin.
San Martin plazan, 23:30etan.

ZAPATUA 16

OÑATI Oñatiko mendi martxa
Bi ibilbide egongo dira. 13:30ean, Tiago Gonçalves zena omenduko dute.
Foruen plazan, 07:30etan.

OÑATI Txandaren 'outlet' azoka
Udako denboraldiko produktuak, prezio merkeetan.
Denda bakoitzaren aurrean, 09:00etan hasita.

OÑATI 'Xavier Alvarez de Eulate' pintura lehiaketa
Bosgarren aldiz egingo dute aire zabaleko pintura azkarreko lehiaketa.
Gandiaga topagunean, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Nordic walking' saioa
Bi orduko saioa egingo dute. Bukieran, gosari osasuntsua.
Ibarra kiroldegian, 10:00etan.

OÑATI Birzikleta Azoka
Bigarren eskuko materiala erosteko aukera.
Plazako frontoian, 10:00etan.

OÑATI 30. Oñati saria
Afizionatu mailako ziklistendako lasterketa. 95 kilometro.
Unibertsitate etorbidean, 10:00etan.

ARRASATE Birzikleta Azoka
Bigarren eskuko materiala salgai.
Mondragones kalean, 11:00etan.

OÑATI San Martingo jaiak
11:00etan umeendako lasterketa, 12:30ean umeendako jolasak, 14:00etan auzo bazkaria, 16:00etan mus txapelketa, 17:30ean Supituki taldean emanaldia, 19:00etan garagardo dastatzea eta 19:15ean Gaitzerdi taldearekin erromeria.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

BERGARA Musika Bandaren kontzertua
Kultura kalera programa.
San Martin plazan, 12:30etan.

OÑATI Elkar Heziko ikasle oihen jaia
12:30ean triki-poteoa Boga tabernan, 14:30ean bazkaria, 16:00etan musikaldia eta 18:30ean poteoa, Elektrotxarangarekin.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

LEINTZ GATZAGA Erretiratuen bazkaria
Toki-Eder elkartean batuko dira bazkaltzeko.
Aipatutako lekuan, 14:00etan.

ARRASATE Bilboko manifestaziorako autobusa
Kataluniako erreferenduma babesteko, Arrasateko Gure Esku Dagorekin.
Garibai geltokian, 15:30etan.

ESKORIATZA Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Gaztelekuan, 16:30etan.

OÑATI Sanmigeletako mus txapelketa
Zortzi erregetara, zazpi hamarrekotara eta hiru usteletara jokatu da. Izena, txapelketa hasi aurretik (15:30-16:15). Bikote bakoitzak, 30 euro.
San Lorentzoko ermitan aurrean, 16:30etan.

ARETXABALETA Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Gaztelekuan, 16:30etan.



SAIOA GAUILLUNAK

BERGARA Huntza taldearen kontzertua
San Martin eguneko emanaldia. Huntza taldeak trikiti eta panderoak astinduko ditu, *Udako bueltea* diskoaren kantu esanguratsuenak jotzeko eta ikus-entzuleak dantzan jartzeko. Doan.
Bihar, zapatua, San Martin plazan, 23:00etan.

ARRASATE Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

OÑATI Haurren danborrada
San Migel jaietako ekintza. 2008an eta 2009an jaiotako neska-mutikoekin.
Santa Marinan, 18:00etan.

BERGARA Haurren danborrada
San Martin jaietako danborrada, kultura etxetik abiatuta.
Aipatutako lekuan, 18:30etan.

DOMEKA 17

OÑATI Mendi ibilaldia Degurixara
Araotzeko elizan hasita, hamahiru kilometroko ibilaldia egingo dute. Aurrez izena eman behar da, 943-78 28 94 telefonoan.
Aipatutako lekuan, 08:30etan.

ARETXABALETA II. Mendi Bizikleta Martxa
Bi ibilbide: motza hamar kilometrokoa eta luzea, 33koa. Izen-ematea, Herriko Plazan, 08:30etan.
Aipatutako lekuan, 09:00etan.

BERGARA Aire zabaleko pintura lehiaketa
Beart elkartearen eskutik, 44. Simon Arrieta lehiaketa.
Udaletxean, 09:00etan.

ESKORIATZA Bizikleta Martxa
Urkulura joan-etorria egingo dute. Torrebason hamarretakoa.
Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.

OÑATI 47. Haurren Eguna
Hamahiru talde. 10:15ean ongi-etorria taldeei, 11:00etan hamaiketakoa, 11:45ean alkate txikiaren agurra, 12:00etan dantzaldia kalerik kale, 13:30ean haurren banaketa, 17:00etan alardea eta 18:30ean txorimaloak.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

ELGETA Vespa eta Lambretta motorren topaketa
Motorrak ikusgai egongo dira 12:15era arte, eta ostean, 40 kilometroko ibilaldia egingo dute.
Mendizaleen plazan, 10:30etan.

ARRASATE Oroimen Eguna Besaiden
10:30ean mendizaleei agurra, 11:00etan hildako mendizaleak oroitzeko ekitaldia, 11:30ean presidentearen hitzaldia eta 12:00etan aurrekua eta lore-eskaintza.
Besaiden, aipatutako orduetan.

ARRASATE Bizikleta bira
Hamar kilometroko ibilbidea egingo dute, herrian zehar.
Seber Altuben, 11:00etan.

OÑATI Zañartuko jaiak
12:00etan meza eta luntxa eta 14:30ean auzo bazkaria.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

BERGARA Nazioarteko xake txapelketa
Punta-puntako jokalariaik.
Zabalotegin, 16:00etan.

OÑATI Herri mailako bolo txapelketa
Kurtze Baltz elkartearen eskutik.
San Martingo bolatokian, 16:00etan.

ESKORIATZA Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Gaztelekuan, 16:30ean.

ARETXABALETA Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Gaztelekuan, 16:30ean.

ARRASATE Gaztelekuaren irekiera aste bukaera
Hango baliabideak probatzeko eta udako bizipenak kontatzeko aukera.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

BERGARA Erraldoien konpartaren kalejira
San Martin plazatik irtenda, kalerik kale ibiliko dira.
Aipatutako lekuan, 18:00etan.

BERGARA Kamerata Oiasoren kontzertua
Kultura Kalera ekimeneko emanaldia.
Mariaren Lagundian, 19:00etan.

OÑATI Hiri Galduek taldea
Josu Calvok kontzertu akustikoa egingo du bere proiektu berria aurkezteko.
Pako tabernan, 19:30ean.

BERGARA Suzko erruberak
San Martin jaiak bukatzeko.
Agorrosinen, 22:00etan.

ASTELEHENA 18

ARRASATE Izen-ematea: pintura ikastaroak
Gaur zabaltzen da matrikulazio epea, Kulturateko pintura gelan, 17:00etan. Amaia Bengoak emango duen ikastaroa hilaren 25ean

hasiko da. 7 urtetik gorakoendako ikastaroa da. Gehienez, hogeikasle.
Kulturaten, 17:00etan.

OÑATI 'Emeek emana' erakusketa
Gerrako eta frankismo garaiko kontakizunak emakumeen aurpegiakin.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Amasahara' erakusketa
Saharari buruzko argazkiak ikusgai.
Arkupen, 18:00etan.

MARTITZENA 19

OÑATI Ate irekiak ludotekan
Eguneroko funtzionamendua ezagutzeko aukera.
Txalokan, 16:45ean.

OÑATI Hazkunde pertsonalari buruzko hitzaldia
Lourdes Igartua Dorronsorok egingo du berba.
Pake Lekun, 17:00etan.

ARRASATE Ipuin kontaketa
Japonian jatorria duten rakugoak kontatuko dituzte Axen Escaladak, Arantza Imazek, Maider Iburguren eta Hiromi Yoshidak.
Kulturaten, 18:30ean.

ARETXABALETA Aratz elkarteak 25 urte: film laburrak
Adimen urritasuna dutenak protagonista diren film laburrak ikusgai.
Arkupen, 19:00etan.

ARETXABALETA Kontzertu ekonomikoaren gaineko hitzaldia
Pedro Luis Uriartek egingo du berba, EAJk gonbidatuta.
Komentuan, 19:00etan.

OÑATI 'Emakume oñatiarrak 1936ko gerra garaian' hitzaldia
Julia Mongek, Idoia Etxeberriak eta Jerardo Elortzak egingo dute berba.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI Nagusien danborradako entsegu orokorra
Taldea guztiek parte hartuko dute.
Eltzian, 20:00etan.

EGUAZTENA 20

OÑATI Ate irekiak ludotekan
Eguneroko funtzionamendua ezagutzeko aukera.
Txalokan, 16:45ean.

ARETXABALETA Bigarren eskuko bizikleta azoka
Zulaketak konpontzeko tailerra, bizikleta elektrikoaren erakusketa eta horiek probatzeko aukera, bigarren eskuko materiala salgai...
Herriko Plazan, 17:00etan.

ARETXABALETA Aratz elkarteak 25 urte: pintxo-pote musikatua
Kalerik kale ibiliko dira.
Herriko kaleak, 18:00etan.

OÑATI Izen-ematea: plazako dantza tradizionalen ikastaroa
Zabalik dago matrikulazioa, musika eskolan, iraila bukatu arte. Patxi Montero izango da irakaslea eta eskolak urriaren 4an hasiko dituzte, Zuazola institutuko gimnasioan.
Izen-ematea, musika eskolan.

ESKORIATZA 'Ostegun bidaiariak': Dolomitak
Jon Kortazarrek eta Iratxe Arresek 2016an egindako bidaia: Dolomitak-Eslovenia. Bosnia-Kroazia.
Zaldibar antzokian, 21:30ean.

EGUENA 21

ESKORIATZA Bizikletan segurtasunez ibiltzeko aholkuak
Seinalizazio txalekoak eta beste banatuko dira tailerrean parte hartzen dutenen artean.
Fernando Eskoriatza plazan, 17:00etan.

ESKORIATZA Garagardo azoka
Zaharren egoitzaren alde: janari alemana, askotariko garagardoak, musika, tonbola...
Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

OÑATI Nagusien danborradako entsegu orokorra
Taldea guztiek parte hartuko dute.
Eltzian, 20:00etan.

ZINEMA

EIBAR

COLISEO

Barry Seal
Zapatua eta domeka: 17:00.

Churchill
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelena: 20:30.

La niebla y la doncella
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:00.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelena: 20:30.

Dunkerque
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:15.

ANTZOKIA

Tadeo Jones 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

Barry Seal
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelena: 20:30.

Barry Seal
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Transformers
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelena: 17:30, 19:30.

Veronica
Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:15.

El otro guardaespaldas
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:15.

IT
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:15, 21:30.

Dunkerque
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:15.

La seducción
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:30.

The limehouse golem
Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:20.

Tadeo Jones
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30.
Astelena: 17:30, 19:30.

Juerga de mami
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Astelena: 17:20, 19:30, 21:30.

La niebla y la doncella
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelena: 19:20, 21:30.

Emoji
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.
Astelena: 17:30.

Rey Arturo
Egubakoitzetik domekara: 22:30.

BOULEVARD

Detroit
Egubakoitzetik zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:45, 21:30.

Alibi.com
Egubakoitzetik zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

IT
Egubakoitzetik zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:30, 19:30,

21:15, 22:15.

Tadeo Jones
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.
Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 16:30, 18:30.

Tadeo Jones 3D
Egubakoitzetik eguenera: 16:00.

Barry Seal
Egubakoitzetik eguenera: 16:50, 19:15, 21:45.

El amante doble
Egubakoitzetik zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:10.

La niebla y la doncella
Egubakoitzetik zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik eguenera: 19:10, 21:20.

Veronica
Egubakoitzetik eguenera: 17:55, 22:50.

Dunkerque
Egubakoitzetik

KRITIKA

La seducción ★★★★★

Zuz.: Sofia Coppola. **Herr.:** XXXX (2000). **Aktoreak:** Nicole Kidman, Kirsten Dunst, Colin Farrell. **Iraupena:** 00 minutu.

Taldearen indarra

ANTONIO ZABALA

Emakume talde bat da *La seducción*-eko protagonista. Istorioa Ameriketako Estatu Batuetako sesesio-gerran Batuetako etxe Hegoaldeko etxe handi baten, adin desberdinetako emakumeak bizi dira. Neskatilak hezteko etxea da, eta, ikasleekin batera, irakaslea eta eskolako zuzendaria daude. Guda dela eta, taldea setiatuta dago. Gertu dute gerratea eta ez da komenigarria handik irtetea. Egun baten, zaurituta dagoen iparraldeko armadako desertore bat etxean sartuko dute, eta egoera horrek emakumeen bizi lasaia astinduko du. Ondo hezitako eta beti itxurak mantentzen dituzten neskek izan arren, euren portaera erabat aztoratuko da.

Nork bere modura gizonaren arretoa lortu nahi du, eta, bera jakitun denez, egoerari etekina ateratu dio. Bi alderdien arteko sedukzio jokoak sortuko eta hasiko da. Gauzak nahasten joango dira, eta azken zatian, emakume guztiek indarrak batuko dituzte; hau da, talde bihurtuko dira, egoerari irtenbidea aurkitzeko.

Sofia Coppola ondo moldatzen da emakume bakoitzaren izaera azaltzeko eta etxe barruan bizi den giro itogarria islatzeko.

Emakume guztiek oso finak eta lasaiki ematen dute, baina bizimoduaren alde frustragarria antzematen da. Istorioak eta pertsonaien portaerak erakargarri den anbiguotasuna dute.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Gipuzkoa berdinago

Izen hori duen dinamika abiatu genuen apirilean, Gipuzkoan erreferentziatzeko garen hainbat erakunderen, enpresaren eta eragileren artean; eskualdeko Mondragon taldea eta Laboral Kutxa tarteko. Helburua zen jendaurreko hizkuntza portaera orekatzaile bat adostea, euskara parekotasun egoeran jartzeko bidean.

Lana sendo egin dugu, bakoitzaren praktikak aztertuz eta elementu komunak bilatuz, zintzo demonio azalduz zailtasunak, erabat sinetsita lankidetzaren indarrak. Bateratze prozesu askotan aritua naiz, eta oraingoan ere nabaritu dut taldekide bakoitzaren borondatearekin nola eraikiz joan den talde borondatea. Magia moduko zerbait da.

Azken emaitza bistaritzen hasi gara. Eta bikaina da. Ikuspegi berri bat eraiki dugu, hizkuntza berdintasuna helburu eta gure erantzukizuna akuilu dituenak. Praktika onekin osatutako zoru komun bat zehaztu dugu, eta zoru horren gainean bidea elkarrekin egiteko konpromisoa lotu. Urtea amaitzerako agertuko gara gipuzkoar gizartearen aurrean, gure erreferentzialtasuna euskararen mesedetan jartzeko. Ederra izaten ari da prozesua; eraginkorra izango da emaitza.

BUKATZEKO



Aterpetxea berreskuratzeko lanean aritu den taldeko kide gehienak, joan den asteburuan. AIZKORRI BIZIRIK



2016



2017



2016



2017

2016ko azaroko argazkiak eta 2017ko uztaileko argazkiak. A.B.

Aizkorrik aterpe berria dauka, auzolanari esker

2016ko irailean hasi eta urtebetera, amaitutzat eman ditu Aizkorri Bizirik-ek gailurreko aterpetxea berreskuratzeko obrak; laguntzen aritu direnei eskerrak emanda, eraikina zaintzeko eskatu dute, eta aterpetxearen egoerari jarraipena egingo diotela gaineratu

Jokin Bereziartua OÑATI

Aizkorri Bizirik taldeak amaitutzat eman ditu Aizkorriko aterpetxe ezaguna berreskuratzeko lanak. Joan den asteburuan elkartu ziren proiektuan gehien inplikatu direnak, ospakizun giroan. "Gutxi batzuek aterpetxean egin genuen lo, eta gero, lanean aritu garenok Urbiako fondan bazkaldu genuen. Modu bat izan zen denok elkartzeko; batzuek ez genuen elkar ezagu-

tzen, txanda ezberdinetan aritu izan garelako aterpetxean lanean", dio Aizkorri Bizirik-eko Jose Mari Anduaga Andu-k.

Ate zaharra, helikopteroan jaitsia

Urtebete iraun du proiektuak, Zegamako eta Debagoieneko boluntario talde baten eskutik. Hasiera batean, aterpetxea garbitu eta margotu zuten, baina, zegamarren inplikazioari esker, hainbat hobekuntza egin dira. Atea

konpondu ostean berriro ere jartzeak eragin dizkie buruhauste gehien: "Zegama-Aizkorri mendi maratoiko helikopteroa aprobetxatu genuen ate zaharra jaitsi eta galdarategi batean konpontzeko. Behin konponduta, hama-bost lagun artean igo behar izan genuen". Atea konpontzeaz gain -ate bikoitza eta berezia jarri dute-, beste hainbat hobekuntza egin dira, auzolanean. Aterpetxea zaintzeko eskatu du

Andu-k, eta honako hau gaineratu: "Urtebetean pintaketa bakar bat egon da, poztetua da. Gainera, edozer gertatzen bada, gaur egun berehala salatzen da sare sozialetan; garbitu eta margotu genuenean, hiru egunetan, 15.000 bisita izan genituen Facebooken".

420 kamiseta eta 15.000 bat euro

Aterpetxearen obraren gastuak estaltzeko kamisetak atera zituzten; beste datu esanguratsu bat da hasieran 100 atara arren 420 saldu dituztela: "Kamisetaren dirua obraren inbertitu dugu; zati handiena Zegamako Udalak ordaindu du, eta federazioak ere lagundu du. Zifraz ez nago ziur, baina 15.000 bat euro inguru gastatuko ziren". Obra amaitutzat eman arren, 2018ko udarako lan txiki batzuk aurreikusten dituzte. "Eskerririk asko laguntzen aritu zareten guztioi; guk aterpetxea zaintzen jarraituko dugu", gaineratu du Andu-k.

NISSAN
Innovation that excites

NISSAN QASHQAI BERRIA
BETI LEHENENGOA

GAURSA
Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Gasteiz - Araba - Tel. 945 262 501
Kontsumo mistoa: 3,8 - 5,8 l/100 km. CO₂ isurpenak: 99 - 134 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.